

BAPATEAN 94

Bertso bilketa: Zaldubi eta Iñaki Agirresarobe

Transkribaketak: Zaldubi, I.Agirresarobe eta Aitor Sarasua, Josu goikoetxea

Azken aukeraketa eta zuzenketak: Aitor Sarasua

Irizpideak eta Koordinazioa: Bertsolari Elkarte

Doinuen izendapena: Joanito Dorronsoro

EHBE

© Euskal Herriko Bertsolari Elkartea
Igeldo Paselekua, 25
20008 Donostia
Tel. 21 77 98 Fax. 21 24 27

L.G. 1.155-1995
ISBN.: 89283-06-0

AURKIBIDEA

Hitzaurrea
Bertso saioen mugimendua
Kontzeptuen azalpena
Irizpideak
94ean egindako txapelketa eta sariketak
94ko Urteko bertso hautatuak
Saioen aurkibidea
Bertsolarien
Izengoitiak

HITZAURREA

Berandutxo bada ere bukatu ditugu azkenean 94ko bat-bateko bertsoen bilduma izan nahi duen liburu honen lanak. Irakurleak jakingo duenez, ez da alperrik eta zazpigarren urtea Bertsolari Elkarteak honelako dokumentua ateratzen duena, 1994. urtean zehar Euskal Herriko bazterretan bat-batean bota diren bertsoen bilduma da honakoa, bertsoen aukeraketa, nolabait urte horretako bat-bateko bertsogintzaren lagin aberats izan nahi duena.

Aukeraketarako irizpideak aurreko urteetako berak izan dira, baina berriz gogoratzeari ez deritzot alferrikako, nire lasaitasunerako besterik ez bada ere. Bertsolari bakoitzak urte horretan egin dituen saio kopurua izan da irizpide nagusi (Bertsolari Elkarteak dituen datuen arabera), eta bertso kopuru hori osatzeko bildu ditugun bertsoen kalitatea, saio mota desberdinak erakustea eta gaien aniztasuna izan dira kontutan. Txapelketetako bertsoak ez dira hemen sartu, horiek badute eta beste zabalkunderik.

Bertsoak, berriz, hiru iturritatik jaso ditugu. "Xaldubi" eta Iñaki Agirresarobek urtean zehar egindako grabazioetatik interesgarrienak transkribatu dituzte eta aukeratzailerik honek horietatik egokienak hartu ditu. Horiekin ordea ez da behar zenaren erdirik ere osatu, eta gainontzekoak Xenpelar Dokumentazio Zentrutik kasetak hartu eta bertsoak entzuten asetu bat hartu ondoren aukeratuak izan dira. Saioren bat geldituko zitzaigun ziurrenik aztertu gabe, Dokumentazio Zentrura grabaziorik iritsi ez delako, baina gehienak han bilduta daudela uste dugu.

Hala ere bost bertsolari gelditu zaizkigu liburu honetan agertzeko bertsorik gabe, nahiz eta saio kopuruaren arabera bazegokien: Estitxu Fernandez, Mikel Galartza, Ricardo Gonzakez de Durana, Oihane Perea eta Xabier Silveira. Aurrez barkamenak.

Jakina, finkatutako kopuruetatik ez gehiegi urruntzeko zenbait bertsolariren bertso egoki batzu albora utzi behar izan ditugu, eta beste zenbaiten kaxkarxeagoak ere sartu egin behar izan ditugu. Ahal dela onentxuenak aukeratzeko saiari gara baina bestelakoak ere errealitatearen isla dira, eta ez dute kalterik egingo.

Gainerakoan 1994ak izan ditu bertsogintzan, eta bertsolaritzan, gauza interesgarriak, txapelketa nagusiak bezain entzutetsuak ez direnak baina gure ihardunaren norabidea erabakitzeke mugarri izan daitezkeenak.

Bost bertsolari izan dira 93ko Bapatean liburuan agertu zirenak eta aurten saio gutxiago egin izangatik kanpoan gelditu direnak. Berriak berriz, aurten lehenengo aldiz hemen azalduko direnak, hogeitabat, ia denek hamabost saiotik behera egin badituzten ere. Dozenerdi bat bertsolari dira 100 saio edo gehiago egin dituztenak (gehien egin dituenak 210 egin ditu), eta hamabostek edo 50 eta 100 bitartean.

Telebistarekiko ezadostasunak azaleratu diren urtea ere izan da 94.a. Liburuan zehar behin baino sarriago aipatuko dute bertsolariek gai hau eta beraiek egingo digute gertatutakoaren kronika ezin hobeto. Bi gertakari nagusi: Debaldeko Festa zuzeneko telebistako saioan lau bertsolari gazteri batere disimulorik gabe egindako zentsura, eta Hitzetik Hartzera saioaren jarraipenerako Telebistak eta Bertsolari Elkarteak izan dituzten desadostasunak eta ondorioz programaren etenaldia. Balorazioak bertso askotan isuriko dituzte bertsolariek.

Azkenik zenbait berrikuntza ere ekarri digu bertsogintzak. Bapateko saioei dagokienez bi aipatuko nituzke, biak ere gaijartzeko moldeari egindako ekarpenak: Gaintzan lehena, Xabier Mendigurenek prestatutako gidoi bati jarraiki bapateko bertsoz egindako antzerkia taularatu zuten bertsolariek. Eta bigarrena Aretxabaletan, lau bertsolarik gaijartzaile lana beraien artean banatu zuten, elkarri gaiak eta frogak jarritz saio bizi eta aberats bat moldatuz.

Bertsogintzaren beste atal bat ere, bertsopaperena alegia, astindu zuen 94.ak. Egañak diska atera zuen Durangoko azokarako, aurrerako Amurizak hasitako bideari beste bidegurutze bat erantsiz; Iturriaga eta Elortzak ere zazpi eskaleen emankizuna atera zuten rock talde baten formatoa bertsolaritzara hurbilduz (ala alderantziz), eta Sarasua anaiek eta Mendizabal-Euzkitze bikoteak pianoaren laguntzaz bertso jarriak plazaratu zituzten.

Urte emankorra esango genuke, bertsolariak bertsogintzaren lema eskutan hartuz, bide berriak frogatuz, hedabideetan duen papera aztertuz eta kontrolatuz, konplejuak gainditzen ari direla erakusten duena. Orokorki kulturgintzarako eredu ikusten dute batzuek. Beste batzuek telebistarekiko gatazkak kezkatu egiten ditu eta gainbehera baten hasiera aurrikusten dute. Geroak esango du.

On dagizula.

Aitor Sarasua

Bertso saioen mugimendua

Liburu honetan bertso saioei buruz ematen den informazioa, Bertsolari Elkartean jasotakoa da. Burutzen diren bertso-saio guztien berri izatea ia ezinezkoa bada ere, jasotako informazioa, lautik hiru inguru dela uste da.

Gu ez gara hemen datu hauek interpretatzen hasiko, besteak beste, bertsolaritza bere hedapenaren arabera bakarrik neurtu ez daitekeelako. Nolanahi, datuak hor daude bakoitzak nahi beste gogoeta eginbide.

PROBINTZIAK	Jaialdia k	Plaza librekoa	Lagunar tekoak	Txapel ketak	Sarike tak	Hitza diak	Gainera koak	Denera
GIPUZKOA	161	162	136	5	7	31	77	579
BIZKAIA	71	65	61	9	10	14	47	277
NAFARROA	16	18	48	6	2	21	13	124
ARABA	11	10	13	2	2	0	17	55
IPARRALDEA	6	7	4	3	0	0	6	26
DENERA	265	262	262	25	21	66	160	1.061

GIPUZKOA

ESKUALDEAK	Jail diak	Plaza libreko a	Lagun artekoak	Txapel keta	Sarik etak	Hitza ldiak	Gain rakoak	Dene ra
Deba-Behera	16	15	15	0	0	1	5	52
Deba-Garaia	16	16	12	1	0	0	6	51
Goierni	29	27	24	1	1	3	13	98
Beterri	30	18	25	0	0	2	9	84
Donostiald.	27	45	26	0	2	6	24	130
Kosta Urola	26	12	17	1	1	0	4	61
Errenterialdea	17	29	17	2	3	19	16	103
DENERA	161	162	136	5	7	31	77	579

BIZKAIA

ESKUALDEAK	Jaialdiak	Plaza librekoa	Lagun artekoa	Txapelketak	Sarikitak	Hitzaldiak	Gainerakoak	Denera
Lea-Busturia	14	13	10	2	8	2	2	51
Uribe-kosta	11	10	14	3	0	1	6	45
Arratia	4	5	10	1	1	0	2	23
Durandaldea	16	19	6	1	0	10	6	58
Erdalgunea	26	18	21	2	1	1	31	100
DENERA	71	65	61	9	10	14	47	277

NAFARROA

ESKUALDEAK	Jaialdiak	Plaza librekoa	Lagun artekoa	Txapelketak	Sarikitak	Hitzaldiak	Gainerakoak	Denera
Bidasoa-Baztan	8	10	18	3	0	0	5	44
Araitz-Leitza	4	2	12	1	2	0	0	21
Larraunaldea	0	4	9	0	0	0	5	18
Erdalgunea	4	2	8	2	21	0	3	40
Pirineoaldea	0	0	1	0	0	0	0	1
DENERA	16	18	48	6	23	0	13	124

ARABA

ESKUALDEAK	Jaialdiak	Plaza librekoa	Lagun artekoa	Txapelketak	Sarikitak	Hitzaldiak	Gainerakoak	Denera
Aiaraldea	1	4	3	0	1	0	4	13
Leintz	1	1	1	0	0	0	0	3
Erdalgunea	9	5	9	2	1	0	13	39
DENERA	11	10	13	2	2	0	17	55

IPARRALDEA

ESKUALDEAK	Jaialdiak	Plaza librekoak	Lagun artekoak	Txapelketa	Sariketak	Hitza ldiak	Gainekoak	Denera
Lapurdi	3	5	3	3	0	0	4	18
Nafarroa Beherea	3	2	1	0	0	0	2	8
Zuberoa	0	0	0	0	0	0	0	0
DENERA	6	7	4	3	0	0	6	26

Kontzeptuen azalpena

- Jaialdiak: Gaijartzailea, 4 bertsolari edo gehiago...
Plaza librea: 2-3 bertsolari, librean, plazan, jaietan...
Lagunartea: Jatordu giroan edo antzekoetan gehienbat.
Txapelketak: E.H., Probintzia mailakoak edo eskolartekoak.
Sariketak: Elkarreek, Udalek edo motibo jakin baten inguruan antolatzen direnak.
Hitzaldiak: Bertsolaritza gai izanik edozein markotan antolatua.
Gainerakoak: Bertso-asteak, omenaldiak, bertso-ekintza bereziak...

Herrialdeak: (eskualde gisako lur eremuak)

GIPUZKOA

- Deba-Behera: Eibar, Deba, Mutriku, Soraluze, Mendaro...
Deba-Garaia: Elgeta, Oñati, Arrasate, Eskoriatza, Aramaio...
Goierrri: Zegama, Legazpia, Ormaiztegi, Legorreta, Ataun...
Beterri: Amezketa, Ikaztegieta, Berastegi, Alkiza, Billabona...
Kosta-Urola: Zumaia, Azkoitia, Bidania, Aia, Orio...
Donostialdea: Andoain, Usurbil, Donostia, Astigarraga, Urnieta...
Errenterialdea: Hondarribia, Oiartzun, Pasaia, Lezo...

BIZKAIA

- Lea-Busturia: Ondarru, Markina, Lekeitio, Aulestia, Ibarrangelu, Nabarniz, Gernika, Muxika...
Uribe-Kosta: Bermeo, Bakio, Plentzia, Mungia, Sopela, Getxo, Leioa, Derio, Asua, Larrabetzu...
Arratia: Zaratamo, Orozko, Otxandio, Zeberio, Igorre, Lemoa.
Durangaldea: Zornotza, Durango, Mallabi, Ermua, Elorrio...
Erdalgunea: Basauri, Bilbo, Ezkerraldea, Enkarterriak...

NAFARROA

- Bidasoa-Baztan: Bidasoa, Bortziriak, Baztan eta Malerreka
Araitz-Leitza: Goizueta, Leitza, Areso, Atallu, Betelu...
Larraunaldea: Sakana, Larraun, Basaburua eta Ultzama
Pirineoaldea: Orreaga, Luzaide, Eugi
Erdalgunea: Iruñea, Erribera, Erronkari, Lizarra...

ARABA

- Aiaraldea: Areta, Laudio, Abornikano...
Leintz: Aramaio eta ingurua
Erdalgunea: Gainerako Araba

IRIZPIDEAK

"Bapatean 94", aurrez kaleratuak izan diren Bapatean-en beste sei aleek egin bide beretik datorkigu. Ahalegin honen helburua, urtez-urte burutzen den bertsogintzari buruzko lekuko izatea litzateke.

Irakurleak liburu honetan ez du bertso antologiarik aurkituko. Plazetan kantatutako bertso on guztiak ez dira liburura ekarri, hain zuzen, kantuan dabilzan bertsolari desberdinen isla izan nahi baitu eta ez onena bakarrik. Plaza batetik bestera bertsolari bakoitzak kantatu duen 'ustez' hobenetik hartu da bakoitzaren sorta eta egin dituen saio kopurua kontutan izanaz. Bertso-plaza eta bertsogintzaren "mapa" antzeko zerbait aurkitu dezake interesatuak. Bertso saioak egiten diren txoko guztietako berri izatea, ordea, ia ezinezkoa denez, agian, zenbait oker egon daiteke, baina hau da Bertsolari Elkartearen bildutako informazioa eta grabatutakotik atera ahal izan duguna.

Lan honen oinarrian, Bertsolari Elkartearen enkarguz Zaldubik batez ere eta Iñaki Agirresarobek bildutako grabazioa dago.

93. urtean bapatean kantatutako bertsoak ditu kontuan liburu honek, eta ez dira barne sartzen, Herrialdeetako Txapelketa edo Txapaleketa Nagusiko bertsoak, ez eta eskolarteko edo bertso jarrien alorrekoak ere.

Bertsolari Elkarte

TXAPELKETAK SARIKETAK

1.- NAFARROA ETA IPARRALDEKO BERTSOLARI TXAPELKETA 94

Lau saiotara jokatu zen txapelketa hau:

Azken-laurdenak

Martxoak 6 Sarako Kiroldagian

Jean Pier Mendiburu
Manolo Arozena

Amaia Telletxea
Iñigo Olaetxea
Txomin Ezponda
Xabier Silveira

Fermin Miura
Urko Atxotegi

Martxoak 13, Elizondoko Trinketean

Bittor Elizagoien
Jexux Arzallus

Mixel Aire 'Xalbador'
Ernest Alkat
Estitxu Arozena
Estitxu Fernandez

J.L. Harinordoki 'Laka'
Aitor Telletxea

Finalaurreak

Martxoak 20, Burlatako Kiroldagian

Estitxu Arozena
Mixel Aire 'Xalbador'
Ernest Alkat
Amaia Telletxea

Txomin Ezponda
Estitxu Fernandez
Iñigo Olaetxea
Xabier Silveira

Finala

Martxoak 27, Lesakako Pilotalekuan

Bittor Elizagoien (txapeldun)
Estitxu Arozena (bigarren)
Jexux Arzallus
Manolo Arozena
Jean Pier Mendiburu
Mixel Aire 'Xalbador'
Ernest Alkat
Amaia Telletxea

2.- ARABA ETA BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 94

Bizkaiko Bertsolari Elkarteak antolatutako Txapelketa, hiru fasetara jokatu zen eta erantzun oso jendetsua izan zuen. Bizkaiko Foru Aldundiaren balbesa eta antolakuntza lanetan Arabako Elkarteak eskuhartzearekingaratu zen antolakuntza lana.

Azken-laurdenak

Azaroak 6, Gasteizko Villa Suso aretoan

Zigor Enbeita
Iñigo Gojenola
Beñat Gaztelurrutia
Unai Ormaetxea
Iñigo Olabarri
Asier Iriondo

Azaroak 13, Zeanuriko Kulturetxean

Jon Mikel Omagojeaskoa
Ibon Iza
Leire Bilbao
Mikel Urdangarin
Rikardo G. de Durana
Igor Meñika
Dani Kastaño

Azaroak 20, Gernikako Santanape pilotalekuan

Iratxe Ibarra
Mirari Azula
Ireneo Ajuria
Iñaki Aurrekoetxea
Oihane Perea
Oier Agirre
Iñaki Gonzalo

Finalaurreak

Abenduak 4, Bermeoko Arza pilotalekuan

Aritz Lopategi
Gregorio Larrañaga 'Mañukorta'
Unai Iturriaga
Kepa Intxausti
Mirari Azula

Jon Mikel Omagojeaskoa
Leire Bilbao
Iñigo Gojenola

Abenduak 8, Durangoko Ezkurdi pilotalekuan

Jon Enbeita
Igor Elortza
Juanjo Respaldiza
Iratxe Ibarra
Mikel M. Urdangarin
Zigor Enbeita
Juan M. Areitio
Ibon Iza

Finala

Abenduak 18, Bilboko Arriaga antzokian

Unai Iturriaga (txapeldun)
Aritz Lopategi (bigarren)
Igor Elortza
Jon Enbeita
Gregorio Larrañaga 'Mañukorta'
Juanjo Respaldiza
Iratxe Ibarra
Kepa Intxausti

3.- ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Udaberrian burutu ziren Eskolarteko Txapelketak. Hona emaitzak:

Bat-batean:

Araban (Gasteiz, 94-04-27), 15-18 urte bitartekoetan, txapelduna: Oihane Perea.

Bizkaian (Bermeo, 92-05-27), 14 urte artekoetan, txapelduna: Alfredo Paya; 2. Ezti Muniozguren. 15-18 urte bitartekoetan, Txapelduna: Beñat Gaztelurrutia; 2. Leire Bilbao.
Antolatzailea: Bizkaiko Ikastolen Elkartea.

Gipuzkoan (Oiartzun, 94-05-28), 14 urte artekoetan, txapelduna: Oiartzungo taldea. 15-18 urte bitartekoetan, txapelduna: Maialen Lujanbio; 2. Ainhoa Agirreazaldegia.
Antolatzailea: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea.

Iparaldean (Makea, 94-05-28), 14 urte artekoetan, txapelduna: Amets Arzallus. 15-18 urte bitartekoetan, txapelduna: Nagore Fernandez.
Antolatzailea: Iparaldeko Bertsolari Elkartea.

Nafarroan (Iruñea, 94-05-20), 14 urte artekoetan, txapelduna: Ekhine Etxepetelek. 14-18 urte bitartekoetan, txapelduna: Xabier Silveira; 2. Xabier Legarreta.
Antolatzailea: Nafarroako Bertsolari Elkartea.

Euskal Herrikoan (Hendaia, 94-06-03), 14 urte artekoetan, txapelduna: Ekaitz Goikoetxea; 2. Alfredo Paya. 15-18 urte bitartekoetan, txapelduna: Xabier Silveira; 2. Maialen Lujanbio.
Antolatzailea: Ikastolen Elkartea.

Bertso idatzietan:

Bizkaian, irabazleak: 5. mailan, Asier Bidaburu; 6.ean, Josu Arriaga; 7.ean Alfredo Paya; 8.ean, Gorka Ostolaza; eta 15-18 urte bitartekoetan, Peru Aranburu.

Gipuzkoan, irabazleak: 3/4 mailetan, Irati Goikoetxea; 5/6 mailetan, Aitziber Garmendia; 7/8 mailetan, Amaia Artolazabal; eta 15-18 urte bitartekoetan, Aitor Sarriegi.

Nafarroan, irabazleak: 3. mailan, Iñigo Plaza; 4.ean, Ibai Zubiri; 5.ean, Xabier Garmendia; 6.ean, Maitane Beaumont; 7.ean, Ekhine Etxepeteleku; 8.ean, Alaitz Rekondo; eta 15-18 urte bitartekoetan, Angel Irureta.

4.- BAT-BATEKO SARIKETAK

Uribekostako I. Bertso Txapelketa (Algorta, 1994-03-13)

Martxoaren 13an jokatu zen Algortan bertako bertso-eskolak antolatuta. Eskualde horretako 11 bertsolarik hartu zuten parte eta Alfredo Paya gaztea suertatu zen garaile. Bigarren, Unai Elorriaga.

II. BBK saria (Bilbo, 1994-03-19)

Bigarren urtez jarraian, Bilbao Bizkai Kutxa eta Bizkaiko elkartearen artean antolatu dute ekitaldi hau. Helburua gazteen plazaratzea duela, bertsolariak bakarka ordez eskualdeko 3ko taldean antolatu behar dute eta eskualde bakoitzetik bi talde: 17 urte artekoak eta 17-25koak. Partehartzaile izan ziren, Durango, Lea Artibai, Arratia eta Busturia eskualdeak.

Ligilla moduko bat jokatu ostean, finala Martxoak 19an jokatu zen Bilbon eta Busturiako taldea izan zen irabazlea eta Durangokoa bigarren.

Bilintx I. Saria (Donostia, 1994-03-27)

Donostiako Altza auzoko Larrotxea Kulturetxea eta auzo bereko bertso eskolak antolaturik, eta 15-18 urte bitarteko partehartzaile hautatuekin, Martxoaren 27an burutu zen. Xabier Sukia atera zen garaile, Oihane Enbita bigarren eta, Nahikari Gabilondo hirugarren.

Osinalde XXIII. saria (1994-04-16)

Gabiriako Osinalde Elkarteak antolatua eta, ohi bezala, afalosteko giroan, antolatzaileek hautatutako sei bertsolari gaztek hartu zuten parte. Bi lehenak, inoiz plazaratu gabeko bi bertsolari suertatu ziren, Paulo Suberbiola eta Andoni Otamendi; hirugarrena, Iñaki Zelaia.

Prudentzio Deuna V. saria (1994-04-24)

Arabako Bertsolari Elkarteak Foru Aldundiaren laguntzaz antolatua. Arabako Bertsolari Txapelketa dela esan daiteke, bertan, adin mugarik gabe, Araban jaio edo bizi den edozeinek parte har dezakeelako. Aurten, hogeita hamabi aurkeztu dira, eta inoiz plazaratu gabeko gazteekin afari

giroko bi saiotan sailkapen bat egin ostean, final aurreko saio bat jokatu zen Apirilaren 16an eta finala 24an Gasteizen. Sailkapena: 1. Zigor Enbeita, 2. Oihane Perea eta 3. Dani Castaño.

Emilio Urzelai I. Sariketa (1994-04-30)

Emilio Urzelai bertsozalearen oroimenez antolatu du Oñatiko bertso eskolak lehen aldiz sariketa hau. Apirilaren 30ean jokatu zen eta, eskualdeko 15-20 urte bitarteko gazteei luzatutako deialdia izanik, hamabi aurkeztu ziren; Amaia Agirianok irabazi zuen eta, bigarren-hirugarrenetan, Ainhoa Agirreazaldegi eta Joseba Lasagabaster geratu ziren.

XII. Lizardi Saria (Zarautz, 1994-09-03)

Hogeita bi urtez azpiko 40 bertsolarik hartu zuten parte Zaruzko "Centro de Atracción y Turismo"k antolatu duen sariketa honetan. Irailaren 2an kanporaketa saioak burutu ondoren, 3an jokatu zen finala. Hernaniko Unai Agirre izan zen txapelduna eta Andoaingo Aitor Mendiluze sailkatu zen bigarren.

XIII. Xenpelar saria (Errenteria, 1994-12-08)

Abenduaren 6an kanporaketak jokatu ondoren, 8an jokatu zen finala. Sariketa hau, Ereintza Elkarteak antolatzen du eta 15-20 urte bitarteko bertsolarientzat da. Xenpelar haundia hil zela 125 urte betetzen diren honetan, antolatzaileek gonbidaturiko Bizkaia-Gipuzkoa-Nafarroetako hemezortzi bertsolarik hartu zuten parte, eta bi saioen buruan, Ainhoa Agirreazaldegi suertatu zen garaile, bigarren Aitor Mendiluze eta hirugarren Aitor Sarriegi.

5.- BERTSOPAPER LEHIAKETAK

Bizkaiko Bertsolari Elkartearen II. saria (1994-01-30)

Bizkaiko Bertsolari Elkarteak antolatzen du lehiaketa hau bertako Foru Aldundiaren babesarekin. Lehiaketa honek hiru maila hartzen ditu bere baitan: haurrak (14 urte artekoak), gaztetak (15-25 urte bitartekoak) eta helduak. Txikienetan bizkaitarrak bakarrik har zezaketen parte eta beste bietan, Euskal Herri osokoak. Hauek izan dira irabazleak: haurretan Iñaki Madariaga, gazteetan Oier Arregi, eta helduetan Juanjo Respaldiza.

Ihaute I. Bertso lehiaketa (Euskadi Irratia, 1994-02-04)

Euskadi Irratiak antolatu du lehiaketa hau eta bertsoak idatzi ezezik kantatu ere egin behar izan ditu saritua suertatu denak. Sari bakarra eman da eta, berau, Antton Kazabonentzat izan da.

Kabi Goitia II. saria (1994-03-04)

Martxoaren 4ean banatu ziren, Bilboko "Matxintxu" AEK euskaltegiak antolatzen duen lehiaketa honetako sariak. Euskaltegi horrek antolatzen duen bigarrena da hau, eta hauek izan dira irabazleak: gazteetan, Arkaitz Estiballes; helduetan, Dani Kastaños.

On Manuel Lekuona VII. saria (Oiartzun, 1994-05-22)

Maiatzaren 22an banatu ziren On Manuel Lekuonaren oroimenez Girizia Elkarteak antolatzen duen bertsopaper lehiaketa honetako sariak. Hauek dira aurtengo irabazleak: gazteetan, Arkaitz Estiballes; helduetan, Martzelino Manterola.

Antzuolako III. saria (Antzuola, 1994-05-28)

Antzuolako Udalako Euskara Zerbitzuak antolatzen du eta Antzuolan jaio edo bizi direnek har dezakete parte. Lau maila bereizten dituzte eta, txikienetan Odei Letek irabazi du, gaztetxoetan Jone Letek, gazteena hutsik geratu da, eta helduetan Josune Madariagak eraman du lehen saria.

VII. Garriko Bertsolari Eguna (Muxika, 1994-06-12)

Muxikako "Garriko Bertso-eskola"k antolatzen duen egun honetan antolatzen den bertsopaper lehiaketan, 60 bat gaztek hartu zuten parte. Aipaturiko ekitaldia Ekainaren 12an burutu zen eta, berezitasun modura, bertsopaperak egun berean eta antolatzaileek jarritako epe batean idatzi behar izaten dituztela aipatu behar da. Mailaz maila, hauek izan ziren irabazleak: 11 urte artekoetan, Mikel Monterroso; 12-13 artekoetan, Maider Barrenetxea; 14-18 bitartekoetan, Ibon Ajuria.

Lazkao Txiki III. saria (Ordizia, 1994-09-12)

Aurten ospatu da hirugarrenez "Lazkao Txiki saria". Ordiziako Argi Berrri Elkarteak antolatzen duen bertsopaper lehiaketa honetara 179 lehiakide aurkeztu dira, eta 180 bertsopaper aurkeztu dituzte. Hauek dira irabazleak: Gaztetxoetan: Ekaitz Goikoetxea; Gazteetan, Alaitz Sarasola; eta helduetan, Rufino Iraola.

Basarri X. saria (Zarautz, 1994-09-03)

Zarauzko Udalako Euskara Zerbitzuak antolatzen duen lehiaketa honetako sariak, Azaroaren 3an banatu ziren Lizardi Sariketaren ostean. Imanol Lazkanok irabazi du lehen saria eta bigarrena, Xabier Mujika izan da.

Orixe UII. saria (Orexa, 1994-10-30)

Urriaren 30ean banatu ziren Nikolas Ormaetxea "Orixe"ren oroimenez Orexako Udalak antolatzen duen bertsopaper lehiaketa honetako sariak. Hauek izan dira aurtengo irabazleak: Gaztetxoetan, Aritz Zeberio; Gazteetan, Arkaitz Estiballes; eta Helduetan, Rufino Iraola.

Nafarroako Idazle Berrien Lehiaketa (Iruñea, 1994-11-01)

Iruñeako Udalak antolatzen duen lehiaketa honetan badu lekua bertso jarriak ere. Ezaugarri nagusienak aipatzearen, hauek: Partehartzaileak naparra izan behar du (nahiz jaiotzez, nahiz bizitzez), lanak gutxienez 25 bertso behar ditu, eta gaia librea da.

Aurtengo edizioari dagokionez, Joxema Leitza izan da irabazlea, Txaro Ondarra bigarren saria eskuratu duena, eta Manu Gomez hirugarrena.

Balentin Enbeita VI. saria (1994-12-14)

Algortako bertso-eskolak antolatzen duen lehiaketa hau da, sariei dagokienez behintzat, bertso-paper lehiaketarik garrantzitsuenak. Hiru maila eta eskolartekoa bereizten dira, maila bakoitzean hiru sari ematen dira eta, horrez gain, "accesit" a frango ere bai. Urtea amaitzean sariak

banatzeke badaude ere, erabakia emana dago. Hauek dira irabazleak: helduetan, Iñaki Aurrekoetxea; gaztetan, Leire Bilbao; gaztetxoetan, Anertz Muniategi; eta eskolartekoan, Muxikako "Garriko".

Etxegiña XIV. saria

Elgoibarko Izarra Elkartek antolatzen du bertso-paper lehiaketa hau; bertan, Elgoibaren bizi edo ikasten dutenek har dezquete parte. 1992ra arte eskola mailetara bakarrik mugatzen zen lehiaketa hau. Orduz gero, helduetara zabaldu da deialdia. Aurtengo irabazlea German Meabe izan da.

Zapirain anaiak VI. saria (Errenteria, 1994-12-21)

Xenpelar Bertso-eskolak antolatu du Errenteriko Euskara Zerbitzuaren babesean. Joxe Aierbe eta Asier Oiarbidek jaso dituzte helduen mailako bi sariak, eta Ekaitz Goikoetxea eta Iker Aginagak gazteen mailakoak.

Ttakun I. saria (Lasarte, 1994-12-23)

Ttakun Elkartek antolatzen du eta, deialdia, Lasartebarri luzatua dago. Hogei urte artekoak parte har dezakete eta bi maila bereizi dira. Hamalau urte artekoetan Haizea Eizmendik irabazi du eta 15-20 urte bitartekoetan Larraitx Urkia gertatu da garaile.

Beste batzuk:

Aipatu ditugun hauez gain, beste batzuk ere antolatu dira, hala nola: Eibarko "...eta Kitto Elkartea" antolatu duen "San Andres I. saria", Urretxuko Udala eta bertso-eskolaren artean antolatutako eskoletako urretxuarren artekoa, eta Motrikuko AEK edo Durangoko Berbarok antolatu dituztenak.

PLAZAZ-PLAZA
BAT-BATEKO
SAIOAK

ORDIZIA (1994-01-01)

Bertsolariak: J.Enbeita, Peñagarikano, Sorozabal, X.Zeberio, H.Lopategi, Egaña, Euzkitze eta S. Lizaso.

Gaijartzailea: Joxerra Garzia.

Maiori Kiroldegian izan zen saioa mila entzule ingururen aurrean. Argiberri elkarteak antolatutako jaialdia.

Peñagarikano - J. Enbeita

GAIA: Hemen daude Bizkaiko eta Gipuzkoako txapeldunak. Txapelketaren ondoren izan dira esamesak, era guztietakoak. Eta probintzietako txapeldunek zer diote?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Peñagarikano: z da erreza txapelketaren
 su haundi horiek hiltzen,
 bat baino gehiok esaten dute
 hura Anjel Mari al zen?
 Gaizki egin nun, ez det ukatzen
 tristurik ez det azaltzen,
 txapeldun batek jakin behar du
 irabazten eta galtzen.(bis)

J.Enbeita: Zorte okerrak gure artean
 jo zigun beraz aldaba,
 ta inguruan sortu genuen,
 jaunak, hainbeste algara,
 nire kamioiak pintxazoa ta
 ondoko honek pajara,
 baina hurrengo saioan berriz
 puntuan izango gara.(bis)

Peñagarikano: Peña zer dabil?" esaten zuten
 hango entzule gehienak,
 holako gauzak egiten ditu
 nerbiotan lotzen denak,
 baina utz ditzadan nere saminak
 atsekabe eta penak,
 bebingoagatik txapela dauka
 bertsolaririk onenak.(bis)

J.Enbeita: Kontzentrazio falta banuen
 ta ideia eskazia,
 beti ez baita frutu bihurtzen
 ereiten dugun hazia,

baina ez pentsa pena dudarik
txapela ez irabazia,
Andoni lako baten aurrean
galtzea ez da desgrazia.(bis)

Peñagarikano: amar bat mila entzule ziran
hala ere ez da gehiegi,
pozez bustita ikusten nitun
txapeldunaren bi begi,
hor dator Jokin, hor dator Unai
edo Haritz Lopategi,
gazteak ere badatoz eta
bide horretatik segi.(bis)

J.Enbeita: Bertsolariok ibili ginen
genuen dana emanaz,
sarri askotan karga astuna
barrenean eramanez,
gaizki eginda ez naiz hasiko
aspertu egin naiz esanez,
neure bidean jarraituko dut
nahiz ta txapelik izan ez.(bis)

Peñagarikano: ertsolaritzak dun esparrua
lehen estua gaur zabala,
baina gauz onak aipatutzea
hori ez da hain normala,
pentsatu gero Euzkitzek ere
arrazoia badaukala,
"nik maite dizut" esanez gero
zigortu egin behar dala.(bis)

J.Enbeita: Epaimahaikoak hor daude eta
eurak saia daitezela,
komeni dena ez itotzea
bertsolaritzan batela,
geure artean beti jarraitu
sendi batu bat bezela,
horren ondoan anekdota bat
besterik ez da txapela.(bis)

OÑATI (1994-01-07)

Bertsolariak: S.Lizaso. Murua, Egaña, Iker Agirre, J.Sarasua, Peñagarikano, Sorozabal eta Joseba Lasagabazter.

Gaijartzailea: Nikolas Segurola.

Kiroldegian gaueko 10,30etan. Saio ordaindua, 800en bat entzule.

S. Lizaso

Gaia: Jendea asko harritu zen finalean beste inor ez eta Lizasok aulkiaren papera hartzearekin. Batzuk esaten diate zezenarena hartzeko beldurrez egin ote huan ere. Eta esan zidatek zezenaren papera jartzeko.

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Zezen koxkorra nintzen garaiko
grinarik ez zait itzali,
asko zituzten gure taldetik
plazetaraino bidali,
ohartzeko lain sen izan nuen
nahiz ta izan animala,
nahiz ta begira ibili
ta arreta erabili,
nere buruai esaten nion:
"horretan zuzen habil hi,
plazara harro joandakorik
berriro ez dek itzuli."(bis)

Odol beroa eta bizia
zezen on baten baldintza,
maiz izaten da trapu batekin
aprobatzeko eskeintza,
ohartu nintzen zuhur jokatzuz
molda nezake bizi,
"hi haiz gure zorigaitza,
pentsu gehiegin emaitza;
ez duk odolik, makalegi haiz"
nere zaintzailea mintza,
ondoko plazan hilko ninduten
bizkorra izan banitza.(bis)

Pentsatu zuten plazaratzerik
nik ez nuela merezi,
horregatikan neure taldetik
baztertu edo bereizi,
eta nerekin gero zer egin
pentsatzen ziraden hasi,
"nahiz jenioz ez den bizi,
zer planta duen ikusi,
zertarako hil behi tartera
bota dezagun lehenbizi",
Zer alde dagon plaza baten hil
edo hazitako bizi! (bis)

Murua - S. Lizaso

Gaia: Murua, zu Iñaki Muruaren emaztea izango zara, eta zu Lizaso, Sebastianen emaztea. Biok zkenengo txapelketa duzue aztergai.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Murua: Aizan Juanita nere senarra
 hasia dinat gainbehera,
 lehengoko hartan gutxieneko
 heldu hunan finalera,
 baina badakin iristear den
 ia berrogei urtera,
 ta atzeraka hasi den hori
 kangrejuaren antzera.(bis)

S.Lizaso: Garai batean harek bazinan
 behar hainbat borondate,
 txoratu eta biok ezkondu
 geroztik neuretzat kalte,
 astean ez dun etxean sartzen
 asteburutan aparte,
 nere senarra formala hunan
 hirea bilatu arte.(bis)

Murua: ereak ere bateko istripu
 eta besteko aberi,
 eztarri lehuna, ahul xamarra,
 buru minez sarri eri,
 joateko presa ta etortzeko
 beti hainbeste komeri,
 nereak ere hoixe esaten din,
 sinistu hien hoieri... (bis)

S.Lizaso: Giroa zerbait goxatu dedin
 saiatzen naun ahaleginez,
 ta esker txarra jasotzen dinat
 saiatzearen ordainez,
 azken boladan erantzuten din
 beti purrusta eginez,
 okerrena den saiatu arren
 nola goxatu jakin ez.(bis)

Murua: Nerea ere kanpoan alai
 ta etxean sarri triste,
 bainan hireak deitutakoan
 animatu ohi den laiste,
 hirea berriz beti puruaz
 nola igande ala aste,
 bertsoetatik ateratzen al din
 puruetakoa hainbeste? (bis)

S.Lizaso: Nunbaitetikan aterako din
 ezin ziteken bestela,
 nik uste dinat elkarbizitzai
 jarri leikela eskela,

aitortzen dinat hola bizitzen
aspertu egin naizela,
nere senarra bizi delarik
beti alargun bezela.(bis)

Murua: Honen senarrak traza berdina
beti alargun gaude gu,
eta sarritan etxeko txarra
kanpoan ona ohi degu,
aizan Juanita konponbide bat
hemen jarri dinakegu,
aste bete bat trukatu eta
prueba egingo al dinagu? (bis)

S.Lizaso: Uste eztako proposamena
albotik egin dian rau,
haren ondoan ez den izango,
ez bijili ta ez barau,
deskuido baten azpian pasa
aste betean zazpi gau,
izena Blanka baldin baden e
harek bapo beztuko hau. (bis)

BERGARA (1994-01-22)

Bertsolariak: S.Lizaso, E.Arozena, I.Elortza, Peñagarikano eta Iturriaga.
Gaijartzailea: Joxemari Lejardi "Gabixola".

AEK-k dirua biltzeko antolatutako saioa. Mariaren Lagundia ikastetxean izan zen, gaueko 10,30etan,
500 entzule ingururen aurrean.

E.Arozena - I.Elortza

Gaia: Monjen etxean gaude. Gure Igor hemen utzi zuten jaioberritan eta Sor Estitxuk hazi du orain
arte. Baina heldu zaio garaia Igorri hemendik aldegitoko. Zer esaten diozue elkarri?

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Nere senarrarekin

I. Elortza: ehin hartu ninduzunez
zurekin arduran,
hementxe ibili naiz
nagusitu guran,
zure hezkuntza eta
eritzien muga,
ea orain munduan
zer aurkitzen dudan.(bis)

E.Arozena: raindik ez daukazu
behar aina zentzun,
baina zure gogoak

behar ditut entzun,
nahiz eta gogo askoz
nioke erantzun:
zure amatxok pakete
ederra utzi zun.(bis)

I.Elortza: ahiz ta haseran izan
nintzen ni engaino,
hezitzeko zeneukan
nahikoa enpeino,
hau utzita banoa
ni mundu hortaraino,
ea alaiagoa den
konbentu hau baino.(bis)

E.Arozena: oateko aukera
duzu parez pare,
ta egin zintezke gaur
askatasun jabe,
ni ez naiz geratuko
zorionik gabe,
ta hona ez etorri
jaunartzera ere.(bis)

I.Elortza: ere egiak esaten
hasi da iadanik,
ahalik eta azkarren
boteaz hemendik,
jaunartzen ere ez dut
etorri behar nik,
ez zenuen usteko
asmoa nuenik.(bis)

E.Arozena: ik uste nun bazula
hainbeste bertute,
baina halare pozik
regalauko nuke,
jaunartzera ez dator
laguntzaren truke,
nere saio guztiek
porrot egin dute.(bis)

E. Arozena

Gaia: Bergaran AEK berriro martxan jartzeko ahaleginetan talde bat aritu da. Talde horretan bazen util bat beste zenbait lanetan ere sartu zena. "Bizkai" deitzen diote. Preso dago orain.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin Berriotxoarena

E.Arozena: azte gehienek nahiz ta ez hartu
herrian hainbat ardura,
batzuk nahikoa hartzen dute ta

sortzen zaigu hainbat duda,
non ote dago euskaltzale ta
españolitoen muga?
beste herritan gertatzen dena
ere hemen gertatu da.(bis)

Herria maite dutenen aurka
bada horrenbeste truko,
eta horrela helburu hori
nahiz ta ez duten lortuko,
euskaltzaleak preso daudela
Bergara dugu lekuko,
baina hala ere herrian nahia
ez dute preso hartuko.(bis)

AEK ere sortu zuena
kartzelan da parez pare,
ta bere aurka egongo dira
nik ez dakit zenbat lege,
nahiz eta aurka egongo diren
beste hainbeste botere,
Bergarakoak segi lanean
Bizkaigatik bada ere.(bis)

DONOSTIA (1994-01-23)

Bertsolari Eguna

Ohi denez, C.A.T. eta E.H.B.E.aren artean antolatua izan zen. Azken gerra osteko bertso jartzaileen belaunaldiari eskeinia izan zen omenaldia, hain zuzen: Jesus Lete "Ibai-ertz" Itsasondoarra, Manuel Matxain Aietearra, Xalbador Zapirain "Ataño" Hondarribiarra, Joxe Manuel Arriola Arrasatearra, Inozentzio Olea Legazpiarra, Joxe Aierbe Donostiarra, Gillermo Albizu Iruñearra, Luis Rezola "Tximela" Billabonarra eta Sebastian Salaberria Hernaniarra.

Azken urteetako bideari jarraituz, protagonisten pasarte eta lanekin liburu bat argitara zuen Gipuzkoako Bertsolari Elkarteak Gipuzkoako Kutxaren babesarekin. Honez gain, protagonista hauen herrietan, zenbait ekitaldi burutu ziren beraien omenez: Zerainen Oleari, Itsasondon Ibaiertzi, Billabonan Tximelari, Donostiako Loiolan Aierberi eta Hondarribian Ataño.

Ekitaldiak bi gune izan zituen; jaialdi berezi bat gauzatu zen goizeko hamaiketan Donostiako Victoria Eugenia antzokian eta, bazkal ondoren, Zubietako "Dana-Ona" jatetxean, goizean parte hartu ez zuten bertsolariak beste saio bat egin zuten.

*Victoria Eugenia*n parte hartu zuten bertsolariak:

Bertso jarrien sailean:

Xanti Zabala "Lexo", Gizartea gaur izeneko sortarekin
Jon Enbeita eta Irineo Ajuria, Jonen "Estressa" sortarekin
Juan Mari Narbaiza eta Angel Larrañaga, Imuntzo soinujolea lagun zutela, Tximelaren
"herriz-herriko jira bat" sortarekin.

Xabier Amurizak Lazkao-Txikiri jarriak sortarekin
Andoni Egaña, Realaren bezperako partidua Bartzelonaren kontra
Jesus Mari Irazu eta Maialen Lujanbio, Mikel Markez kitarrarekin lagun zutela,
"Homosexualak" sortarekin
Laka eta Erramun Martikorena, Otsobiren "Ama" sortarekin

Bat-batean:

Agurretan: Peñagarikano, Patxi Etxebarria, Joxe Lizaso, Jon Lopategi, Jon Azpillaga, Rikardo Gonzalez de Durana, Amaia Telletxea, Joxe Angel Salegi, Kosme Lizaso.

Gaia jarrita ofiziotan: Iñaki Murua eta Manolo Arozena eta Jon Maia eta Jokin Sorozabal; Lehen puntuak emanda Loidisaletxe II eta Sebastian Lizaso.

Gai librean: Goierritarrak: Patxi Iraola, Juan Inazio Begiristain, Xabier Zeberio, Euxebio Igarzabal, Florentino Goiburu eta Mikel Mendizabal.

"Dana Ona" jatetxean: Joxe Lizaso eta Joxe Agirre; Koxme Lizaso, Txomin Garmendia eta Jesus Alberdi; eta Amuriza eta Egaña.

ZEGAMA (1994-01-29)

Bertsolariak: Iturriaga, Egaña, Peñagarikano, J.Enbeita, Sorozabal, H.Lopategi, Euzkitze eta S.Lizaso.
Gaijartzailea: Laxaro Azkune.

Frontoian gaueko jaialdia, ordaindua. Mila entzule inguru bildu zen. Antolatzaile: Kasino Kultur Elkartea.

J. Enbeita - Sorozabal

Gaia: Enbeita senarra eta Jokin emaztea; biok telebistaren aurrean zaudete. Gaur eman dute notizia: Ameriketan emazteak senarrari zera moztu omen zion... Eta epaitegian libre utzi omen dute emazte hori. Eta horri buruz senar-emazteok eztabaida izan duzue.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

J. Enbeita: z dakit ziur ikusi badut,
uste dut ametsa dala,
hasarretuta dindilizkoa
moztu dio berehala,
ta orain libre utzi digute...
hori ote da kabala?
Eta oraindik esango dute
denok matxistak gerala.(bis)

Sorozabal: ententzi hori emana dago
ezer ez andreantzako,
berriro ere kalerik-kale
paseatuko da bapo,
senarrarekin izaten zuen
harek sufrimendu pranko,
seguru asko moztuko zion

luzeegia zeukalako.(bis)

J. Enbeita: Luze samarra maite dutela
ta orain berriz kaltean,
ta irriparra nabari diot
andreari esatean,
tentaziorik izan ez dezan
berak halako batean,
funda batekin gorde behar dut
lo nagoen bitartean.(bis)

Sorozabal: Bera bildurrez jarri da eta
orain neurri hori irten,
hau bezelako senar makalek
horren berri bazekiten,
lo zaudenean ez zazu gorde,
zer ari zera esaten?
zu lotan zauden artean horrek
minik ez baitu egiten.(bis)

J. Enbeita: Lo bada honek ez du egiten
zu minberatzeko lanik,
baina bai zure buru horretan
sortzen da holako planik,
ta ez zazu esan gizonarena
luzeegi izango zenik,
gu jolastean ez duzu esaten
inoiz larregi duzunik.(bis)

Sorozabal: Denen aurrean ez zazu esan
hemen honelako gauzik,
izan ere gaur hizketa honek
ez dauka onaren antzik,
luzea edo motza eduki
horrek ez du sortzen gaitzik,
kuestioa ez da zenbat haundi dan
nola erabili baizik.(bis)

ZARAUTZ (1994-02-12)

Bertsolariak: Euzkitze, J.Enbeita, Egaña, Peñagarikano, Sorozabal, H.Lopategi, I.Elortza eta Iturriaga.
Gaijartzailea: Joxerra Garzia.

Zarauzko Kirol Elkartearen 50. urtehurreneko ospakizunen barruan antolatutako jaialdia, Kiroldegian
gaueko hamarrak pasatxo zirenean hasi zen. Mila entzule inguru bildu ziren.

Jon Enbeita

Puntuei erantzuten:

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Joxerra: Aurrezki Kutxan triste
da Urretxindorra...

J.Enbeita: Numero tartea da
hain baratz lehorra,
goizetik arratsera
nolako mozkorra,
baina bizi beharra
daukat derriorra.

Joxerra: Aita ala semea
zein ote hobea? (Haritz Lopategigatik)

J.Enbeita: Aukeratzea horra
nire nahigabea,
aita degu bizitza
osoan jaubea,
ta hau frutu ematen
hasi den lorea.

Sorozabal - Peñagarikano - J. Enbeita

Gaia: Zarautzen bizi diren ilustreen zerrenda begiratzen hasi naiz eta konturatu naiz gehienak kanpotarrak direla. Eta jakin dudanez Zarauzko udala seme kuttun nor izendatuko hiru hauen artean zalantzan omen dabil, eta horretarako jakin nahi luke zeinek egin duen gehiago Zarautzen alde. Hauetako nork famatu duen gehien Zarautz kanpo aldean: Argiñanok (Peñagarikano), Toshack-ek (J.Enbeita) edo Joseba Arregik (Sorozabal).

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Gure herriko bikariuak

Sorozabal: Badakizute Zarautzen alde
gu hemen nola gabiltzan,
neronek ere beste ametsik
ez det eduki bizitzan,
eta gizon bat aukeratzeko
egokiena neu nintzan,
Zarautzi fama ona eman diot
nahiz eta ni txarra izan.

Peñagarikano: Zarautzen alde ez dabilela
zeinek ez du igarriko?
Eta nik berriz asko egin det
zalantzan ez det jarriko,
mundu osoan esaten dute:
"Qué rico" eta "Qué rico"
ni izan ez banitz hainbat turista
hona ez zan etorriko.

- J. Enbeita: Nahiz ta euskaldun autonomian handikoa izan trebe,
inork ez daki eginez gero
gure mugatetik alde,
ni, beraz, mundu guztian naute
futbol kontuan errege,
Zarautz nun zegon galdetu zidan
Galesko printzeak ere.
- Sorozabal: Ni Andoainen jaio nintzan behin
mutil formal ta serio,
Alemanira gero apaiz joan
han ezkontzeko propio,
Zarautza etorri ta herri honek
badu hainbat ondorio,
Egaña bertan jaio zan baina
erdia ez du balio.
- Peñagarikano: Joseba Arregi diskutitua
ez al degu izan aurten?
ta beste honi tankera onik
inork ez dio ematen,
honek "no coment" sarri esaten du
ea ohartzen zeraten,
honi entzunda esango dute
hemen ez dala ezer jaten.
- J. Enbeita: Honi ikusita bere itxura
argal eta bihurria,
hasirik daude danak bilatzen
beste jaki bat berria,
ta handikoak dakarren fama
ez da onuragarria,
bera dela ta deitzen dizute
entxufatuen herria.
- Sorozabal: Herri honetan nahiko turista
lehendik bazan alajaina,
baina geroztik etorri zaio
lehen hainbesteko ordaina,
ekarri ditut lau guardaespalda
eta ziento bat ertzaina,
geroztik danak formal dabilta
txoro fama dute baina.
- Peñagarikano: Carlos aipatuz kantatu zuen
behin txapeldunak bertsoa,
Joseba Arregik berriz borrokan
bere bizitza osoa,
ta Toshack ere hemen dago ta
zein kaso kurioa,
zuk Oceano maitatzen duzu

ez Zarauzko itsasoa.

J. Enbeita: Itsasoz beste aldetik honuntz
etorri nintzan noizbaiten,
ordutik hona honen famari
beti nabil eragiten,
ondoko biak nire inbiriz
beti dabiltz irakiten,
baloi jokoan ni saiatzen naiz,
hauek pelota egiten.

I. Elortza - Peñagarikano

Gaia: Peña, ijito zaharra haiz hi, eta Igor, ijito gaztea. Biok familiakoak. Erreka ondoan hala-moduzko txabola bat zeneukaten eta hantxe nola-hala bizi zineten. Oraintxe etorri dira autoritateak edo, bere eskabadora eta guzti kanpora bidaltzeko. Ijito zaharrak makina bat aldiz bizi izandako kontua eta ijito gazteak lehenengo aldiz, eta kezkatuta negarrez hago.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Donostiako hiru damatxo

Peñagarikano: Ijito naiz ta nerekin badet
makinatxo bat tripamin,
lehenago ere heldu izan dira
beren trastezar hoiekin,
malkoz bustita ikusten ditut
beraren bi begi urdin,
guziei aurre egin zaiezu
baina negarrik ez egin.

I. Elortza: Nahiz ta negarrik ez egitea
daukadan neure helburu,
hona zertako etorri dira
agintzen hainbeste buru?
Nahiz ta txabola honetan ere
ez geunden oso seguru,
dugun apurra kenduez gero
nora joan behar dugu?

Peñagarikano: Esku batean zakua eta
besten plastikozko poltsa,
txabola ondoan jasaten gendun
nola beroa hala hotza,
autoridade ta agintariek
galduta daukate lotsa,
nahiz ta ijito sortu ginaden
guk e badegu bihotza.

I. Elortza: Beste askori gertatu zaie
guri gertatutakoa,
orain aurrera jarraitu asmoz
hartu beharko gogoa,

txabola zahar hau ez aldatzeko
nahiz eta neukan asmoa,
errazagoa gertatuko da
zurekin baldin banoa.

Peñagarikano: Beraz aldegin behar al degu
guk erreka bazterretik?
Aizu gaztetxo labana atera
orain zuk zaku zaharretik,
lata galanta eman behar det
orain bidali aurretik,
ta norbaitek min egiten badik
pagatuko dik larrutik.

I. Elortza: Nere alboan guztiz minduta
ikusten zaitut hain ilun,
barkatu baina horrelakorik
guk ez dugu behar inun,
joan gaitezen hemendik eta
jokatu zintzo ta txukun,
beste txabola bat eginda ia
zenbat iraun dezakegun!

Peñagarikano: Aldegin aurrez aizu gaztetxo
lagun zaidazu mesedez,
nahiz ta aldegin esaten duten
esan behar degu ezetz,
hiri haunditan gertatzen dena
konprenditzen ez da errez,
zakurrarentzat etxeak eta
ijitoentzat ezer ez.

I. Elortza: Zoritxarrear arrazoi dezu
mundua doa aldrebek,
baina ijito behin hola mundu
hontara jaio ginenez,
gizon hoiekin burruka nahian
ez zaite hasi mesedez,
nere txabola galdu nezake
baina nere aitona ez.

Egaña - Euzkitze

Gaia: Aste honetan, hilaren 9an, 100 urte bete ditu Manuel Lekuonak.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin Berriotxoarena

Euzkitze: Bihotz barruan daramatzagu
hizkuntza eta kultura,
nahiz ta gauza hauek ulertzen ditun

bakoitzak bere modura,
nahiz ta aspaldi xamar hila den
aiton maitagari hura,
berari esker dago bizirik
ahozko literatura.(bis)

Egaña: Esku dardarti batzutan hartuz
herri kulturaren brujula,
kontuan izan On Manuelek
lan latzak egin zitula,
literaturaz liburukote
sakona eta mardula,
bertsolaritzak zenbat zor dion
ez da jakingo sekula.(bis)

Euzkitze: Bertsoz ohore egin nahi diot
gure maisua zen hari,
berari esker izan gaitezke
euskaldun ta bertsolari,
baina joan zen hor utzi ditu:
Julen, Andoni, Juan Mari,
jarraitzailetzat behar badira
badago jende ugari.(bis)

Egaña: Bertsolaritza ipini zuen
euskal kulturaren jiran,
ordurarteko zenbait itsu ta
egozkorren ikusmiran,
ustegabeko baieztapen bat
egin behar det segiran,
apaizak lagun ez ditut baina
batzuek finak baziran.(bis)

Euzkitze: Hainbat pertsonak hil eta gero
hartu ohi digute sona,
hoietako bat aipatu nahirik
arrimatua naiz hona,
apaiz lanean zintzoa bezain
lege oneko gizona,
zuri asko zor dizugu eta
esker mila Lekuona.(bis)

Egaña: Bertsolaritza gauza hutsa zen
hura heldu baino lehenago,
ta Lekuonak eman zizkion
ospe ta fama gehiago,
alde hortatik ondorengoak
zordunak gera zeharo,
gure artetik joan zen baina
guretzat bizirik dago.(bis)

Euzkitze: Bere bi anai nonbait hil ziren
Francok afusilatuak,
esker on hauxe eskeini zion
mundu madarikatuak,
baina askotan larre motxak e
ematen ditu fruituak,
gaur ez dauzkagu Euskadin asko
hura bezain maitatuak.(bis)

Egaña: Sei-zazpi urte joan zala ta
oraindik ere goguan,
hiru hitzetan azaldu nahi det
zerk harrotzen naun munduan:
laroitaseiko final egunez
sari emate orduan,
fotografi bat dabaukadala
On Manuelen ondoan.(bis)

LEKEITIO (1994-02-13)

Bertsolariak: Murua, Egaña, Iturriaga, J. Sarasua, Sorozabal eta Lujanbio.

Gaijartzailea: Lekeitioko Bertso Eskola.

Aurkezle: Manu Ziluaga.

Frontoiko saio ordaindua. 500en bat entzule.

Murua - J. Sarasua - Sorozabal

Gaia: Krisia ez da denontzat berdina. Zu, Murua, inoiz ez zara joan operara garestiegia delako, eta halan ta guzti orain gutxi erre den Barcelonako Lizeoa zure diruaz ere konponduko dute. Zuk, Sarasua, aurreztutako diru guztia UGTko kooperatiba baten sartu zenuen etxe bat erosteko asmoz. Orain ez diru eta ez etxe. Eta zu, Sorozabal, jubilatua zaitugu 40.000 pezetako pentsioaz, eta gainera datorren urtean gutxitu egingo dute. Nola sentitzen zarete?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lehendabizitik

Murua: Nere dirua joango dala
Bartzelona hortaraino,
hango Opera edo Lizeo
erre baitzaie goraino,
operazale ez izan arren
ez naiz kezka hortaraino,
hark irenstea nahiago det nik
Roldanek jatea baino.(bis)

J. Sarasua: Nere kasua esplikatzea
ez al da sobran egongo?
Peñak bezela azaltzea gaur
nere ustez dago ondo,

UGT hortan buru daukagu
gure Nicolas Redondo,
nerekin hoiek egin dutena
negozio erredondo.(bis)

Sorozabal: Zuek hain gaizki egonagatik
txarrena ni alajaina,
askotan ezin edango degu
marka oneko txanpaina,
gerra ostean gure izerdiz
altxatu zuten España,
eta hau al da zahartutakoan
eskeintzen zaigun ordaina? (bis)

Murua: Bertsolariok dirua sobran
bidali Bartzelonara,
Maria Callas da Plazidori
pasa zitzaien bolada,
badakizue izugarria
bertsoaren abiada,
ta Barcelonan egingo degu
bertsozko olinpiada.(bis)

J. Sarasua: Gu hirurontzat nabarmen daude
beherakaden emaitzak,
nolanahi ere krisi hitz hori
nik ezin dut hartu haintzat,
nahiz ta hirurok delako hori
errez joko dugun txartzat,
krisia ez da inoiz iristen
poltronetan daudenentzat.(bis)

Sorozabal: Haiek bai ondo eta gu hemen
bizi ezinean gaude,
lehen gu musean egiten ginan
apustu haundien jabe,
nahi aina whisky kopa jokatzuz
moldatzen ginan dotore,
orain kafe bat jokatzuz degu
eta azukrerik gabe.(bis)

Murua: Hainbat polizi, hainbeste ertzain,
hainbat traje, hainbat izen,
hainbeste mila politiko ere
hara hor nola dabilten,
egun osoa lana eiten dunan
bizkarretikan gizentzen,
gaijartzailea horregatik nik
ez det zergarik ordaintzen.(bis)

J. Sarasua: Beti bezala krisiagatik
negarrez nahi dugu mintza,
baina halare gauza gehienak

bide beretik dabilta,
krisia ez da oinarri zaharrak
kentzeko bezain bortitza,
nahiago nuke krisi koxkor hau
haundiagoa balitza.

Sorozabal: Lehen ere sobran izanagatik
marjinatuaren planta,
berrogei mila pezta daukagu
orain hileko soldata,
eta botikak ordaindu behar,
hori akzio galanta!
buruan borra batez jotzea
besterik ez zaie falta! (bis)

Egaña - Iturriaga

Gaia: Andoni, gaur goizean eguraldi ederra ikusirik paseoa ematea pentsatu duzu. Dutxa hartu, kalera irten eta degustazio batetara sartu zara. Kafesne eta "kurasana"z egunkaria irakurtzen gozo-gozo zaudela, Unai etorri zaizu albora, gaupasa eginda eta zerbeza esku batean, zigarroa bestean, zapatilak beztuta eta isildu ere egin gabe.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lehendabizitik

Iturriaga: Gaba osoan alkoholarekin
nola egin dudan abusu,
goize partera neurri batean
pasatuta nago aizu,
Realak galdu, Ardantza dago,
baina ezaidazu egin kasu,
ze filme dago gaur telebistan?
Tragotxo bat nahi al duzu? (bis)

Egaña: Bera hor dabil zarrapastroso
ta ni nago kaballero,
esaldi baten nahastu dizkigu
dozena bat gauza edo,
aizu latoso isiltzerikan
ez ote dezu espero?
"Kroasana"kin itoko zaitut
ahoa zabalduz gero.

Iturriaga: Gaba osoan trago ta trago
ta orain tripatako mina,
nahiz-ta gaupasa kontu hauetan
aritu naizen antzina,
hemen nago ni edan ta edan
zu ere hala bazina...
Kauenlaetxe hau Egaña da!
Telebistako berdina.(bis)

Egaña: Ezpain bazterrak pitzez beteak
hazkazaletan erdoia,
denak batera nahasten dizkigu
esker, eskubi ta goia,
gizarterako ez da komeni
holako melokotoia,
pena bat daukat lehen pasa dela
zaborraren kamioia.(bis)

Iturriaga: Dirudienez bidali nahi dit
bere partetik agurra,
baina niretzat goiza dator oin
beroa eta samurra,
asko ez dakit entzundakoaz
ulertutako apurra:
basureroak eroan diola
goizean goizik txakurra.(bis)

Egaña: Zure roiloa ez zait atsegin,
ez dit batere inportik,
aizu mesedez zure aurpegia
kendu iezadazu hortik,
orain arte lo baldin bazegon
esnatuko da gogotik,
jela koxkor bat sartuko diot
alkandoraren kolkotik.(bis)

J. Sarasua - Sorozabal

Gaia: Jon, hamalau urteko zakur zaharra zaitugu. Jokin berriz, zure jabea, mendigoizale amorratua, domeka guztietan zu hartuta mendira abiatzen dena. Gaur goizean sutondoan etzanda zagozela hasi zaizu deika, baina zu mugitu ere ez.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Markesaren alaba

Sorozabal: Aste guzian lana
ta nekean jardun,
igandeko asmoa
ez al da ezagun?
Beti izandu gera
biok oso lagun
eta ohitura onak
mantendu ditzagun.

J.Sarasua: Jabe entzun ezazu
txakurran kejua,
burukominez duzu
txakur gizajua,
hanka baldarrak eta
tentsio bajua,
aspirina hartuta

ohera nijua.

Sorozabal: Berriz ere zu zaude
kejoso antzera,
beste askotan ere
berdina joera,
burukominarekin
tristeia bazera,
mendiria etorri zaitez
haizez sendatzera.

J.Sarasua: Pausorik ere ondo
ezin det zuzendu,
ta burukomin hori
inola ezin kendu,
gaiso egonez gero
ninteke atzendu,
nere konbenioan
horixe jartzen du.

Sorozabal: Gure zakur zahar hau
nola dugun arra,
tarteka izaten du
jolastu beharra,
zakur emeengana
doa barra-barra,
eta nik eskatzean
ordun dena txarra.

J.Sarasua: Nik badaukat zuretzat
nahiko errespeto,
baina zuk e' tratatu
nazazu hobeto,
eme bat ekar zazu
ni han elkartzeko,
ume bat ingo dizut
mendiria joateko.

Sorozabal: Beste txakurrik gabe
zergatik ez jarrai?
Orain ez naiz sentitzen
bi mantentzeko gai,
eta zu bakarrikan
egon zaite lasai,
zu akabatu arte
besterik ez det nahi.

J.Sarasua: Honek tratatu nahi nau
sarritan nolana,
baina ni ere banaiz
manejatzeko gai,
ni ez naiz mugituko

egon zaite lasai,
txakur zaharra naiz baina
"txakur-zaharra" ere bai.

ZESTOA (1994-02-19)

Bertsolariak: J.Enbeita, Peñagarikano, Sorozabal, X.Zeberio, H.Lopategi, Egaña, Euzkitze, S.Lizaso.
Gaijartzailea: Joxerra Garzia.

Gaueko saioa Kiroldegian, 1000ren bat entzule bertaratu ziren. Antolatzaile: Argi Berri Elkarte.

H. Lopategi

Gaia: Aita 17 urtetan etorri duk Zestoara. Gaur hik, semeak, zer mezu ekarri duk Zestoara?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza I

H.Lopategi: Aita Zestura hainbat urtetan
 etorri da peto-peto,
 eta egitan esan behar dut
 hau ez daukala saltzeko,
 bera etxean gelditu da gaur
 neu bainintzan etortzeko,
 baina esan dit besarkada bat
 guztiori emateko.

Berarengandik hartuak ditut
neure izen ta abizen,
eta geroztik holaxe nabil
edo oker edo zuzen,
gaur zestuarrak beti bezela
pozik gelditu daitezten,
larru beltz-beltza ez daukat baina
saiatuko naiz kunplitzen.

Aitak esan dit "lehen Zestuara
ni juana nago sarri"
eta neu ere konturatu naiz
zaretela hain maitagarri,
gaurtik aurrera badakizue
haren semearen barri,
ta hurrengoan zuek pentsatu
aita ala semea ekarri.

MUXIKA (Areatza) (1994-02-25)

BBK eta Bizkaiko Bertsolari Elkarteak antolatutako BBK ligako saio bat. Lea- Artibaiko eta Busturiko taldeak lehiatu ziren. Gaztetxotan Leire Bilbao, Joseba Gojenola eta Joseba Artza Lea-Artibaitik eta Xabier Enbeita, Ibon Ajuria eta Ander Oleaga Busturialdetik. Gaztetan Iratxe Ibarra, Mirari Azula eta Peru Aranburu Lea-Artibaitik eta Oihane Enbeita, J.M.Omagojeaskoa eta Haritz Lopategi Busturialdetik.

Gaijartzailea: Joserra Bilbao.

Aurkezlea: Bernardo Mandaluniz.

80ren bat entzule bildu ziren Garrikora.

Peru Aranburu

Gaia : Lau oinak: hobe, dotore, lore, amore

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Nere senarrarekin I

P. Aranburu: Alperrik haserako
 horrenbeste lore,
 gaurko hontan ez gabiltz
 dotore-dotore,
 nahiz ta ez garen jarriko
 seguruen hobe,
 ez ei da eman behar
 sekula amore.

Gaia: Bukaera: Normala denez horren ondoren erabat haserretu da.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lehendabizitik

P. Aranburu: Behinola norbait, nola ez dakit,
 sartu zen nire barrura,
 esaten denez kontzientzia
 izaten omen da hura,
 oso ondo ere ez gara atera
 gaurko honetan kantura,
 normala denez horren ondoren
 erabat haserretu da.

IRURITA (1994-02-27)

Bertsolariak: Egaña, Peñagarikano, M.Arozena, Mañukorta, Murua eta S.Lizaso.

Gaijartzailea: Bittor Elizagoien.

Herriko gazteen ekimenez antolatutako saioa, herriko frontoian, arratsaldeko bosterdiretan. Saio ordaindua 500 entzule ingururen aurrean.

M. Arozena - Mañukorta

Gaia: Osaba-ilobak zarete zuek, Mañu osaba eta Manolo iloba. Azken hamar urteotan osaba zaintzen egon zara zu, Manolo, aberatsa zelakoan. Gaur jakin duzu zentimorik ere ez duela.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Andre Madalen andre Madalen

M.Arozena: Zahartzaro on bat neretzat nuan
betidanik helburua,
horregatikan onartu nuan
osabaren ingurua,
orain berri txar bat heldu zait ta
badut nahiko apurua,
zuk zer kristotan gastatu duzu
Amerikako dirua?

Mañukorta: Ameriketara ere banuen
gastatzutzeko aukera,
argi gorriak nunahitan zeuden
sasoi ederra gainera,
aizu iloba nik esan eta
kontuak ongi atera,
zeuretzat aina egin behar zundun
guztizko fina bazera.

M.Arozena: Berrira ere mintzatu zera
harro zahar baten klasean,
eta ez zera konturatutzen
ilobaren oinazean,
urte mordo bat nere ondoan
eta nere babesean,
orain gosez hil beharko duzu
ni piskat zaindu ezean.

Mañukorta: Hara iloba gosea ere
aipatu didazu zuk fin,
umore ederra gau eta egun
ibiltzen det nerekin,
nahi ez badezu etxetik bota,
kasorik ere ez egin,
nere bizitza pasatuko det
gitarra zahartxo batekin.

M.Arozena: Gitarrarekin hutsaren pare
osabaren balioa,
bizkarra dauka okertua ta
muturra du serioa,
argi gorritan berak jarri du
lehenengo kondizioa,
beraz zuk orain han eska zazu
bizitzeko subsidioa.

Mañukorta: Argi gorritan ibiltzen nintzen
ez daukat esan beharrik,
umore ona maitatutzen det
ez det egiten negarrik,
ez iloba ta berdin arrebak
nei ez dit joko adarrik,
bakar-bakarrik ibiltzeko
ez daukat zuen beharrik.

M.Arozena: Ikusten degu nahiz dirurik ez
zu zaudela indarrian,
golpez oraintxe jarriko zaitut
kalean edo lanian,
nahiz ta patrika hutsa daukazun
izugarrizko irrian,
txakurrai jaten botako zaitut
lurpen sartu beharrian.

Mañukorta: Errazoi onak esaten ditu
eta gainera zigurrak,
ilobak ere izan lezazke
mundu honetan bildurrak,
nik bezelaxe zuk'e dituzu
hemengo egun apurrak,
eta gosiak egunen baten
zeuk jangoituzu txakurrak.

S. Lizaso - M. Arozena

Gaia: Bi txirrundulari zarete. Manolok urtean zazpirehun milio kobratzen omen ditu, Sebastianek berriz hogeitau. Gaur etapa batean maldan gora zoazte eta Manolok tiratzeko esan dizu.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Anai arrebak hementxe nator

S.Lizaso: Aldapan gora biak batera
goazela badakizu,
aldamenetik eman dizkatzu
bi edo hiru abisu,
"aizu peoia hasi tiraka"
neri agintzen didazu,
zenbat propina dago neretzat
zuk irabazten badezu?

M.Arozena: Lehendabiziko hitzetikan zuk
propinan galdezka nota,
eta ez pentsa ez jarri hola
haizeak gora igota,
azken portuan ein behar det lana
zuri ez zaizu inporta,
telebistaren kamara ere

nere zai hantxe dago ta.

S.Lizaso: Zure zai egon ta ni agertu
hori zuretzat kaltean,
benetan diot aspertua naiz
ni beti zure menpean,
gaurko etapa neretzako da
nola nagon aldardean,
eta zuk hainbat kobratuko det
igual datorren urtean.

M.Arozena: Txirrindu gainen ez zerade zu
zeuk uste duzun hain fina,
eta ezin dut hainbat miliokin
nik peoi bat imajina,
hori neretzat izan liteke
zorionarik haundina,
langabezian zinateke zu
nere talde ez bazina.

S.Lizaso: Laguntza behar, harrotzen hasi
hori zeuretzat galera,
tiraka hasi ta ezin sartu
zu zeu neure kurpilara,
kontu guztiak oraintxe dute
nere ustez amaiera,
agur banoa eta helmugan
gero ikusiko gera.

M.Arozena: Agur banoa esaten du maiz
beti harro eta erreztan,
baina dirutan diferentzia
badago hala beharrez,
haundi usteko haizea zera
gero ez hasi negarrez,
bakarrikan hau zerbait badugu
eta taldean ezer ez.

S.Lizaso: Era hortako desafiorik
noski ez nuen merezi,
ondorenean zer izan leiken
pentsa ezazu lehenbizi,
zer abildade klase daukadan
zerronek adierazi,
taldean ezer ez naizelako
bakarrik noa ihesi.

M.Arozena: Juango zera, juango zera,
ta nahi baduzu eraso,
baina urruti ez zera juango
hortan ziur nago oso,
gaur ere hemen jarri zerade
sarritan bezain pailaso,

sekulan berdin ezin dira izan
Indurain eta Lizaso.

TRAPAGA (1994-03-01)

Bertsolariak: Iñakiurrekoetxea, Txabi Ajuria eta Mikel Urdangarin.
Gaijartzailea: Ikasleak.

Itxaropena ikastolako jaia zela eta antolatutako saioa. Ikasleak berak izan ziren aurkezle eta gaiak ere eurek prestatu zituzten. 60 ikasle inguru bildu ziren, eguerdiko ordu batean. Gai jartzen eta nahiko zelebregardun ziren, eta gaiak ere batzuz oso desegokiak ziren bertsotarako. Bertsolariak umeen hizkuntza eta neurriramoldatzen saiatu ziren. Ondo pasa zuten hurrek.

M. Urdangarin - Aurrekoetxea

Gaia: Hauteskundeak dira. Mikel, zuz Bill Clinton zara, eta zuz, Iñaki, Ruiz Mateos.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Nere senarrarekin I

M. Urdangarin: Elekzioak ondo
 behar dira eraman,
 denei tiroa jotzen
 tiro pun eta pan,
 zuz zeu irabazteko
 badaukat nahiko lan,
 nor zara: Ruiz Mateos
 edota Superman?.

Aurrekoetxea: Txoraturta zaudela
 gaur da argituta,
 baina galtzaile zara
 ez gaur nahastuta,
 utziko zaitut laster
 txit akabatuta,
 Boyerren pijo planta
 ikusten dizut ta.

M. Urdangarin: Boyer ikusi baino
 nahiago nuke hil,
 hizketan hasi zara
 faltsu bezain umil,
 gure Ruiz Mateos
 umoretsu dabil,
 hemen bakar-bakarrik
 falta da Jesus Gil.

Aurrekoetxea: Argitu beharko da
 gauzatxo bat hemen,
 zintzoek gaiztoeri
 irabazten deutse,

ta ez zazu dantzatu
ez aurre ta ez atze,
eta eseri zaitez
"que te pego leche".

HONDARRIBIA (1994-03-04)

Bertsolariak: S.Lizaso, J.Sarasua, E.Arozena, Telletxea eta Lujanbio.
Gaijartzailea: Junkal Iza.

Emeki elkarteak Emakumearen Astearen barruan antolatutako jaialdia, gaueko 10 t'erdietan kofradian.
Sarrera ordaindua. 300 entzule inguru egon ziren.

Lujanbio

Gaia: Zu, haurdun zauden emakume bat zara. Sendagilearengana joan zara eta honek umea
galduko duzula esan dizu.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nere gogoan egon dijoa

Lujanbio: Meikuangana jua naiz eta
hauxe da hauxe trantzea!
Ez nuen uste nere plan denak
golpetikan aldatzea,
baina hauxen da depresioa,
hau da desesperatzea,
egin ditudan amets guztiak
pikutara botatzea.

Zorion kutsuko usai goxo bat
sumatzen nuen haizean,
irria eta poza besterik
ez zegon gure artean,
triste bizitzeik ez nuke gura
nere bizitza luzean,
urteen jua nak zentzurik ez du
beste bat izan ezean.

Umea galdu dedala eta
hauek dira nere penak,
emakumeok sarri ditugu
hegoismo nabarmenak,
ta gizartera begiratzera
ausartu gaitezen denak,
ume mordo bat egongo dira
ama bat behar dutenak.

S. Lizaso - Telletxea

Gaia: Zu Sebastian irakaslea zara, eta Amaia zure ikaslea. Maitemindu egin zarete elkarrekin. Nolakoa izan da zuen esperientzia?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Lizaso: Gauza guztiak ez dira izaten bizitzan komenentziko, ez ote diet sentimentuai nik barrenean eutsiko, ahal baldin bada kanpora irtetzen errez ez diet utziko, zer jakinikan ez daukazunik ez dizut erakutsiko.

Telletxea: arkatu baina oraingo hontan ez dizut egingo kasu, gure arteko harreman honek dakar hainbat enbarazu, ta orain artean nik zurekiko badut hainbeste arazu, "matea" ez den beste gauzarik erakusten ba al dakizu?

S.Lizaso: Ni irakasle zu ikaslea badaukagu kontrasterik, ez ote degu sentimentuak guk lehenbaitlehen bereizterik, nahiz elkar maite ez dadukagu harremanetan hasterik, pentsatu zazu ni ez naizela amets gaizto bat besterik.

Telletxea: deiatxo bat bururatu zait neri momentu honetan, ta kasu egin behar didazu orain ari naiz benetan, aspaldidanik ni nengoela gauza honekin ametsetan, beste gauzak ikasi daitezke klase partikularretan.

S.Lizaso: Partikularrak nahi zenituzke beste klaseai hor konpon, hori eginda lasaitasunik nik ez nedukake inon, nere ondoan zuk ez daukazu merezi hainbat zorion, bizi guztia aurretik dezu neri begira ez egon.

Telletxea: auza bukatu egin beharko da
era honetan hasita,
nahiz ta adinen kontu horiek
nik ez ditudan ahantzita,
oraindik ere nik sentitzen det
zureganako irrika,
ta rekreoan komun aldera
egin ezazu bisita.

IURRETA (1994-03-06)

Bertsolariak: Egaña, Murua, I.Elortza, Maia, Telleria eta Iturriaga.
Gaijartzailea: Joxepa Madariaga.

Bertsolari aldizkariak eta Mikel Deunaren Elkarteak Santi Belarri omenalditzat antolatutako jaialdia, udalaren babesarekin. Pilotalekuan izan zen 500 entzuleren aurrean, arratsaldeko bost eta erdietan.

Telleria - Iturriaga - Maia

Gaia: Eta komunikabideekin jarraituko dugu. Aste honetan izan dugu Egunkariaren 1000. alea irakurtzeko aukera. Horren berri jakin ez duenik ere izango da eta kanta iezaiezue haiei.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Eguna pasa nekean eta

Maia: Ide batera utzi ditzagun
aldizkariko alperrak,
gure artean nola badiren
paper fin eta ederrak,
kazetaritzan kontu guztiak
ez dira horren okerrak,
Egunkariak mila ale ditu
Jaurlaritzari eskerrak.

Telleria: Denbora degu horretarako
hasi zirela lanean,
ta milagarren alea ere
erten zaigu azkenean,
baina batzuek badabilzkigu
hori itzali planean,
kaso askorik ez zaio egiten
berri apala danean.

Iturriaga: atzuek kontrari ipini ziren
atera eta kolpetik,
gure barruan galdetzen gendun
zertarako ta zergatik,
Joseba Arregi entzun zaidazu
zauden toki horretatik,
beste mila ere irtengo dira
zu izorratzeagatik.

- Maia: irudienez segi behar da
agintarien eskola,
orain artean mantendu dira
berdin hala edo hola,
euskaraz bada egunkari bat
baina horrek ez du axola,
euskaldun finek eros zazute
El Correo Española.
- Telleria: Bere bidea urratu zezan
apustu eta aukera,
aldez aurretik iragarrita
egunkari bat atera,
etsaiak asko baditu ere
hortxe dijoa aurrera,
beti hiltzeaz gaudela baina
luzaro biziko gera.
- Iturriaga: uskal Herrian hedatu da ia
egunkarian itzala,
aspaldi hontan hizketan dabil
hortik jente zerbitzala,
Mario eta holako laguntzak
haizeak eroan ditzala,
hiru urte dira lagundu edo ez
debatitzen dabiltzala.
- Maia: z dute asko hustutzen hoiek
euskerarekin kartera,
mesedekoa izan behar zena
azken finean kaltera,
mila alditan iritsi zaigu
gure eskuen artera,
beste hiru zero erantsi arte
jarrai dezala aurrera
- Telleria: Abiatu zen da badijoa
eta zertako gelditu?
nahiz ta laguntza debatitzen dan
oraindik ez da partitu,
ta Euskaldunon Egunkaritzaz
ez da inorre kupitu,
Don Celesikan ez degu baina
bide hortatik jarraitu.
- Iturriaga: on Celesik guk ez dugu baina
Zakilixut hor da ari,
batzumentzako igual dabil
nahiko alper eta nagi,
sasi euskaldun espanyolista
eduki ezazu argi:
bizitza ezin zaiola moztu
herritik datorrenari.

DONOSTIA (Ibaeta) (1994-03-06)

Bertsolariak: J.Lizaso, Mendizabal, Loidisaletxe II eta Lazkano.

Aingeru Guardako Jaiak. Jai Batzordeak antolaturik eta Udalak babestua. Auzoko Plazan kantatua 300 pertsonen aurrean. Arratsaldean eta dohain. Jende heldua bildu zen gehienbat aurretik herri kirolak baitziren. Saio arrunta eta gehienbat puntuka luzitu ziren bertsolariak.

Joxe Lizaso - Lazkano

Gaia: Madrilgo Gobernuak krisiari buelta emateko 70 urte arte lanean jarraitu beharko dela proposatu du.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Zazpi aizparen gai den ohiala

J.Lizaso: Aspalditxoan ez nun aditu
holako kontu tristia,
entzun det baina ez zait komeni
hori neri sinistia;
lehenago ere bapo kostat zait
neri lanari uztia,
penagarria ez al da izango
berriz lanian hastia?

Lazkano: Hainbeste gauza entzuten degu
gure mundu nahasian,
arrazoirikan ez dadukate
hoiek oraingo auzian;
hainbeste gazte zoritxarrear
hor dago langabezian,
ta zaharrak lana behar al dute
bere bizitza guztian?

J.Lizaso: Arrazoi hori ezin litzake
inori ongi iritzi,
oaingoan behintzat gizatasunik
ez digute erakutsi,
nola arraio hartuko degu
jauna hoiekin pazientzi?
eraretuak sosak kendu ta
berak txaletak erosi.

Lazkano: Gizon normalik ezin mintzatu
mintzatu diran modura,
zoritxarrear horrelakoak
daukate gure ardura;
aspalditxotik dute beregan
hola aitzeko ohitura,
berak ederki bizi dirade
inoxentean kontura.

J.Lizaso: Nere tontoan neuk ikusten det
ez dabiltzala hain zuzen,
nik ere nunbait bota ber nun ta
bota nahi nuke hementxen;
zer ari dira aitona zaharrai
lehengo izardi-ura kentzen,
hainbeste miloi Expo aldian
zertan gastatu zittuzten?

Lazkano: Zoritxarrear hemen gabiltza
itxuraz ezin bizi ta,
harriak negar egin lezake
martxa hori ikusita;
besterentzako kontseju onak
jaunak hori da polita,
murrizkeriak behar luteke
gobernutikan hasita.

J.Lizaso: Azkenerako jarrita daude
deabruaren antzeko,
granuja hoiek kapaz dirade
bazterrak endreatzeko;
eta oraingo bertsoa daukat
Felipito zuretzako,
arma gaiztoa asmatu dezu
botoak irabazteko.

Lazkano: Nolabait ere holaxen degu
politikoen kaltea,
eta guk berriz izandu degu
tontoaren izatea;
nik hirurogeira heldutzean bai
eingo det errematea,
ta golfo hoiei kostako zaie
nik eginetik jatea.

BILBO (1994-03-08)

Bertsolariak: Ibarra, Azula, M. Urdangarin eta Aurrekoetxea.

Karmelo Ikastolan antolatutako saioa, ikasleak bertsolaritzan motibatzeko helburuz. 70 ikasle inguru egon ziren, eta beraien artekoak ziren gajartzen ere. Arratsaldeko 3etan hasi ziren eta bi talde pasa zituzten, 5. eta 6. mailakoak eta 7. eta 8. mailakoak.

Aurrekoetxea

Gaia: Euskal Herria eta euskara.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarruatik ardo karraio I

Aurrekoetxea: Gaia entzun beharra nuen ta
entzun dut eta itzela,
Euskal Herria ta bere hizkuntzaz
hustu beharko sakela,
aizu mutiko esan behar dizut
zer esango dut bestela,
Euskal Herria eta euskara
batera dijoztela.

Ez dugu inoiz galdu behar guk
gure hizkuntzaren trena,
eta ez inola beraz hartu
gure kalean atsedena,
ez pa bere gure etsaiek be
ez dute izango pena,
ta zuek zarete egi horren
adibiderik onena.

Gaia: Bertso bat osatzeko hauek dituzu oinak: joan, kanpoan, gogoan eta txokoan

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Dama gazte xarmant bat

Aurrekoetxea: kastolan nago ni
guztion txokoan,
baina ideia danak
ia zaizkit joan,
barrun dauden ideiak
gordeta gogoan,
askoz nahiago nuke
banengo kanpoan.

ELGETA (1994-03-11)

Bertsolariak: Telletxea, E.Arozena, Ibarra, A.Agirreazaldegia eta X. Zeberio.

Gaijartzailea: Maite Aristegi.

Herriko Kiroldegian egindako saioa, gaueko hamar t'erdiretan, emakumeen astearen barruan. Sarrera doan izan zen eta 300 bat entzule bildu ziren.

Telletxea - Ibarra

Gaia: Zu Amaia Txabeli izango zaitugu, Julio Iglesiasen alaba, eta Iratxe berriz Chiapasetik etorritako neska motza. Emakumearen egunaren inguruan topo egin duzue eta elkarri zuen arazoak kontatzen hasi zarete.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Adixkidia Andoaindikan

- Ibarra: ure herrian andre ta gizon
guztiak gaizki zeharo,
miseria ta pobrezia ere
ikusten dira oparo,
darabilzuen jokabide horraz
batere ados ez nago,
zuek gero ta hobe zoazte
gu gero ta pobreago.
- Telletxea: Neska hau neri etorria zait
al dago burutik jota,
bere problemak neri kontatzen
sortu nahirikan borroka,
barkatu baina zure esana
ez zait batere inporta,
zeu nahi dezun bezala bizi ta
neu behintzat ondo nago ta.
- Ibarra: Beraz ez dizu asko inporta
gerra edota kaltea,
bakar-bakarrik maitatzen duzu
zure etxeko bakea,
zuk ez dakizu zer den gauza ona
ta zer den borondatea,
Txabeli horri deitzen diot nik
hegoista izatea.
- Telletxea: Bizi honetan batzuk gainetik
beste batzuk azpitikan,
konturatu naiz nola nagoen
zurea ez oraindik,
nahi dudana ta behar dudana
eduki det betitikan,
ta nik ez daukat emakumeen
egun horren beharrikan.
- Ibarra: Egia esan ni ere ez nago
egun horrexen beharrez,
gure herriaren eguna nahi dut
poliki edo indarrez,
iada erdi hilda gabiltza handik
miseriaz eta gosez,
eta Estitxu ta Zeberio hauek
regimena egin ezinez.
- Telletxea: Gure elkarrizketa hau ez al da
nahiko egoera bitxia,
zuk omen dezu jateko edo
ondo egoteko antsia,
baina hala ere Iratxe orain
hauze duzu zuk ahantzia,
sexua baino askoz lehenago
dago odolgan garrantzia.

GERNIKA-LUMO (1994-03-11)

Bertsolariak: Zubiate, Elordui, Gonzalo, Meñika, Iza eta Estiballes Arratitak eta O.Enbeita, Oleaga, Z.Enbeita, J.M.Omagojeaskoa eta H.Lopategi Busturialdetik.

Gai-aurkezlea: Bernardo Mandaluniz.

BBK Sariketako saioa. Gernikako Kultur Etxean izan zen saioa, 100en bat entzuleren aurrean, arratsaldeko zortziretan hasita.

Iza - H.Lopategi

Gaia: Ibon zu taxista zara, eta Haritz bezeroa. Bezeroak kotxera igon eta zera esan dio taxistari:
"segi kotxe horri".

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Kantatzera nijoa

Iza: Oso trankil joan zait
gaurko sesioa,
taxista izatea
nire afizioa,
baina ondoko honek
sortuz bizioa,
pelikuletan nago
hau emozioa!

H.Lopategi: Holakorik ejatzu
pasatu askotan,
eta beraz gaurkoan
ezin egon lotan,
"jarraitu kotxe horri"
dinotzut gogotan,
lapur haundi bat doa
horko kotxe hortan.

Iza: Arpei itsusia dauka
jarririk arreta,
eta nola ez nagon
oraindik erreta,
etzara ba izango
ertzainen sekreta,
bestela kotxetikan
bazoaz kolpeka.

H.Lopategi: Nire itxuran jarri
al dozu arreta,
lagun etzaite jarri
nirekin erreta,
ta ez nagizu bota
kotxetik kolpeka,
ni guardia zibilen
jefea naiz eta.

Iza: Hau hor egon liteke
 begirauta aurrez,
 euskaldun itxuragaz
 etorri da berez,
 ertzainak hor badauka
 hainbeste interes,
 eta aita baltza da
 nik entzun dudanez.

H.Lopategi: Hementxe lortu dogu
 guk nahiko armoni,
 eta itxura txarrik
 ez jaku komeni,
 aitan adibidea
 hemen ez ipini,
 hain zuzen ere bera
 hartzera noa ni.

Gonzalo

Gaia: Bakarkako lana:

Lau oinak: Neskato, betirako, lagako, neuretzako

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Nigarrez sortu nintzen

Gonzalo: Neska kontua ez da
 zinez neuretzako,
 baina Ikerrek baditu
 pilo bat neskato,
 ta beti esaten dit:
 "ez ditut lagako"
 baina jakizu Iker
 ez da betirako.

Bukaera: Ta amaitzeko postre gozoa
 gaztaia ta menbriloa.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetik

Gonzalo: Bihar jatetxe txino batera
 nire lagunekin noa,
 ta han jango dot dudarik gabe
 janari oso gozoa:
 lehenik eta behin ganbatxu batzuk,
 ta primabera roiloa,
 ta amaitzeko postre gozoa
 gaztaia ta menbriloa.

Bertso baterako gaia: Zein da zure gorputzeko atalik politena?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetik

Gonzalo: Ikusten danez ederto nago
 guapo-guapo eta fuerte,
 Bilbon bizi naiz eta gainera
 baditut hamasei urte,
 gorputzetikan atal onena
 jakitea nahi zendukete,
 nik ez dizuet ezer esango
 neskatxek esango dute.

Estiballes

Bertsoa osatzeko lau oinak: adina, premina, mina eta jakina.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Nere senarrarekin I

Estiballes: Franco hil zitzaigula
 nik urteak adina,
 baina oraindik nagusi
 negar eta mina,
 elkarrizketa dugu
 gaur bide jakina,
 ta bakea lortzeko
 badugu premina.

Gaia: Unai Parot, 1200 urteko gartzela zigorra.

Neurria: Berezia

Doinua: Gai horrek badu mamia

Estiballes: Kartzelan egon daiteke
 Unai Parot betiko,
 bota dizkiotelako
 bi mila urte ta piko,
 ideia batzuk zeuzkan ta
 aurrerantz beti tinko,
 eredu hartu dezagun
 gaur neska ta mutiko
 ta beste batzuk bezala
 bertan ez dadin hilko,
 geuk ere denok aurrera
 jarraitu behar finko.(bis)

Euskal Herriak badauzka
makina bat galera,

zerbait egin zuelako
hor doa espetxera,
ta bertan baietz tratatu
txakur baten antzera,
makina bat gose greba
ta akaso hiltzera,
oztopoak daude baina
jarrai behar aurrera,
gure zazpi probintziak
ikusi arte batera.(bis)

MARKINA-XEMEIN (1994-03-12)

Bertsolariak: Lea-Artibaitik gaztetxoan mailan Bilbao, J.Gojenola eta Arza izan ziren, eta gazteetan P.Aranburu, Azula eta Ibarra; Durangaldetik gaztetxoetan Elorriaga, A.Areitio eta Ugartetxe, eta gazteetan Gaztelurrutia, Muguruza eta Iturriaga.

Gai-aurkezlea: Bernardo Mandaluniz.

Bizkaian egindako BBK sariketarako ligako saio bat izan zen. Bertan Lea Artibaiko eta Durangaldeko taldeak neurtu ziren. Markiñako Lanbide Eskolan izan zen saioa, 100 entzule ingururen aurrean.

P.Aranburu

Gaia: Lau oinak: goaz, ganoraz, dodaz eta inogaz.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Nere senarrarekin I

P.Aranburu: Dagoneko hemendik
 inora ez goaz,
 baina kantatu ondo,
 kantatu ganoraz,
 nahiz pikerik ez euki
 seguru inogaz,
 Durangarrak gustora
 jodituko dodaz.

LIZARTZA (1994-03-20)

Bertsolariak: T.Garmendia, Irazu, Mendizabal, Sorozabal, Peñagarikano, J.Sarasua, Sasiain eta Telleria.

Gaijartzailea: Sabino San Sebastian.

Herri txikien aldeko jaialdia Muskil Elkartek antolatua. Pilotalekuan 750 entzule inguru bildu ziren. Arratsaldean eta saio ordaindua. Saioa bitan banatu zen, hots, laukote bat lehen tartean, gero trikitalariak eta ostean beste laukotea. Giroa berotzen nahikoa kosta zen, eta azkenaldean bertsolariekin batera paperean idatziriko koplak abestu zituzten entzuleek.

Mendizabal

Gaia: Zu, kabian zauden txantxangorria zara. Eta zure kumetxoan bila datorren haur batzuk ikusten dituzu.

Neurria: 6 puntukoa

Doinua: Esateko ez naiz lotsa

Mendizabal: Udaberriko orduan,
kabia daukat goguan,
ta ume batzuk sumatu ditut
nere inguruan;
gaiztakeriz zuek ez juan,
gauz hau eduki buruan,
nahi badituzue ikusi baina
utzi lehen dauden lekuan. (bis)

Nere urteroko gisan,
ari naiz nere langintzan,
kukukumeak dirade hauek
hori garbi izan;
beraiek mantendu nitzan,
hark utzirikan bizitzan,
neronek asko maitatzen ditut
nahizta nereak ez izan.(bis)

Kabi ugari badaude,
bere purian bestalde,
bere barruan hiru-lau ume
alaitasun jabe,
umetxoa lasai zaude,
ta ez hartzea da hobe,
udaberria tristea baita
txori abestirik gabe.(bis)

Sorozabal

Puntua jarrita:

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Aranora joan ziran

Sabino: Jantziko al zenduke
Txominen txapela?

Sorozabal: Uste det haundiegi
izango nukela,
baina jantzi liteke
beronek bezela,
pozik ibiltzen baita
kalean horrela.

LESAKA (1994-03-27)

Iparraldea eta Nafarroako Bertsolarien Txapeketako finala
Bittor Elizagoien Txapeldunaren azken agurra

Arratsaldeon Mikel Tabernak
etortzeko honera dei,
tabladu gainan ikusten nitun
hainbat goibel edo hodei.
Baina halare gero urteak
hemeretzi edo hogei.
Nere sariak orain badazkit
ederki eskeini norei;
nere txapela aita zenari
txaloak preso daudenei.

DONOSTIA (1994-03-27)

Bertsolariak: Elordui, I. Agirreazaldegi, Gabilondo, N. Fernandez, Bilbao, O. Enbeita, Sukia eta Estiballes.
Gaijartzailea: Karlos Aizpurua.

Intxaurrendoko Bertso-eskolak antolatuta, I. Bilintx Txapelketako saioa izan zen, Intxaurrendoko eskola publikoan. Goizeko 11,30etan hasi zen eta 100 entzule inguru etorri ziren.

Bilbao - Estiballes

Gaia: Aita alabak zarete, Harkaiz aita eta Leire alaba. Alabak kotxea gidatzeko karneta atera berria du eta gaur larunbata gaua izanik, aitari kotxeko giltzak eskatu dizkio.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Nere senarrarekin I

Estiballes: Alkoholak gazteengan
horrenbeste usai,

bolantean bazoaz
guztientzat etsai,
etxerantza etorri
zaitez lasai-lasai,
zu sano etorri zaitez
kotxea ere bai.

Bilbao: Kotxea sano ekarri
dago oinazean,
negarrez hasiko naiz
zuk utzi ezean,
eta bestela jarri-
ko naiz ni pozean,
garbitu eingo dizut
hurrengo goizean.

Estiballes: Gaur egungo gazteak
dira alkoholzale,
tabernara joan ta
denak dale-dale,
kotxea ez ekarri
gaurko hontan grabe,
ta alboko asientua
be bajatu gabe.

Bilbao: Aita horren da gaizto
ta horren zorrotza,
bera nirekiko gaur
portatzen da hotza,
gauza bat esateko
ni ez naiz ez lotsa,
bajatu egingo dut
ta berriro altza.

Estiballes: Benetan aurkitzen naiz
haserre moduko,
zerbait gertatzen bada
ez da agertuko,
baina horregatik ni
ez arduratuko,
ta Pako Lobatoni
ez diot deituko.

Bilbao: Pako Lobatonekin
dabil pausuz pausu,
gaur esaten duena
nik ez egin kasu,
ta kendu nahi baduzu
gaurkoan arazu,
bigarren eskuko bat
erosi zaidazu.

Sukia

Gaia: bi puntu:

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Aranora joan ziran

Aizpurua: Seguru dakizula
egiten inglesezez...

Sukia: Hizkuntza hoiek denak
dira nere kaltez,
ta hitzegiten ere
ni horretan batez,
euskeraz ere justu
aritzen naizenez.

Aizpurua: Naparren txapelketak
Lesakan finala...

Sukia: Eta hori ez degu
ez gauza makala,
eta nik esango det
ohi degun bezala,
handik ere onenak
irabaz dezala.

IRUN (1994-04-10)

Bertsolariak: S.Lizaso, Murua, J.M.Lopez, J.Sarasua, Mendizabal eta Sorozabal.

Gaijartzailea: Iñaki Urkia.

Amaia kultur etxean izan zen saioa, goizean. Sarrera ordaindua. 600en bat entzule bildu ziren. A.E.K. izan zen antolatzailea.

Sorozabal - J. Sarasua

Gaia: Zu Jokin herri bateko alkatea zara eta zu, Jon, semea. Intsumiso egin zara eta une honetan kartzelara sartzera zoaz bi urterako. Zure aita alkateak esaten dizu txorakeria horiek uzteko eta soldadu joateko.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Kantore berri xarmat batzuek

Sorozabal: Soldaduskara joan behar dezu
esan nizun nik lehenbizi,
baina zenbaitek zuek engainatzen
badauka hainbat malizi,
orain kartzelan joan zinalako
ejerzitetik ihesi,

txorrada hortan sinesten dunak
besterik ez du merezi.

J.Sarasua: Alkate jauna haserre daukat
ene hau da martingala,
ta esaten dit txorakeriak
azkar utzi ditzadala,
esaten dute soldauska hortan
bat tentel bihurtzen dala,
ta ez dut tentel bihurtzerik nahi
gure aitatzko bezala.

Sorozabal: Libre badago ze ajola du
tentela izanez gero,
kartzelara ni joango naizenik
hobe dezu ez espero,
intsumisio istori pranko
ta hara nun gauden gero,
beste kontu bat izango zan gaur
Franco bizirik balego.

J.Sarasua: Aitatzko baukat nik PPkoa
bakizue horren berri,
halare goxo jartzen denean
degu nahiko maitagarri,
zuk nahi badezu semearekin
oraindik ondo etorri,
astero-astero Martutenera
txorixo batzuk ekarri.

Sorozabal: Beraz txorixo batzuk jatea
zuretzat da gogokoa,
baina ez pentsa eramaterik
jenero horretakoa,
azken aldian gure munduan
ikusi pasatakoa,
eraman gabe ere badago
hemen txorixo nahikoa.

J.Sarasua: Gure aitaren broma txikiak
ez zaizkit ahazten sekula,
baina nik ere sartua diot
berari broma mardula,
pentsatu aita guardia zibilak
igual hartuko zaitula,
epaileari esan bait nion
aitak bultzatu nindula.

Sorozabal: Ni bildurtuta engainatzeko
ari zera ahalegintzen,
guardia zibilen bildurrarekin
ez nauzu batere mintzen,
ta lasai egon epaia horren

bildurrez ez naiz gelditzen,
zuk badakizu gaur epaileak
ezer ez dula agintzen.

BEASAIN (1994-04-16)

Bertsolariak: J.Sarasua, Sorozabal, E.Arozena, Maia, Ibarra eta I.Elortza.

Gaijartzaileak: Pello Urretabizkaia eta Joxepa Madariaga.

Kiroldegian burutu zen jaialdia, gauez, ordaindua izan zen (700 pzta) eta 500en bat entzule izan ziren bertan. Antolatzailea: Alkartasuna ikastola.

E. Arozena - Ibarra

Gaia: Amodio gau baten atarian zaudete. Zuen sentimentu, poz, kezka eta bildurrak jakin nahi ditugu.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

- E. Arozena: Urduri gaude ta une hontan
 hori ez al da normala?
 orain artean kontu hauetan
 nola gabiltz nola-hala,
 gaur hartutako gozamendua
 ez da izango makala,
 dena irteten baldin bazaigu
 pelikuletan bezala. (bis)
- Ibarra: Nahiz ta tablauan lasai ibili
 ta alaitu jende dena,
 gaurkoan nahiko urduri nago
 hori gauza nabarmena,
 nahiko antzerki egiten dugu
 bertsolaritzan barrena,
 baina seguru gaurkoa dela
 pelikularik zailena. (bis)
- E. Arozena: Gure munduak nahiz eta izan
 orain hainbeste engaino,
 era honetan hurbildu zaigu
 gau hau ere guganaino,
 nahiz ta bertsotan urduri egon
 ta izan horrenbeste laino,
 nahiago nuke bertsotan ari
 gau hau enfrentatu baino.(bis)
- Ibarra: Puntu horretan arrazoi asko
 daukazula gaur zeharo,
 esan beharra ikusten dut nik
 ta joko dizut ordago,
 zure moduan Estitxu ni ere

gaur oso urduri nago,
beatzikoan kantako nuke
askoz ere lasaiago. (bis)

E. Arozena: Egia esan gure kontuak
ezin ditugu ekidin,
pentsa dezagun aurrerantzean
ez dela izango berdin,
ta gure gaua gau ahaztezina
ta polita izan dedin,
begiak itxi ta instintuak
pentsatuko du zer egin. (bis)

Ibarra: Estitxu ere ez dut ikusten
nire ondoan seguru,
egia esan hemen gabiltza
ez belarri ta ez buru,
baina ideia bat hartua daukat
gaur guretzako helburu,
trukaketa bat egingo dugu
txarto irtetzen bazaigu. (bis)

OIARTZUN (1994-04-17)

Bertsolariak: S.Lizaso, J.M.Lopez, Sorozabal, Egaña eta Lujanbio.
Gaijartzailea: Joxerra Garzia.

Donibaneko Arraunlari Elkarteak dirua biltzeko antolatutako saioa. 600 bat entzule bildu ziren arratsaldeko bost t'erdiretan Madalensoro pilotalekuan. Xabier "Euzkitze" zen hitza emandako seigarren bertsolaria, baina ez zen azaldu.

J.M.Lopez

Gaia: Puntua jarrita:

Neurria: 8ko txikia

Doinua:

JR.Garzia: Ezagutzen al dituk
Roldan ta Rubio?

J.M.Lopez: Ezagutzen dituela
gaur Lopezek dio,
ta erantzun behar det
zer erremedio:
pobrea beti pobre
ohi dala medio.

Garzia: Perez, J.M.Lopez, Garzia
euskaldun al dira?

J.M.Lopez: Neuk eman behar dizut
gaur horren segira,
euskaldunak gerala
zuk ez erretira,
bestela jar zaitia
sudurrai begira.

Garzia: Presaka goaz baina
ez dakigu nora...

J.M.Lopez: Lehenago ezin etorri
holako mejora,
hargatik hainbeste gauza
beharko gogora,
mantxo ibiltzea askoz
hobe izango da.

LASARTE (1994-04-22)

Bertsolariak: Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña.
Gaijartzailea: Iñigo Aiestaran.

Udaberriko bertso afaria, Ttakun kultur Elkarteak antolatua. Goiegi jatetxean izan zen eta ordaindua. Librean jardun ziren haseran, baina gero gaijartzaileak eta entzuleek jarririko gaiei erantzun zieten. 125 entzule ziren bertan, saio beroa gertatu zen eta jendea gustora atera zen.

S. Lizaso - Egaña

Gaia: Atzo ETB-ko "Debaldeko Festa" programan bertsolari laukoteari eginiko zentsura dela medio, zer duzue esateko?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lehendabizitik

S.Lizaso: Aldez aurretik Telebistak zun
saiotxo bat iragarri,
baina gerora zer pasako zan
inork ez zion igarri;
zuzendariak saioa entzunda
ziran estu eta larri
ez ikaratu gaur guk ez degu
spray poterik ekarri.

Egaña: Hitzak hitzari josteagatik
bazan buruhauste pranko,
ta lau gazteak pentsatu zuten
aurrera segi beharko;
Otermin Jauna zuzendaritzan
nunbait ez zegoen bapo,
"Oterminator" deitzen diote

bukatu arazi zulako.

S.Lizaso: Bart arratsean gertatu zenak
nori egin zion grazi?
Lau gazte joan ta sentipen denak
zituzten adierazi;
nahi ez dutena entzuten nunbait
batzuk ez dute ikasi,
nola bukatu ez zekiten ta
azkar bukatu arazi.

Egaña: Gazte jendeak olioturik
kulata eta pistoia,
bere bertsoan agertu zuten
gaztediaren sasoia;
ta Oterminen moztu arazi
ze tipo " melokotoia ",
ze baju dagon telebistako
intelijentzi listoa.

S.Lizaso: Amildegian ertzean zena
orain daukagu zuloan,
adierazpen askatasuna
baitago errezeloan;
telebistako gaia jarri du
izango al du gogoan?
Hau Amatiñok jakiten badu
aurki zerade paroan.

Egaña: Errepikapen kontua da hau
historiak bueltak ditu,
nik telebistaz han kantatu nun
ez al zenuten aditu?
Nahiz hainbat fokoz platoetako
arpegi danak argitu,
zuzendaritzak oraindik ez du
bide zuzenik aurkitu.

S.Lizaso: Bart arratsean gertatu zana
tristea dugu tamalez,
Joserra ere dena zuritu
bai hitzez ta bai azalez;
dirudienez bildurtzen zaigu
gainerakoen itzalez
Franko asko da gaur egunean
nahiz biboterik izan ez.

Egaña: Nahi zuten dena kantatu zuten
baina denbora gutxiko,
neronen begiz ikusi ez banu
ia ez nun sinetsiko;
gure ideiak bota nahiean

inoiz ez degu etsiko,
ahua aspaldi zabaldu gendun
ta ez digute itxiko.

ABADIÑO (Matiena) (1994-04-23)

Bertsolariak: J.M.Areitio, Respaldiza, I.Elortza eta H.Lopategi.

Gaijartzailea: Anton Mari Aldekoa-Otalora.

Matienako festetan jai batzordeak antolatutako saioa, eskolako gimnasioan, 300 entzule ingururen aurrean, gaueko 10,30etan. Sarrera doan. Saio polita gertatu zen, jendea gustora.

J.M.Areitio

Gaia: Lehen esaten zen soldaduskan egiten zela bat gizon. Gaur begiratuta, zelan ikusten duk hori?

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Bautista Basterretxe

Areitio: Berbetan hasi behar
gizonaren gisan,
gimnasioan gagoz
eta ez eleizan,
hala tokatzen zan da
soldadu joan nintzan,
lehen baino tontoago
einda etorri nintzan.

Soldadu jua nintzan
patxara ondraduan,
orduho mutil danak
juandako moduan,
intsumiso ta holakoik
ez zegon orduan...
Jan nituan txuskuak
gaur ditut goguan.

Soldadu joaten ginan
hainbeste gaztedi,
eta adarra jotem
bata besteari,
orduho beste bideik
ez gendun nabari,
orain mila zorion
joaten ez danari.

USURBIL (1994-05-06)

Bertsolariak: Amuriza eta Iturriaga.

Europear hauteskundeak zirela eta, Usurbilgo Herri Batasunak bertso afaria antolatu zuen. Gauez Ageri-Alde Ikastetxe Publikoan. Sarrera ordaindua. Gai librean aritu ziren 110 entzuleren aurrean. Giro beroa, hurbila. Bertsolariek eta entzuleek oso gustora irten ziran.

Amuriza - Iturriaga

Gaia: Afari kontuarekin aurrera eta atzera ibili ostean, Aginagako angulen kontua atera zuten mahai gainera.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin Berriotxoarena

Iturriaga: Tapatu gabe ikusi dira
 Usurbilgo matrikulak,
 inork txarrera ez bitza hartu
 bizkaitar txoroen burlak;
 menu ederra eduki arren
 ta baita tripa mardulak,
 Xabierrek zion:" Non ote daude
 Aginagako angulak?" (bis)

Amuriza: Horra gai berri bat dotorea
 kolpera etorri dala,
 Aginagako jenero hori
 famatu zan berehala;
 hainbeste saltsa sortu duenai
 horra erantzuna hala,
 orain berrogei urte jan zuten
 azkenengo naturala. (bis)

Iturriaga: Horko partetik Agiñakoa
 erdi haserretan dabil,
 gure bertsoa ez dala joan
 oso zuzen ta biribil;
 Zarautz aldean galdetu dugu
 non kristo dagon Usurbil,
 eta guztiek esaten zuten:
 "Agiñatik oso hurbil"

Amuriza. Mutilak berri on bat eman du
 beraren umildadian,
 autopistatik atera gera
 ez gera etorri zaldian;
 hainbeste istilu hemen bazala
 oroitzen naiz aspaldian,
 Usurbil dana negarrez zegon
 Aginagako zubian. (bis)

Iturriaga: Ez ditut asko ezagutzen nik

zubi hortako kontuak,
baina aprobetxau behar ditugu
honelako momentuak,
ze Agiñako angula hoiek
orijinal ta kantuak
hemen jartzen du hauek direla
Nerbioi ibaian hartuak.(bis)

Amuriza: Usaian ere antza hartzen det
Nerbioiko erresaka,
aginagatar lapur zar batek
gauetz egin zuen saka;
etorriko zan autopistatik
argitzerako presaka,
oso freskoak daude gainera
kongeladoran pasata.(bis)

Iturriaga: Angula hoiengatik kontua utzi
behingoz suabe-suabe,
pelota eginda egin gara gu
publiko guztian jabe,
baina koparen orduan beti
patxarana da errege,
"Con las endrinas bien puestas" dago
Usurbilgo jentea ere.(bis)

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Amuriza: Bertso afaria dela ta hemen
etorri gara festara,
baina aurrera soilik sozio
ez behatu badaezpada;
oraindik zerbait berria denaz
oso ahaztuak ez gara,
"con las endrinas bien puestas" joan
zineten telebistara.(bis)

Iturriaga: Telebistako kontua berriz
azaldu beharko hemen,
ia behingoan jentea piskat
enteratzen dan bederen;
endrina hoiengatik kontua nola
aipatu duzu lehenbaitlehen,
endrina hoiek batzuri gora
igo omen zitzaizkien.(bis)

Amuriza: Sekula ez det pasatu izan
halako gau atseginik,
endrina hoiek batzuei nora
joan zitzaizkien jakinik;
eta han daude gizagaixoak

barrenak txit irakinik,
ahora igo zaiena berriz
tokira jetxi ezinik.(bis)

Iturriaga: Egindakoa ez omen dute
oraindik ere barkatu,
Otermin horren burua ere
jenteak baitu eskatu;
ni lasai nago, nagon tokian
nigatik ez arduratu,
kristonak bota, ondo pasatu
eta gainera kobratu.(bis)

Amuriza: Gazte jendea izanagatik
ez zen ijitu motela,
Zarraoa Jaunak atzo Gasteizen
argitu zuen koktela;
hautsi omen zuten kontratua edo
sinatu zuten papela,
eta denetan okerrena da
normal kobratu zutela.(bis)

Iturriaga: Zarraoa Jauna Parlamentuan
ez zan ibili oso zuzen,
arazo nahiko eduki zuen
bere kontuak okertzen;
jente aurrean esan behar dut
berriz altu eta ozen,
guk hautsi gendun gauza bakarra
emisioa izan zen.(bis)

Amuriza: Hiru motiko eta neska bat
oso planta eztikoa,
ez dakit zeinek zeineri eman
zion hartan ostikoa;
saioa oso didaktikoa
pintore eta guztikoa,
beste gauza bat asmatu degu
bertsogintza plastikoa.(bis)

ARETXABALETA (1994-05-20)

Bertsolariak: Mendizabal, Amuriza, J. Sarasua eta Egaña.

Gaijartzailea: bertsolariak berak.

Aurkezlea: Arantzazu Loidi.

Gaueko saioa Kiroldegian. Saio ordaindua, 200en bat entzule. Antolatzaile: Elkarri. Saioa Arantzazu Loidik aurkeztu zuen baina bertso-saioa bertsolariek beraiek zuzendu zuten, elkarri bertsotan gaiak eta puntuak jarritz. Esperientziari oso egoki iritzi zieten bukaeran bertsolari eta entzuleek.

Mendizabal - Amuriza - J.Sarasua - Egaña

Gaia: Saioaren tarte honetan Mendizabalek hartu zuen gaijartzaile lana, besteei gaiak jarritz. Bakoitzari doinu berezi batean kantatu zien, berak sortutako edo berak sarri erabili ohi duen doinuan.

Neurria: Berezia

Doinua: Gai horrek badu mamia

Mendizabal: Altza adi Amuriza
 eta hartu nekeak,
 proba nahi dizkiat hire
 bizar zuri maiteak,
 apaizgintza utzi eta
 eleizako ateak,
 ikusirik dauzka ongi
 mundu hontako parteak,
 ezaturik gure gerrak
 ta gure goseteak,
 gaur egun zentzuik ba al dik
 misiolari izateak? (bis)

Amuriza: Lehenago ez nuen falta
 Afrikako ametsik,
 aukerarik izan banu
 joango nintzan kasik,
 gero handik irten nintzan
 gainera oso pozik,
 orain badut bizarra ere
 ta ez zait falta deusik,
 zer naiz bada ni Euskadin,
 jantzita nahiz biluzik,
 galtzear den tribu baten
 misiolari baizik ? (bis)

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Mendizabal: Probatu nahi det Jon Sarasuak
 duen atarramendua,
 entzuleentzat gozamina ta
 beretzat sufrimendua,
 hire barruan nabari diat
 zerbaiten mugimendua,
 bihotza daukak hondua,
 sentimentuz atondua,(bis)
 galderatxo bat egin nahi diat
 eta hauxen dek ordua:
 maiteminduen begiek nola
 ikusten dute mundua? (bis)

J. Sarasua: Nere sekretu txikiak ere
 zuk nola dituzu jakin?
 lotsatu ere egina nauzu

zuk nere herritarrekin,
halare erantzun beharko dizut
eta ez dut nahi hutsegin,
ezin ta nahi, nahi ta ezin,
bihotzean hartzen da min, (bis)
gaizki ulerturik ez zazu hartu
nik esan dudanarekin,
maiteminduta nago ni baina
gure Euskal Herriarekin.

Neurria: Berezia

Doinua: Zuek horrela ikusi eta

Mendizabal: Andoni Egañan burutapenak
berri ugari dakarte,
izanez ere gauza horrekin
testigu zuek zarete,
berak badaki une bakoitza
hitz ederrez nola bete
badaramazki lau bost urte
bertsoetan jo eta ke,
harturik hainbeste neke,
edozein gauza esplikatzen du
bertsoa dela bitarte,
Luis Ocañaren suizidioa
nola esplikatuko huke? (bis)

Egaña: Geure buruen txontxongilo ta
sarri besteren titere,
ustez antuxun ginanak ere
bihurtzen gara titare,
Luis Ocaña hor joana zaigu
isilik bezin suabe,
pistola bat parez pare
zigilurik jarri gabe
ez lore ta ez aldare,
baina inortxo ez asaldatu
egin zazute mesede,
askatasunak mugarik ez du
heriotz orduan ere.(bis)

Amuritzak Egaña gonbidatu zuen irtetera, bat-baterako doinu zail bat hartuz, txapeldun kontuak aipatzera, aurretik Egañak txapeldun deitu baitzion.

Neurria: 6 puntukoa

Doinua: Esateko ez naiz lotsa

Amuriza: Mikel zirikatzen jardun
nor ote garen fededun,
kontrarioz ez nuke izango
gaur hoberik inun,
gaia zentratu dezagun,

zer diok Egaña egun,
barkatu baina ni ahaztua naiz
noiz izan nintzen txapeldun.

Egaña: Aritu zaigu kanpainan
halako era alaian,
iruditzen zait oraindik dabil
txapelan usaian,
bazkaldarrak ase nahian,
ura ta ardoa mahaian,
biak'e onak ditugu baina
bakoitza bere garaian.

Amuriza: Mahaian txanpainakin busti,
berdin ilun nahiz eguzki,
puru erretzaile honek neronen
tranpak badakizki,
dela Bilbo nahiz Donosti,
jendeak hor zioke noski:
Amurizaren jarraitzailea
ez zebilek horren gaizki.

Egaña: Ez zaite izan txepela,
ez neri hasi horrela,
bururik buru martxa onean
joan da txapela,
onartu ezazu bela,
denek dakiten bezela:
ikasle onak maisu zaharra
beti gaintitzen duela.

Amuriza: Hori konpreni zitekeek,
belaunaldiak hor zeudek,
hik ondo asko diok zer dion
esaera batek.
Ni hori entzunda laket,
eta hik sinesten badek
beraz hortatik hi ere laster
gaintituko hau norbaitek.

Egaña: Hori egi borobila,
atzetik datorren pila,
hoiei uztea da Egañaren
desio umila,
gure arteko iskanbila,
nor da biotan abila,
zalantza zure alde dago ta
dudan geratu dadila.

Saioa bukatzeaz zela Jon Sarasuaren gonbidapenez elkarri puntuak jartzen hasiko dira.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Aranora joan ziran

J.Sarasua: Lehen ahul geratu da
gure arrazoia,
bigarren saio hontan
jo nahi dugu goia,
beste hauei puntuak
ipintzera noia,
zerbaitegatik naiz ni
hemen anfitrioiia.

Ez daukagu holako
hiruko makala,
osatu beharko da
bertso martingala,
puntuak jarriko ditut
hemen pentsa ahala,
hiruretatik nahi dunak
erantzun dezala.

J.Sarasua: Hogeitahamazortzi urte
mutiko polita...

Mendizabal: Egia ote dan nago
dudan ipinita,
nik edukiko banu
Sarasuan pinta
txoratuko nituzke
hamaika txikita.

J.Sarasua: Parranderoen etxean
emazteak zama...

Egaña: Aipatu nahiko zuen
Amurizan ama,
beti parrandan dabil
hau da panorama,
golfo ta ganberroen
bizitza darama.

J.Sarasua: Aurten aurkezten al zera
hauteskundeetan?

Amuriza: Pentsatzen hasi beharko
hurren goizaldetan,
igual aurkeztuko naiz

ni Ameriketean,
dolarrez jantzita etorri
bait ninteke bueltan.

J.Sarasua: Ondo konpontzen al zera
Amatiñorekin?

Egaña: Nigatik zela ere
gaur arte ez nekin,
nik ateratzen diot
nahikoa etekin,
nola ez naiz konponduko
beste kalboakin.

J.Sarasua: Asko maite al duzu
sudur txato hori?

Mendizabal: Sudur honek badauka
hainbeste istori,
hartuko zitun noski
kolpe bat edo bi,
zuk hartu bazinuzen
baietz hor erori.

J.Sarasua: Bertsolari onenak
hitzezin dezala...

Amuriza: Eskerrikasko etzen
piropo makala,
uste det hori entzunda
hola berehala,
noizbait rekonozitzeko
garaia bazala.

Doinua: Lurralde dena dabil I

Mendizabal: Aurten joan behar al dek
Sudamerikara?

J.Sarasua: Oraindik pentsatua
ez dadukat hara,
ondo moldatuko naiz
nahi dudana erara,
guztiz libre geranak
hola ibiltzen gara.

- Egaña: Euskal Herria al dek
maitale bakarra?
- J.Sarasua: Galdera hori izan dek
bai gaizto samarra,
egiak esate'itut
hemen barra-barra,
baina izkututzen ere
ez naiz horren txarra.
- Mendizabal: Andoni lagundu'io
Jon Sarasuari...
- Egaña: Biok lagun gerala
ez al da nabari,
egunez pajaroa
ta gauez gautxori,
laguntzik gabe ondo
moldatzen dek hori.
- J.Sarasua: Puntuak joan dira
danontzako beste,
hauek segitzerikan
ez zazute uste,
zertan zaudete zutik
puntuaren eske,
ondo egin duzue
eseri zaitezte.

BERGARA (Elosua) (1994-6-4)

Bertsolariak: S.Lizaso, Murua, Mendizabal, Loidisaletxe II, Euzkitze eta Gorrotxategi.
Gaijartzailea: Maite Aristegi.

Eleizan egin zen saioa, gaueko hamar t'erdietan hasita, 200en bat entzuleren aurrean. Jai batzordea izan zen antolatzaile. Doaneko saioa.

Gorrotxategi - Loidisaletxe II

Gaia: Gorrotxategi, zu hemen auzoko Balentin izango zara, eta zu, Loidisaletxe, auzoko beste baserritar bat. Balentinek aste honetan bost asto erosi ditu, lau eme eta ar bat. Auzokoarengana joan zara traturen bat egin nahirik.

Puntutan hasi ziren bertsolariak.

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Mando baten gainian

Loidisaletxe: Astoarekin zertara
hator neregana,
Gorrotxategi: bakoitzak egiten du

Loidisaletxe: gaur hor ahal duana,
 hauxen da asto pila
 inguratu dana,
 Gorrotxategi: zuen etxean bada
 denentzako jana.

Gorrotxategi: Emeak dira batzuk
 eta bat da arra,
 Loidisaletxe: beraz hik izango dek
 bat horren beharra,
 Gorrotxategi: hainbeste panderontzat
 antena bakarra,
 Loidisaletxe: tamainakoa bada
 ez da gauza txarra.

Loidisaletxe: Astoarekin tratura
 ijito moduan,
 Gorrotxategi: hori nik ere lehendik
 pentsatutzen nuan,
 Loidisaletxe: ni tontoa ez naizela
 jakingo zenduan,
 Gorrotxategi: dana libre dek motel
 holako lekuan.

Gorrotxategi: Astua saldu eta
 astoa erosi,
 Loidisaletxe: beraz azienda hoiez
 behar gaitu josi,
 Gorrotxategi: Balentin nik asto zai
 ez det ez ikusi,
 Loidisaletxe: astorik haundiena
 zeu zera ta kasi.

Loidisaletxe: Balentinen tratua
 gaizki atera da,
 Gorrotxategi: hargatik egiten dio
 nere begirada,
 Loidisaletxe: tratante txarran kontua
 sarritan hola da,
 Gorrotxategi: Santaluzitan eraman
 danak Zumarrara.

Gorrotxategi: Asto ar eta eme
 umeak ondoren,
 Loidisaletxe: begira jende hau zer
 itxuraz dagoen,
 Gorrotxategi: hortik pentsatu gero
 atzez zer datorren,
 Loidisaletxe: etxean eduki eta
 eingo dek ondoen.

Loidisaletxe: Beraz nazkatua haiz
 orain asto berriz,

Gorrotxategi: holako traturik ez det
nik egingo berriz,
Loidisaletxe: Pillarikatan ekarri
gose ta egarriz,
Gorrotxategi: nahiko izango degu
hemen astakeriz.

ERREZIL (1994-06-11)

Bertsolariak: Sorozabal, Murua, Egaña, J. Sarasua, Peñagarikano, Loidisaletxe II.
Gaijartzailea: Manuel Agirretxe.

Herriko festetan gaueko jaialdia bertako frontoian. 600en bat entzule elkartu ziren bertsolariak entzutera.

Egaña - Peñagarikano

Gaia: Hauek biak elkarren inbiritan bizi omen dira eta momentu batez gustora egoteko aukera emango diet. Hi Andoni momentu honetan Peña izango haiz eta hi Peña, momentu honetan Egaña.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Peñagarikano: Herririk herri plazarik plaza
kantuan hainbeste urte,
ta gustatzen zait neri agertzea
dauzkadan zenbait bertute.
"Erdi kalbo hori txoroa dugu"
askotxok esaten dute,
Zarautz aldean jaio nintzan da
konprenituko dezute... (bis)

Egaña: Mikrofonora etorri eta
derrepente hasi ri-rau,
nere ahotsak alaitu ditu
majina bat egun ta gau,
ni txapelketan justu ibili
hauxe da desgrazia hau!
baina halare oraindik ere
herriak gehien maite nau.(bis)

Peñagarikano: Filologia egin nuen da
badaukat jakinduria,
Euskal Herriko txapelduna naiz
badaukat kategoria,
danak batean galdu ditut nik
ileak ta memoria,
kabuen la letxe, ahaztu egin zait,
nun dago nere Roslia.(bis)

Egaña: Ni Rosliakin bertso kantari
horrenbestean akabo,

esan didate tira ta tira
ta bukatu zak zeharo,
nolako gauza nazkantea zan
ez nekin ongi lehenago,
neure bizitzan lehenengoa da
ta mareatuta nago.(bis)

Peñagarikano: Lehen Gurrutxaga ta Bandresek
egiten nuen mitina,
Peñarengandik ikasi nuen
orain dakitan pitina,
nahiago nuke baldin baneuka
Anjel Marik daukan grina,
Sebastianen laguna naiz ni
hoi det akatsik haundina.(bis)

Egaña: Beti izan naiz mutil zintzoa
esaneke ta xuxena,
ta Albisturko ostatutikan
datorkit bertsoen sena,
nere berririk zeinek ez dauka
Anjel Mari det izena,
zeruak lurra jo bitartean
ezkonduko ez naizena.(bis)

Peñagarikano: Han eta hemen bertso ederrak
nik kantatzen ditut aise,
neri entzunda halata guztiz
jendea bertsoen gose,
aspalditxoan ezkondu nintzan
oraindik ez naiz ase,
nahiago nuke soltero banintz
Anjel Mari bezelaxe.(bis)

Egaña: Hauteskundeak ditugu bihar
aze nolako konpota,
iruditzen zait izan leikela
lau partiduren konplota,
lehen eztabaidan aritu dira
bota edo-ta ez bota,
nik Athletic-i emango diot
aurten European dago ta.(bis)

Peñagarikano: Europa aldean ibiliko du
harek'e hainbeste trote,
benetan fuerte dagola aurten
halaxe esaten dute,
zarauztarra naiz lagunak ditut
Iribar eta Argote,
Athletic baino talde hoberik
Europa osoan ba ote? (bis)

Egaña: Futbol kontuan sartua zaigu
inundik eginahalean,
hutsa litzake Albistur alden
ona balitz futbolean,
gure bertsoen saioa doa
oso modu makalean,
aizak Peñana ez zak egin hik
Egañaren papelean.(bis)

Neurria: Berezia
Doinua: Zuek horrela ikusi eta

Peñagarikano: Zarautz aldean jaio nintzan da
ez naiz batere motela,
hemen Peñakin armatu degu
izugarrizko pastela,
nik orain kontra egingo diot
kobardea naiz bestela,
ez naiz batere ergela
ez eta ere txepela
nerekin daukat txapela,
doinu luzea aukeratu dit
kanta behar den bezela,
demostra ezak Gipuzkoako
txapelduna heu haizela.(bis)

Neurria: Bederatzikoa
Doinua: Betroiarena

Egaña: Beatzikoz estali
nik zortziko hori,
Egaña gaur lazoan
zaigu erori,
Anoetarrak badauka
hainbat kategori,
eta plazarik plaza
bi mila histori,
sekula ez nagi,
beti adi-adi,
bertso on ugari
herriak nabari,
denok esan dezagun
Aupa Anjel Mari!(bis)

HERNANI (Ereñozu) (1994-06-12)

Bertsolariak: Mañukorta, Loidisaletxe, Murua, Sorozabal, J.Lopategi eta Lazkano.
Gaijartzailea: Xabier Uitzu.

Igande arratsaldeko bertso saioa jai giroan. 600en bat entzule.

Murua - J.Lopategi

Gaia: Zuek biok irakasleak zarete, baina nahiko ikuspegi desberdinekoak: Murua azterketarik ez egitearen alde dago, eta Lopategi egitearen alde.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lehendabizitik

Murua: Egun hauetan azterketekin
ikaslegoa nahasia,
urduritasun gainezkatuak
lehengo patxara hausia,
ta azterketa ditxosozkoak
du horren erru guzia,
hiru ordutan ezin da esan
urte betez ikasia.(bis)

J.Lopategi: Baina hortara ohituak gera
irakasle ondraduak,
responsabilidade haundiak
baitira gure karguak,
hiru ordutan jakin daitezke
ikasle hoiien graduak,
bestela nola neurtu daitezke
gaurko gazte deabruak? (bis)

Murua: Gazteak zerbait bihurri behar du
egia garbi esateko,
neurtu beharra ere badago,
horretaraino ameto,
eguneroko lana neurtzea
da azterketa baino hobeto,
alper listoak famatzen ditu
langile finen kalteko.(bis)

J.Lopategi: Arrazoi faltso bat bota dezu
neure ustetan alperrik,
ohitura hola daukagu eta
horrek ez dakar okerrik,
ikasle hoiien artean ez da
inoiz faltatzen maltzurrik,
ikasle finak ez du izaten
azterketaren beldurrik.(bis)

Murua: Zeu ez zinala hala izandu
hor arrazoi nabarmena,
ikasle bati azterketa horrek
mugitzen dio barrena,
zeuk lan gutxi egin ta azkar neurtu
hortxe laburtzen da dena,
eguneroko jarraipena da
azterketarik onena.(bis)

J.Lopategi: Azterketaren helburuz doa
eguneroko arreta,
gu ere hola ibili ginen
eta ez gaude erreta,
beraz aurrera segi dezagun
ta mantendu azterketa,
gaurko gazteak gu ginen baino
gutxiago ez dira-eta.(bis)

ELGOIBAR (1994-06-18)

Bertsolariak: J.Lopategi, Murua, Egaña, Meabebazterretxea eta X.Zeberio.
Gaijartzailea: Agustin Irusta.

Elgoibarko San Migel auzoko jaietan jai-batzordeak antolatutako saioa. Gauean bertako frontoian.

Meabe

Gaia: Azkenengo pare bat hilabetetan denon ahotan dabilen gauza da: Non da Luis Roldan? Ba,
hemen dugu gure artean. Non kristo sartu haiz?

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza

Meabe: Naparro aldean dantzatu nitun
hainbat musika ta jota,
"etorri adi" Madrildik gero
handik jaso nuen nota,
kapitalean ere halare
ein nun kriston tranpa sorta,
eta garbi nik aitortuko det
bate ez zaizute inporta,
pikoletoen kontura nola
nagon graduan igota.

Halako baten igarri zuten
nere buruan kaltera,
baina nik hanka egin nien ta
Extremadura aldera,
handik Portugal, gero Angola
lagun bat deten etxera,
baina ni kamuflatu egin naiz
ta gaur San Migel aldera,
nola alderik bate ez dagon
golfo batetik bestera.

Beraz gaurkuan nik ekarri det
disfrazta ondo itsatsita,
bertsolarien moduan jantzi
ta gain hontara bisita,
entzule pila batekin nola
nedukan hemen nik zita,

baina norbaitzu hasarretuta
hasi baino lehen harrika,
antzman baino lehenago orain
banijua ni korrika.

DEBA (Itziar) (1994-06-18)

Bertsolariak: J.Lizaso, J.Agirre, Lazkano, Narbaiza, Lizarreta eta Irazu.
Gaijartzailea: J.M.Etxabe.

Frontoian gaueko saioa. Saio ordaindua 300en bat entzulerekin. Herriko jai batzordeak antolatu zuen saioa.

J. Lizaso - J. Agirre - Lazkano

Gaia: Lazkano baserriko nagusia da, Lizaso Lazkanoren andrea, eta Agirre ijituia. Lazkanok astoa saldu dio, Agirre, ijituari. Hurrengo ferian ijituak asto bera saldu dio Lazkanori. Etxera etorri eta erakusten hasi da bera akordatu gabe eta Lizaso, andreak ezagutu du lehengo astoa dela.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

J. Lizaso: Ez dakit inon egokitu dan
inoiz honelakorikan,
ni bildurtu naiz senarrarekin
ez daukat gauza onikan,
asto ttiki bat ekarri digu
hor lehenguan feritikan,
tontozar horrek ez dio igarri
lehengo astua danikan.(bis)

J. Agirre: Astua zerbait meyoratu nun
pentsu piska bat emanik,
azkazalak e moztu nizekion
ta itxuratu nuan nik,
baserritarrak ez ezagutu
hori ferira juanik,
ez zendun uste zere senarra
hain tontoa zenduanik.(bis)

Lazkano: Ferian gutxi begira nion
bizkarrera ta kaskora,
alde haundirik ez dagolako
hemen astotik astora,
emazte maite horregatikan
ez zaitezela aztora,
hezitzen lanik ez degu behintzat
egon zindezke gustora.(bis)

J. Lizaso: Danak zugatik parrez ai dira

auzoko eta herriko,
seguru nago munduan bada
majinatxo bat holako,
neure tokian txorimaloa
ohian banion jarriko,
seguru nago kaikuzar horrek
ez lioke igarriko.(bis)

J. Agirre: Hau txorimaloz engainatzea
ni ez nago harritua,
astoa ere pittin bat zegon
matrail ertzak garbitua,
polita zala ta gizajo hau
gelditu zan harritua,
tontozar hauek dadiltzan arte
biziko da ijitua.(bis)

Lazkano: Tarte horretan danak ez dira
nere akats ta erruak,
asto gazteak jeneralean
izaten dira harruak,
harek astindu lezazke aixa
amonaren katxarruak,
gaztea balitz akabo zure
esneak eta porruak.(bis)

J. Lizaso: Porruak porru pena nuala
saldu nun asto maitia,
kosta zitzaidan neri pittin bat
tratu hura egitia,
nola arraio erabaki zun
honek perira joatia?
Nere senarra tontua izana
ijituak suertia... (bis)

J. Agirre: Holako tranpak egitea nik
hau ez nuan lehenengua,
aitona zahar hau ere nola dan
burutik erdi mangua,
nahikoa triste gelditu zaigu
gure bihotz barrengua,
amona ere zahartua eta
astua ere lehengua.(bis)

Lazkano: Tratu horretan oroitu nintzen
nere emazte maitean,
ta jakin zazu hori guzia
ez dala zure kaltean,
pentsu piska bat eman zaiozu
azokara juatean,
eta astoak zerbituko du
zu bizi zeran artean.(bis)

J. Lizaso: Ez gero esan zure andrea
danik amona gaiztua,
mundu guziak gaur esaten du
ez zeradela listua,
alper-alperrik egin genduan
horrenbesteko gastua,
ta orain biak salduko dittut
senarra eta astua.(bis)

J. Agirre: Gure amona iritsia da
hain genio txarretara,
beraz zu orain hastera zuaz
tratu berri horretara,
neuk ere oso ontzat hartzen det
ez nua gezurretara,
astua saldu txorixotako,
gizona txarretara.(bis)

Lazkano: Andre maitea horregatikan
maitasunik ez ukatu,
nik egin dedan tratua gaurkoz
behar zenuke onartu,
nere senarra astozar bat da
askotan dezu kontatu,
eta anai bat maitatutzea
ez da izango pekatu.(bis)

ERRIGOITI (1994-06-19)

Bertsolariak: H.Lopategi, J.M.Lopez, J.M. Areitio eta M.Arozena.

Herriko jaietan jai batzordeak antolatutako saioa, eliza ondoan eguerdiko ordubatean. Jende piska bat bazegoen eskenatoki aurrean, baina adi inor gutxi. Elkarri kantatu zioten bertsolariek.

H.Lopategi - J.M.Lopez - J.M.Areitio - M.Arozena

Gaia: Librean egindako saioarekin eman zioten hasiera eta bigarren itzulian Txiplas hartu zuten gaitzat, espetxean dagoen bertako bertsolaria.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Andre Madalen andre Madalen

H. Lopategi: Baina herritik falta da norbait
daukagu oroimenean,
gure Txiplas be ezin etorritz
gelditu da azkenean,
nahiz ta jaietan danok gabiltzan
gogo eta afanean,
ai zelakoak eingo doguzan
etxera datorrenean.

- J.M.Lopez: Gure Haritzen hizkera orain
ez zala bate makala,
neuk'e gai hori jorratu nahi det
ez al da gauza normala?
Txiplas laguna gogora zazu
orain artian bezala,
hemendik urrun egonagatik
zutaz oroitzen gerala.
- J.M.Areito: Esan bezela Txiplas gaukagu
gure danon bihotzian,
gogoratzen naiz ze txalo hotsak
harek hemen kantatzian,
beste asko lez hor dago nunbait
lotuta kartzela ertzian,
San Antonio jai hobeak daz
hura hona etortzian.
- M.Arozena: Denak dakigu esan dan Txiplas
hemengoa dala sortzez,
eta guk faltan ikusten dugu
eta gaude erdi hotzez,
bera han dago guregaitan
eta ez gaude gu lotsez,
bera falta da baina hemen dago
bai buruz ta bai bihotzez.
- H.Lopategi: Balentzirantza begira dago
orain guztion begia,
inola ezin daiteke ahaztu
horrelako gudaria,
begiratuta ez al da gauza
triste bezain nabaria,
gure artean ez egotea
herriko bertsolaria.
- J.M.Lopez: Berak bertsotan jorratu zitun
nik ez dakit ba zenbat gai,
batzutan nahiko serio eta
beste batzuetan alai,
Txiplas honuntza etorri arte
jaiak ez diradela jai,
holako eskerrak ematen zaizka
herria maite duenai.
- J.M.Areitio: Herria maite dutenak preso
goitik datozen ordenak,
horretzek dira gaurko legeak
eta lege nabarmenak,
horregaitan sentitzen doguz
gure nahigabe ta penak,

kartzelan preso sartzen dituzte
herriko semeik onenak.

M. Arozena: Nahiz batzuk preso oraindik hemen
badago nahiko arnasa,
nahiz ta batzuk han egote hori
guretzako hain dan latza,
baina bizia urte askotan
ezin da izan garratza,
laster gurekin izango dala
nik badaukat esperantza.

H.Lopategi: Jaietan ere izaten dira
jakina hainbeste pena,
ta gure Jabi han sartu eben
kartzela baten barrena,
baina burruka aurrera doa
ez galdu itxaropena,
geuk egin behar izango dogu
orain hark ezin dauena.

MARKINA-XEMEIN (Amallo) (1994-06-24)

Bertsolariak: Amuriza eta Egaña.

Gaijartzailea: Jose Mari Lejardi "Gabixola"

Bertako ermitan arratsaldean hasi zen bertso saioa. Ehunen bat entzule inguratu ziren, jai giroan, bi bertsolari hauei entzutera.

Gaia: Bi txapeldun ditugu, lehen piska bat pikean ibili dira, baina orain bakoitzarentzat bestea zer den azalduko digute bertsolaritzan, birtuteak eta hutsuneak.

Neurria: 6 puntukoa

Doinua: Esateko ez naiz lotsa

Amuriza: Behar da hasi ta segi
begiratzuz alkarrerri,
zer erretratu egingo dautzat
Egaña honeri,
abilidade gehiegi,
hor dabil beti igeri,
hutsuneak be eukiko ditu
baina etxakoz ageri.(bis)

Egaña: Nola esan sei lerrotan
ehoa nere errotan ?
nik Amuritz maitasun neukan
gainera askotan,
San Juan inguru hontan
behin entzun nuen bertsotan,
maiteminduta erori nintzan
gure izarraren besotan.(bis)

Amuriza: Horrek daukan fantasia,
nitzat zelako grazia,
ez al da egongo laguna koipe
emoten hasia?
Txapela irabazia,
ta nigandik ikasia,
izar bategaz maiteminduta
gero egin da galaxia.(bis)

Egaña: Aitan bertsoen artea,
hura zen saio betea,
bertsolaritza ordudanikan
izan dut maitea,
ez da errez esatea,
aitortu eta pakea,
zuri entzunaz erabaki nun
bertsolari izatea.(bis)

Amuriza: Irudimena nabari,
zorrotasuna ugari,
eta begira zer piropoa
bota dauztan niri!
Kolorea daukat gori
ahal da hainbat kategori?
bi txapel baino askoz gehiago
eskertzen dot aitor hori.(bis)

Egaña: Aitortu dut azkenean,
hala egin dut gehiengan,
"Nor dezu maisu" galdera inoiz
egin dutenean,
jarrai natzaio lanean,
maiteminduen planean,
ta hutsunerik ez da ikusten
maitemintzen geranean.(bis)

USURBIL (1994-07-02)

Bertsolariak: Esoain, Sukia, J.M.Lopez, Lujanbio eta Munduate.
Gaijartzailea: Bota Punttuba bertso-eskola.
Aurkezlea: Inaxio Usarralde.

Santixabel jaietako jaialdi nagusia. Jai batzordeak antolaturik Udalaren babesean. Gaez pilotalekuan eta sarrera doan: 500 entzule. Kale ertzetan jendearen marmarra entzuten zen eta tarteka bertsoaren kontzentrazioa galduarazi egiten zuen.

Esoain - Lujanbio

Gaia: Maialen itsasoan igeri zabiltzala ia ito zara, baina ez zaizu inor ere etorri laguntzera eta azkenean justu-justu atera zara zure kabuz. Zure kexa adierazteko sokorrista lanetan zebilen Ibairengana jo duzu, eta prismatiko eta guzti topatu duzu.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Lujanbio: Fundamenturik ez dagoela
hemen argi nabari da,
Orion gure hondartza ez dago
komeni zaigun neurrira;
zenbat litro ur sartuko dira
tragoz nere eztarrira?
zu bitartean egongo zinan
bikini'n bati begira.(bis)

Esoain: Gaizki daudenak ateratzea
horixen da nere lana,
ta gaurkoz ere hori egitea
izan da neronen plana;
arrazoi dezu, aizu Maialen!
hori da egin dedana,
bainan halare nik ez det kulpik
zu itsusia izana.(bis)

Lujanbio: Ni itsusia omen naiz eta
aitzaki hori atera,
inundik ere hori izango da
neronenzako kaltera;
hain sokorrista eskasa dena
bialdutzea hobe da,
bakar-bakarrik apuntatzen da
"boca-boca" egitera.(bis)

Esoain: Ez da egia jakin zazute
gezurra esan duela,
horrelako bat ikusirikan
ez naiz jarriko horrela;
ikusi zaitut mitxelin hoiak
buelbaka zenituela,
ta pentsatu det laguntzarikan
beharko ez zenuela.(bis)

Lujanbio: Bere burua salbatu nahi du
nere mitxelinen truke,
sokorrista on behar dun batek
behar du nahiko bertute;
ni bertan itto nintekenikan
zuk ez al dezu ba uste?
Eta gaitzerdi mitxelinetan
haizia baldin banuke.(bis)

I.Esoain: Orain'e neri tokatu behar
horrelakoak aitzea,
aizu Maialen hobia dezu

orain haizia hartzea;
gaixki zeundela ikusi arren,
pentsatu det lagatzea,
horrela inoiz ez zain pasako
alperrikan bizitzea.(bis)

MUNGIA (1994-07-02)

Bertsolariak: J.Lopategi, Larrañaga, Murua, Gorrotxategi eta M.Arozena.
Gaijartzailea: Bernardo Mandaluniz.

San Pedro jaien barnean antolatu zen saio hau; gauzez egin zen, polikirildegian, 200en bat entzuleren aurrean.

J.Lopategi

Gaia: Mungitar ospetsu bat aipatu gura geunke eta beran esan bati bertsoak bota. Esteban Urkiaga "Lauaxeta". Beste abertzale batzu bezala afusilatua izana. Mendigoizaleen olerkiaren azkenak honela zioen: "Dana emon biar jako maite dan askatasunari".

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Oi laborari gaixoa

J.Lopategi: Libre nahi doguz gizonak eta
herriak eta kabiak,
batzuek hortan fin-finak dira
beste batzuek nagiak,
baina jarraituz Lauaxetaren
erakutsi nabariak,
aberriari dana emon eutsen
hil jakusen gudariak.

Ez dakit gure bideak diren
okerrak edo zuzenak,
dana emotera sakatzen gaitu
askatasunaren senak,
nahiz ta hemen ezin agertu orain
diren guztien izenak,
aberriari dana emoten
dautse preso dagozenak.

Tristeia dogu bakea nahi ta
burruka itxi ezina,
baina zintzoak zintzoki bete
behar dabe bere zina,
behin honez gero libre legoke
gure Euskadi atsegina,
abertzaleok dana emoteko
gertu izango bagina.

AMOROTO (1994-07-03)

Bertsolariak: Sorozabal, Iturriaga, Peñagarikano, Ibarra, Egaña eta J.Sarasua.

Gaijartzailea: Jose Luis Anakabe.

Arratsaldeko bertso saioa herriko frontoian. 800en bat entzule. Antolatzaile Lekeitioko bertso eskola eta babesle Udala. Saioaren motiboa: Aita Santi Onaindiari herritarren omenaldia.

Sorozabal

Gaia: Uztailaren 17an ikurrinaren ehungarren urtehurrena ospatzen denez, kantaiozu ikurrinari. (Aurrean Amorotoko ikurrin zahar bat zeukaten).

Neurria: 10ko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Sorozabal: Ikurrinaren irudi hori
denok dugu gogokoa,
esan nahi baitu Euskal Herriko
ikur ta logotipoa,
ikurrin asko dago gaur egun
bertso baten antzekoa,
batzuk itxura bikaina bainan
esanahirik gabekoa,
eta hau berriz itxura txarra
baina esanahi haundikoa.

Ikurrin hori jaso zuenak
igual ez zuen espero,
gaur egunean izango zunik
hainbat euskaldun bezero,
traste zaharrak jaso beharrak
sortzen du hainbat endredo,
baina garaian detaileren bat
norberak izanez gero,
inoiz ez dago esaterikan
zer balioko dun gero.

Ehun urte dira ikurrin hori
jarri zutela aidean,
oraindik ere ez da ikusten
hori galtzeko bidean,
azken aldian zeremonia
pranko badugu tartean,
nahiago nuke iraungo balu
behintzat beste ehun urtean,
gutxi edo asko, iraungo du bai,
denok nahi dugun artean.

LESAKA (1994-07-08)

Bertsolariak: Elizagoien, J.Sarasua, Lujanbio, Iturriaga, Egaña eta S.Lizaso.
Gaijartzailea: Manolo Arozena.

Gaueko hamaikak jota hasi zen saioa herriko frontoian, 500 entzule ingururen aurrean. Arrano Elkarteak antolatu zuen San Ferminak zirela-eta.

Elizagoien - S. Lizaso

Gaia: Garai batean oso lagunak izan zineten, eskolako garaian. Baina biziak oso aldatu du zuen bidea. Hi Sebastian oso gizon aberatsa haiz. Hi Bittor eskalea haiz. Gaur hik Mercedesak aparkatzen duan lekuan Bittor aurkitu duk lo.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nere gogoan hegan dijoa

S.Lizaso: Lagun ginenak gu orain gaude
 uste ezta trantzean,
 ustegabe hor bilatu haut
 erdi lo kale ertzean,
 nunbait bizitzak ez hau tratatu
 merezi huen antzean,
 altxa hortikan lo egitera
 sartu hai nere kotxean.

Elizagoien: Zaku batekin kalean nabil
 ez naiz umore beruan,
 merzedesakin adarra jotzen
 al zabilta zu onduan?
 igual ez nintzen egongo hemen
 orain nagoen moduan,
 garai batean zuk aina diru
 lapurtu izan banuan.

S.Lizaso: Lagun nuena mintzatua zait
 zitalki bezain serio,
 ni aberats ta hau diru gabe
 baina zer egingo zaio,
 haizak laguna bizibidea
 aldatu ezak propio,
 dagon tokitik hartu behar dik
 eskeak ez dik balio.

Elizagoien: Nere ustetan zuzen zuzena
 daramakit nik bidia,
 lapurtu gabe esketik nola
 lortzen duten nik ogia,
 zu bezain garbi bizi naiz hemen
 esaten dizut egia,
 muturra daukat zikina bainan
 kontzientzia garbia.

S.Lizaso: Hik neretzako desafioa
soilik daukak mingainean,
gaizki esaka eraso didak
eskeintzaren ordainean,
arrisku latza jokatzek dek hik
utzi nahi haut jakinean,
mugitu edo nahiko lora duk
hilobiaren gainean.

Elizagoien: Nere barruan eduki arren
hainbat gose eta laino,
oraindik behintzat ez naiz joango
hemendik hilobiraino,
orain bezela jarraituko dut
oraindikan oraindiano,
horrela bizi nahiago baitut
besteren kontura baino.

Elizagoien

Gaia: Herriko bertsolari gazte batek bertso bat kantatuko du, noizbait zuk kantatutako bertso bat.
Hori izango da zure gaia. (Bitorrek aita hil berriari botatako bertso bat kantatu zuen gazte
batek, txapelketan "negarra" hitza bertsoa bukatzeko jarri ziotenean).

Neurria: 10ko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Elizagoien: Mikel Tabernak negarra hitza
eman zuten momentuan,
gora begira aita zenari
hasi nitzaien kantuan,
isilik ezin nintzen gelditu
txapela zegoen jokuan,
nahiz txalo asko entzun nuen nik
bertsoa botatakuan,
nahiago nuen aita zureak
entzun izan banituan.

Neretzat beti zu izan zinan
usai goxoko larrosa,
amultsoa ta bihotz goxoa
ez gogorra ta zorrotza,
gau triste hartan iritsi zaizun
zuri ere heriotza,
nahiz ta txapela aurten nik jantzi
kezketan daukat bihotza,
bizi zinala ez nizula eman
nere txapelaren poza.

Presarik ez dut bainan betiko
ez naiz izango munduan,

zu bezelaxen egunen batez
nik ere beharko juan,
goi hortan zerbait baldin badago
erraten duten moduan,
zeru gainera joango naiz ni
nere txapela buruan,
lurrean ospa ez genuen hura
ospa dezagun zeruan.

Lujanbio

Gaia: Erika lagunak kantatutako bertso bat izan zuen gaia. Bertsoa Maialanek berak Victoria Eugeniean Bertsolari Egunean kantatutakoa zen, neska bertsolariei buruz "gizonezkoen tarta honetan ginda ez degu izan nahi" bukatu zuena.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Eguna pasa nekean eta

Lujanbio: Bertso zahar hori gogoratzea
bada detaile itzela,
esan nahiko zun momentu hortan
efektoik egin zuela,
nahiz uste izan krematik tarta
izatera goazela,
oraindik ere gizonezkoek
partitzen dute pastela.

Dirudienez neska gazteak
ere datozkigu gora,
beraz zeozer egiteko're
moduren bat izango da,
hainbeste urtez gogortu dana
kolpetik ezin mejora,
hiru gauz behar ditugu: lana,
gogoa eta denbora.

USURBIL (Zubieta) (1994-07-25)

Bertsolariak: Sorozabal, X.Zeberio, Peñagarikano eta S.Lizaso.

Gaijartzailea: Iñaki Agirresarobe.

Auzoko Santio jaiak zirela eta egindako saioa. Jai batzordeak antolatutik eta babesle gisa Donostiako eta Usurbilgo Udalak. Gaez izan zen jaialdia eta doan. 400 entzule Errebote plazan. Gau giro aparta eta entzuleak nahikoa farre egin zuen.

S. Lizaso - X. Zeberio

Gaia: Europarantz oporretako bidaia egina duzue. Biak motoz joan zarete bata bestearen atzetik. Zer nolako pasadizoak eta nolako lekuak ikusi dituzuen jakin nahi genuke.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Anai arrebak hementxe nator

S.Lizaso: Aspalditikan ginaden biok
 bidaia baten idean,
 halako batean gure asmoak
 jarri ginuzen aidean;
 ni motoaren aurrean nintzen
 eta hau atzekaldean,
 trailerrak baino traba gehiago (bis)
 egiten genuen bidean.

X.Zeberio: Jantzi genduen kasko haundi bat
 larruzko zenbat erropa,
 esan genduen aurtengo hontan
 pasa behar degu Europa;
 bazkaltzen guk bi txanpain botila
 ta beste hiruna kopa,
 eskerrak behintzat pago arbolik (bis)
 ez gendun bidean topa.

S.Lizaso: Edozein jendek hartuko zigun
 aldrebes parean traza,
 biok batera urrutira heldu
 ez zen langintza erraza;
 hala ta guztiz ez pentsa gero
 estutu zenik arnasa,
 Europa aldera abiatuta (bis)
 mugatik ez ginan pasa.

X.Zeberio: Ai zer puzkarrak gure motoak
 hara aldapan gorakon,
 eskerrak jaunak ibili ginan
 hala etxetikan kanpon;
 gure Lizaso erdi-erditik
 ta besteari hor konpon,

jendea laister baztertutzen zan (bis)
elefantea zalakon.

S.Lizaso: Biok ginaden hondartza baten
zerbait egiteko grinan,
hemen astunak geran ezker
gu ez ginaden arinan;
eta gu biok biluztu ginan
Hendaian plaia ezkinan,
haseran jende asko zen baina (bis)
bakarrik gelditu ginan.

X.Zeberio: Hala ta guztiz pasa genduen
zenbat gora ta beherako,
Hendaian plantatu ginaden gu
hara zenbat horrelako;
Gendarme xahar bat etorri zan ta
bidea zan txirolako,
handik laister bialdu ginuzten (bis)
asko jaten gendulako.

BILLABONA (1994-07-30)

Bertsolariak: Peñagarikano, Egaña eta S.Lizaso.
Gaijartzailea: Mikel Mendizabal.

Herriko festetan, gaueko saioa berdura plazan 300en bat entzulerekin. Antolatzaile udala izan zen.

S. Lizaso - Egaña

Gaia: Billabonak ere badu bere historia bertso kontuetan. Oker ez banago 1801. urtean Zabala eta Txabalategik kantatu omen zuten herri honetan eta 4.000 pertsona bildu omen ziren garai haietan. Hemen dauzkagu: Zabala Lizaso, eta Txabalategi Egaña. Gaur plaza honi begira daude.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Anai arrebak hementxe nator

S. Lizaso: Ez gendun uste gaur Billabonan
berriz bertsotan hasterik,
gaur egunean lan hortarako
baitago jende gazterik,
komeni zaigu lehena eta
oraingoa bereizterik,
gaur egunean ez dute egiten
ordu erdi bat besterik.

Egaña: Guk kantatzeko asmorik ere
ez degu ekarri aurrez,
baina bertsotan hasiak gera
haserrearen haserrez,

bertsolaritan ze alde dagon
sumatu liteke errez,
kartelean lau, kantatzen hiru
ta bertsolaririk batez.

S. Lizaso: Harriturikan ari gerala
garbi aitortu beharko,
beren denboran egiten dute
hauek hamaika holako,
gu historira pasa ginaden
lehen zerbait ginadelako,
oraingo hauek seguru egon
ez diradela pasako.

Egaña: Batzuek jardun egiten dira
besteren batzuk bertsotan,
halare ez da irin berdina
bertsolarien errotan,
gu hiru mila lagun bilduak
gerade herriska hontan,
orain hirurehun biltzen dituzte
ta erdiak erdi lotan.

S. Lizaso: Gure garaian elkarren kontra
ta orain elkarren alde,
nere ustetan kantatzen dute
aldrebes edo zelebren,
eta jendea engainatzeak
ote du hainbeste mesede?
rimatzen eta neurtzen dakite
arrazoirik bota gabe.

Egaña: Gaur eguneko bertsolariak
entzun ditugu akabo,
hoien jarduna gaitzetsi eta
harritu gera zeharo,
orain kontutan ibiltzen dira
ta gu serio lehenago,
boseotikan lutzalibrera
diferentzi bera dago.

S. Lizaso: Oilagorraren tankerakoak
beti du bertso kaxkarra,
ta erdi kalbo dagonak berriz
beti du gaian beharra,
eskerrak batek behintzat badaukan
bere barrenean garra,
hiruretatik bizarduna da
salba liteken bakarra.

Egaña: Arrazoi dezu neronek ere
neukan aitortu beharra,
plakoa degu eskaxa eta

kalboa degu kaxkarra,
hirutatikan batek badauka
bertsolariaren garra,
hirutatikan potoloa da
salbatzen zaigun bakarra.

USURBIL (San Esteban) (1994-08-03)

Bertsolariak: X.Zeberio, Sorozabal, Egaña eta S.Lizaso.
Gaijartzailea: Jose Mari Izeta.

San Esteban auzoko jaiak. Ermita ondoko plazan egin zen saioa arratsaldean eta sarrera borandatezkoa zen. 250 entzule eta plaza beterik aurkitzen zen. Saio motza, arina eta bizia gertatu zen.

S. Lizaso - X. Zeberio - Sorozabal

Gaia: Zeberio apaiza, Lizaso serora eta Sorozabal monagiloa ditugu. Meza hasteko dena prest dago, baina azken momentuan kaliza falta da.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Maritxu nora zoaz I

X.Zeberio: Badet nori hitzegina
ta nori heldua,
oraintxe nago ia
burutik galdua;
meza emateko're
heldu da ordua,
nun degu kaliza ta
nun dago ardua?

Sorozabal: Serora ikusi det
hemen tripa jaten,
zalea da kaliza
etxera eramaten;
alperrik hasiko da
gaur ezetz esaten
elizan ez baitiozu
ardotik ematen.

S.Lizaso: Beraz, ni naiz errudun
dioten moduan,
bainan gezur horrekin
urruti ez jua;
oraindik nun utzi nuen
dadukat goguan,
nik garbi-garbi eginda
hemen gorde nuan.

X.Zeberio. Batek besten aitzakia
egiten du lehenen,
"peromias sekula
seculorum amen"
Gauza garbitu behar degu
ta aguro hemen,
hostiak izango dira
meza hasi baino lehen.

Sorozabal: Apaiza formal zerbait
ein al dezakezu?
Esan dezun horrekin
bildurrez gauzkazu;
kalizik gabe orain
hain larri zaude zu,
bataioko pontetik
edan beharko dezu.

S.Lizaso: Kaliza falta dalako
ari gera teman,
apaizak salduko zuen
hori nik antzeman;
baina zergatik hemen
hartu hoinbeste lan?
Kalizik ez badago
botilatik edan.

X.Zeberio: Apaizak ez du hemen
eingo otoitzikan,
preparatuta nahiz egon
goizen goizetikan;
Sankristaua esateko
ez dezu lotsikan,
botila hor dago baina
hoi ere hutsikan.

Sorozabal: Botilan ardorikan
ez dezu ikusi,
nahiz ta gaur goizaldean
bera izan nagusi;
berriz ekarriko det
erritan ez hasi!
Bialdutzen banauzu
propina ta guzi.

S.Lizaso: Disputan jarraitzeak
ez luke merezi,
erruduna nor degun
garbitzen da hasi;
apaizak trago gehiegi
egin du lehenbizi,
serorari begituta
sankristaua ikusi.

- X.Zeberio Bat alu xamarra da
 iguala bestia,
 baina ez nijua hauei
 pakean uzitia;
 ardo gabeko meza
 izan leike tristia,
 kasikan nahiago det
 eleiza istia.
- Sorozabal: Eleiza isteko're
 orain gertu zaude,
 jendea hasarretu
 liteke abade;
 baina herri hau degu
 taberna askon jabe
 lehen aina edango dezu
 zuk mezarik gabe.
- S.Lizaso: Apaiza dadukagu
 sekulako suan,
 kolpetikan hasi da
 hau amenazuan;
 kaliza txiki xamarra
 genduen kasuan,
 tragoa egiterakoan
 tragatuko zuan.

ZARAUTZ (1994-08-12)

Bertsolariak: Silveira, Irazu, E.Arozena, Maia, Epelde eta Gabilondo.
 Gaijartzailea: Andoni Egaña.

Santa Klarako jaiak zirela eta Azkenportuko plazan egindako gaueko saioa. Sarrera doan, antolatzailea jai batzordea izan zen.

E.Arozena - Epelde - Maia

Gaia: Arozena lesakarra, Maia zumaiarra eta Epelde zarauztarra. Hirurak herri politak eta bereziak, baina zer dauka norbere herriak besteenak ez daukanik.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lehendabizitik

- E.Arozena: Erantzunez gaur hasi beharko
 eskatuez gero horrela,
 lehengo gauz dena goitikan behera
 eroriko da bestela,
 eta horrela nere herria
 goraipatuaz bezela,
 Lesakak gauza eder bat dauka

Gipuzkoakoa ez dela.

- Maia: Herri polita daukagun hori
guri ez zaigu axola,
lehenago ere ezaguna zan
napartar hauen eskola,
baina Estitxuk esan duena
ezin det ahaztu inola,
Zumaiak duen gauza on bat da
Lesaka urruti dagola.
- Epelde: Maiak botea duen bertsoa
ez nuen uste inola,
guk zarauztarrok erakutsia
izandu degu eskola,
berriro ere errepikatu
esandako parabola,
Zumaiak duen gauz on bakarra
Zarautz ondoan dagola.
- E.Arozena: Alde batera utzi nahiean
distantziaren fedea,
norbere herria goraiatzea
agintzen digu legeak,
erreka polit bat dauka eta
etxetxo paregabeak,
ta San Ferminak izaten dira
Iruñan baino hobeak.
- Maia: Ezin gentzake ondo sinistu
zure ahotik entzuna,
zarauztarrari botako diot
orain nere erantzuna,
bietatikan ederra degu
daukagun ikuskizuna,
baina Zumaiak dauka Zarautzek
ez duen lasaitasuna.
- Epelde: Herri kontua aipatutzean
neronen ganorarako,
itxura denez herri bakoitzak
zerbait ona duelako,
festak Estitxuk aipatu ditu
eta erantzun beharko,
han San Ferminak hobeak dira
gu joaten garelako.

BALIARRAIN (1994-08-13)

Bertsolariak: X.Zeberio, J.Sarasua, Mendizabal eta Telleria.
Gaijartzailea: Nikolas Zeberio.

Herriko festetan gaueko saioa, 300en bat entzuleren aurrean. Antolatzaile: Jai Batzordea.

Xabier Zeberio

Gaia: Lehenago obrak eta eraikuntzak aipatu ditugu, eta demagun Xabier nahi hainbeste diru daukazula, gastatu ezin ahala. Zer egingo zenduke Baliarrainen?

Neurria: 6 puntukoa

Doinua: Esateko ez naiz lotsa

X.Zeberio: Frontoi eder bat lehenengo
ta pizina bat hurrengo,
fulbol zelaiak ere ez luke
hain gaizki emango,
putiklub eta lau bingo,
dibertitzeko bai ondo,
ta hoberena inork ez luke
gehio lanikan egingo.(bis)

Badakit hemengo berri,
hau're askontzat pozgarri,
bost aizetara jua ezinik
ehiztariak larri,
hor funikularra jarri,
gurdia atzetik ezarri,
gorakon kartutxoak emanda
behera usoak ekarri.(bis)

Parke polit bat ere bai,
amonak etzanda lasai,
eta aitonak iztar berriak
noiz ikusiko zai,
umeak jolasen alai,
esango dute: "Qué guai!"
beraz Balearrain izango degu
munduko bigarren Hawaii.(bis)

Mendizabal - J. Sarasua

Gaia: Hara hemen bi gazte. Mendizabal neska eta Sarasua mutila. Beste asko bezala oporretan maitemindu egin dira. Neskak, Mendizabalek, erlazio hori oso serio hartu du. Sarasuak, berriz, ez.

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Zer da gaur Donostian

Mendizabal: Oporretan gaude ta
herri askotan jai,
eta biok bagera
maitemintzeko gai,
nik broma gutxi daukat

barruan nolanahi,
nahi nuke serioski
hasi eta jarrai,
bakarra zera eta
ez zaitut galdu nahi.(bis)

J.Sarasua: Udaran lige gabe
ni ezin naiz egon,
irribarre egin nizun
eta zuk jaramon,
geroztik pasa dugu
hainbeste egun on,
ta galdetzen didazu
geroko zer dagon,
garbi esango dizut:
hor konpon Mari Anton!(bis)

Mendizabal: Mari Anton horrekin
hauxen da hau lana,
batere uste gabe
didazu esana,
ametsetako mutil
zera Jon laztana,
nik serio nahi nuke
gure harremana,
ez al dezu sentitzen
nik senti dedana?(bis)

J.Sarasua: Zugar ez nun bilatzen
nik neska laguna,
baizik bakar bakarrik
udako jarduna,
a'ze jolas polita
guk egin genduna,
baina ulertu zazu
entzungo dezuna:
ez da berdin sexua
eta maitasuna.(bis)

Mendizabal: Nik hogei urte dauzkat
berdin da halare,
barrua bihurtu zait
sentimentu jabe,
ta zu jolaserako
prestaturik zaude,
piska bat argitza
ez al degu hobe,
sexua alperrik da
maitasunik gabe.(bis)

J.Sarasua: Hori esatea da
gauza atsegina,

baina ez doa hortik
nere ahalegina,
ni holakoxea naiz
jolasa ta grina,
barkaiezaidazu
emandako mina,
ta bila zazu zure
printzipe urdina.(bis)

Mendizabal: Nere printze urdina
zu zerorri zera,
ta ez zaidazu egin
gaurkoan atzera,
aurrera joateko
badegu aukera,
ez al dezu etorri nahi
nerekin batera,
mutilan alden neskak
serioak gera.(bis)

J.Sarasua: Gure elkarrizketa
ez al da tristea?
gaur etzaigu komeni
gauzak nahastea,
maiteminduta dago
neskatxa gaztea,
baina holako gauzak
hobe da ahaztea,
serioa da gauza bat
tuntuna bestea.(bis)

Mendizabal: Tuntuna izan ninteke
besterik ezean,
baina sentimentua
daukat bihotzean,
ta zu euki nahi zaitut
neronen ertzean,
ta buka dezakegu
gaurko iluntzean,
serio hasi eta
buka jolasean.(bis)

J.Sarasua: Neskaren arrazoian
mila enbarazu,
zurea bakarrikan
konprenitzen dezu,
azken bertsoan behintzat
egidazu kasu,
zahartzean serioa
izango zera zu,
gazte zeran artean
aprobetxa zazu.(bis)

GABIRIA (1994-08-14)

Bertsolariak: S. Lizaso, Egaña, J. Sarasua, X. Zeberio, Loidisaletxe II eta Goiburu.
Gaijartzaileak: Iñaki Murua eta Ibon Legarreta.

Gaueko saioa herriko festetan bertako frontoian, 500en bat entzulerekin.

Loidisaletxe II

Puntua jarrita:

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Aranora joan ziran

I. Murua: Errezilen zer moduz
dabiltza akerrak?

Loidisaletxe II: Nahikoa gozatuaz
ahuntzari eskerrak,
pasatzen dizkiate
momentu ederrak,
gero azaltzen dituk
eindako okerrak.

GOIZUETA (1994-08-16)

Bertsolariak: Egaña, Iturriaga, E.Arozena eta Lujanbio.
Gaijartzailea: Inaxio Usarralde.

Herriko jaietako bertso saioa, Udalaren babesaz Jai Batzordeak antolatua. Gauez eginiko saioa eta sarrera doan. 300 pertsona bildu ziren herriko pilotalekuan. Saioa bero hasi zen baina piskanaka-piskanaka hozten joan zen.

Lujanbio - E. Arozena

Gaia: Goizuetako erreka bi amuarrain zarete. Txundituta zaudete jaiak hasi zirenetik ikusitakoak ikusirik, erreka ertzean zer pasatzen ari den hain zuzen.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lehendabizitik

E.Arozena: Beti bezala kanping dendeekin
jende asko dago aurten,
eta gu beti erabiliaz
gorputzak garbi ditzaten;
zikinkeria uzten digute
lotsik ez die ematen,
badaezpada jendeak ez du
gure uretik edaten. (bis)

Lujanbio: Kanping hortako jende gazteak
ez dira oso bapoak,
ez dira bate txukunak eta
bate errespetozkoak;
gaupasa batez taberna hauetan
tragoak eta jokoak,
gero errekan bota zituzten
Goizutan edandakoak.(bis)

E.Arozena: Nik ezin dut gaur ezer sinetsi
jende horien klasean,
eta ezin dut ezertxo egin
hoien kaka usaitzean;
nahiz orain arte bi amurraiak
gauden kristoren trantzean,
itxoin ezazu! ostegunean
"peña"koak etortzean.(bis)

Lujanbio: Erreka lehen garbi zegola
aspaldian banekian,
ze zikinkeri jaso ditugun
festa hoien aitzakian;
gazte jendea, denak balantzan
ez hain modu egokian,
ta hor bertan lo gelditzen ziran
eseritako tokian.(bis)

E.Arozena: Dirudienez bildutakoak
ez dira oso tontoak,
zikinkeria utzitzeaz gain
ai horrelako topoak,
goseak ere hiltzen dituzte
holako mutil guapoak,
okerrago da etorri gero,
arrantzale ustekoak.(bis)

Lujanbio: Zazpi ta zortzi egoten dira
hiruntzako duten plazan,
jende ezagun dexente ere
ikusi nuen balantzan,
ta bat Estitxu Arozena zan
hor egon nintzan zalantzan,
hemen etxia badauka baina
ez dakit zerta jua zan! (bis)

BIDEGOIAN (Goiatz) (1994-08-20)

Bertsolariak: Peñagarikano, Egaña, J.Sarasua, X.Zeberio eta Arzallus.
Gaijartzailea: Sebastian Lizaso.

Herriko jaietan jai batzordeak antolatutako saioa. Gaueko hamaiketan hasi zen eta 500 entzule edo bildu ziren frontoian. Saioa doanekoa zen, baina bukaeran poltsa pasa zen.

Arzallus - J. Sarasua

Gaia: Sarasua, zu Goiazko Agerre baserria zaitugu, Jexux Arzallusen jaiotetxea. Hainbat denboran elkar ikusi gabe egon, eta zuen arteko lehenengo elkarrizketa.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nahiz ta hiltzea derrigorra den

Arzallus: Aterpe hontan sortu nintzan ni
eguzkiaren argira,
eta metroko elurak ere
hemendik pasatu dira,
iparraldetik ere sarritan
egoten nintzan begira,
nahi ordurako ez naiz iritsi
jaio nintzan basarrira.

J.Sarasua: Urte askoan hainbeste ume
nitun barruan ugaldtu,
halako baten mutil ihar bat
etxe ingurutik galdu,
urte mordoska pasa da eta
berriro zera azaldu,
nere ateak inoiz ez dira
horren gustora zabaldu.

Arzallus: Hemen pasatzen nun igandea
ta baita ere astea,
hemen gertatu zen ni bezela
hamar senide haztea,
zoritxarrean gertatu bazen
ni urrutira juatea,
berriz etorri naiz eta honek
zabalik zeukan atea.

J.Sarasua: Txikitan ondo aztertu zendun
nere aurre ta atzea,
gero arrazoi haundi batekin
tokatu zen urruntzea,
esaten zuten zuk nahi zendula
zeurea defenditzea,
gaur esker honez zabalik dezu
zure amaren etxea.

Arzallus: Senide denen aterpe zinen
ganadu askoren larre,
oraindik ere zutikan zaude
zorioneko Agerre,
behin behar eta beso zabalik

hartua nauzu zuk gaur'e,
zu izan ezik Arzallus hau're
ez zen izango ezer'e.

J.Sarasua: Oraindik ere gogoan daukat
famili haren garaia,
eta berriro hemen biltzea
da teilatuaren nahia,
egun haundia izanagatik
ez da zeharo alaia,
zu ikusita pozten naiz baina
nun da falta den anaia?

Arzallus: Gaur arratsean iritsi eta
pozik egin dizut usai,
eta luzaro hola izatea
besterikan ez nuke nahi,
bota didana entzunda daukat
bihotza dardarka ta blai,
hura ere noizbait etorriko da
zaude Sarasua lasai.

J.Sarasua: Hainbat urteko etxe zahar batek
daki zer dan lasaitzea,
baina habeek ez dute ulertzen
urruntzearen trantzea,
nik nahi nukena berriro denok
barruan kantuz biltzea,
eta orduan izango naiz ni
egi-egizko etxea.

BILBO (94-08-21)

Bertsolariak: J.Agirre, M.Arozena, Mañukorta eta J.Azpillaga.
Gaijartzailea: Joxin Iturrioz.

Eguerdiko ordubateko saioa Bilboko aste nagusiaren barruan Santutxuko bertso eskolak antolaluta. Santiago plazan 300 ikusleren aurrean, sarrerarik gabe. Babesle BBK. Saio arina eta atsegina, eguzkipean izerditan. Soinua oso txarra.

J.Agirre - J.Azpillaga

Gaia: oxe Agirreri kalte egin zion atzo gaueko jatetxeko afariak. Eritetxean pasa duzu gaua eta goizean Jon etorri zaizu, jatetxeko nagusia, bisita egitera.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nere gogoan hegan dijoa

J.Azpillaga: Kliente ahula etortzen bada
hori nere kalterako,
gure etxean lagun Orandak₁

bazkaldu izan zun bapo,
zazpi amorrai jan zituen da
gainetikan bi oilasko,
nere errua ez da izango
gehiegi jan zendulako.

J.Agirre: Adiskidea oker hori ez da
ez gehiegi jandakua,
leku ederrean gerau behar du
zure etxe sonatua,
bere lagun bat hemen utzi du
ia ia akabatua,
lagun itxuran atzo eman zidan
afari benenatua.

J.Azpillaga: Perretxikuak ere jan zitun
oliuakin bustia,
pozgarria zan gosea zeukan
eta jaten ikustia,
kafe ta kopa hartu zituen
berdin jan zuen postria,
orain kejatzen hasi da baina
debalde izan zan guztia.

J.Agirre: Bedalde izan zan baina hala ere
neretzako da okerren,
ez nuen asko pentsatu ordun
zer ondorena zekarren,
kankailu honek bere laguna
hil nahi ahal duen azkarren,
bertsotarako kontrario bat
gutxio izatearren.

J.Azpillaga: Afalondoan ikusi nuen
zeukan kolore berdia,
notibo asko ez zeukan baina
irten zion izerdia,
medikuari keja ematen
orain honen pikardia,
hurrengo etortzen zeran orduan
emango dizut erdia.

J.Agirre: Beraz oain ere egin didazu
hurrengorako eskeintza,
izanez ere hainbat urtean
gu alkarrekin gabiltza,
baina itxuraz sendatzen bazait
neri urdaileko gaitza,
berriz ez nazu harrapatuko
alper-alperrik zabiltza.

1 Oranda: Joxe Agirrereren izengoitia.

BILBO (1994-08-23)

Bertsolariak: S.Lizaso, Arzallus, Respaldiza, Elizagoien eta Z.Enbeita.
Gaijartzailea: Joserra Bilbao.

Bilboko Aste Nagusiaren barruan Santutxuko Bertso Eskolak antolatutako saioa, beti bezala Santiago plazan eguerdiko ordubatean.

Z.Enbeita - Respaldiza

Gaia: Arabarra eta Bizkaitarra zarete. Noiz arte giputzak nagusi bertsolaritzan?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lehendabizitik

Respaldiza: Aspaldi samar ete gagozan
 Gipuzkoaren esklabo,
 ito-itoan euren azpian
 egiten dogu akabo,
 baina horrela ezin leiteke
 hemen segitu luzaro,
 horreiri palo emon ezean
 zer eginikan ez dago.(bis)

Z.Enbeita: Euskera asko hitzegiten da
 horregatik izango da,
 baina beheruntz egiten ohi du
 lehenago doana gora,
 aprobetxatu dezaten orain
 duten sasoi ta denbora,
 laster Araba pasako baita
 lehendabiziko planora.(bis)

Respaldiza: Araba aldea gora doa ta
 badago nahiko anparu,
 horrexegatik beste guztiok
 itxi dogu euren kargu,
 esperantzea badako eta
 hau esaten dut ondradu:
 Zigorrek Sebas tapatzen badau
 salbatu behar gara gu.(bis)

Z.Enbeita: Beraz Juanjo antza zuk duzu
 Sebastianen ikara,
 aizu laguna oraingo gauza
 ondo demostrau behar da,
 euki ezazu kontutan gorantz
 badijoala Araba,
 ta Alabesakin gu igo baietz

laster baten primerara.(bis)

Respaldiza: Euren aldean gu baju gagoz
behar dugu ametitu,
sarri askotan horreik gaitue
bertso lanean zatitu,
aurrerantzean inbasinoa
gure badugu gelditu,
Ermu aldean aduana bat
betiko itxi ta kitu.(bis)

Z.Enbeita: Beraz muga bat bertan jartzea
oraindik geinke aproba,
baina horrela gure bidea
inoiz ez da juango gora,
demostraukogu hobeak gara
hori ziur izango da,
edo bestela patatazoka
botakoguz itxasora.(bis)

ARRASATE (Uribarri) (1994-08-24)

Bertsolariak: S.Lizaso, Mañukorta, Egaña eta Sorozabal.

Gaijartzailea: Nikolas Segurola.

Arrasateko Uribarri auzoko jaietan gaueko hamaiketan. Doaneko saioa izan zen eta bukaeran txapela pasa zen. Jai Batzordeak antolatu zuen eta 500 bat entzule egon ziren, ez denak behar bezain adi.

Mañukorta - Sorozabal

Gaia: Saio honen aurretik bi hauek afaltzen ari zirela telefonoz deitu dio andregaiak Jokin Sorozabali. Hura telefonoan zen bitartean Gregoriok bien afariak jan ditu.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Minberatu zaizkigu

Mañukorta: Sarri gertatutzen da
gure historia,
alkarrizketa zendun
oso dotoria,
jan eta jan guztia
hemen eroria,
gaurkuan nik jan bai det
bion afaria.

Sorozabal: Hemen ari ginan gu
mahaien jarriz,
Mañukorta zegoen
gose ta egarriz,
ni joandakoan denak
jan dituk pikardiz,
noiz afaldu huen hik

azkeneko aldiz?

Mañukorta: Hamaika gose-egarri
munduan pasiak,
honelako batzuei
gaurkuan graziak,
hauek nola etziran
gaur jan itsusiak,
gaurkoz kendu dizkiat
asteko gosiak.

Sorozabal: Goseak etorri da
hori nabarmena,
baina halare dago
eder ta gizena,
neri egin didana
ez ta hain zuzena,
afaria bai gendun
hemen erdibana.

Mañukorta: Hizketara juanda
ari eta ari,
"te quiero" esanakin
bere lagunari...
Ondo jan eta eran
ederra da hori,
gosiak gelditu haiz
izorratu adi!

Sorozabal: Mañukorta hau degu
harro ta trastea,
baina ez pentsa denik
dena ez-ustea,
berdintsu zait afari
guztia uztea,
afaria galdu det
baina ez bestea.

BILBO (1994-08-25)

Bertsolariak: O.Enbeita, Azula, Lujanbio eta E.Arozena.
Gaijartzailea: Xiomara Gezuraga.

Santutxuko Bertso Eskolak Bilboko Aste nagusi barruan antolatutako saioa, nesken artekoa. Eguerdiko ordubatean hasi zen Santiago plazan, hasieran entzule gutxi bazuten aurrean, minutuak pasa ahala jendetza bihurtu zena (300 inguru). Orokorki motel samarra izan zen saioa, hainbat bertso on entzun bazen ere.

O.Enbeita - Azula

Gaia: Zuek biok goizaldera egoten diren tren berezi horietariko bat hartzera zoazte, gau osoa Bilbon aspertuta pasatu ondoren. Azken unean, trena iristear denean, Mirari mutil batekin ligatzen hasten da.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

O.Enbeita: Jai guztietan goizalderaino
aritu gara penetan,
mutil bat ere ez zenun biltzen
eta zu zeunden kezketan,
mutilak nola aurkitzen dozuz
bagoiaren izkinetan,
ligatzea ere hain txarra ez da
baina ez momentu honetan.(bis)

Azula: Gaurko gau hauxe ondo pasatu
horixe genuen meta,
eta inola ezin itzali
Mirarik behintzat arreta,
mutil honekin ondo pasatzen
nola nik daukadan beta,
gelditu eingo naz honako aukerak
ezin dira galdu eta.(bis)

O.Enbeita: Holakorikan zugandik behintzat
nik neuk ez nuen espero,
sartu gaitezen gu tren barrura
aspertu naiz honezkero,
mutil batekin ligatu nahirik
aritzen bazara bero,
tikeak saltzen ditunarekin
ligatuko zaitut gero.(bis)

Azula: Denok dakigu oraindik ere
gu biok garela gazte,
eta badakit ni zuregandik
erabat naizela aske,
berriro diot gelditu eingo naiz
Oihane ez izan peste,
trenean sartuta bakarrik ere
ederto joan zintezke.(bis)

O.Enbeita: Trenan barruan ligatu nahirik
ibil ninteke oparo,
nik zuk bezala itxoin beharrik
ez dut izaten luzaro,
hitzen jokoan hasi behar naiz
horretan ere naiz mago,
egia esan Mirari lagun
tren baten moduan nago.(bis)

Azula: Orain piropo hori botatzen
izan duzu nahiko asti,
eta nik ere erantzun behar

gutxiago ez naiz noski,
nire atzetik zortzi dabilta
ta zure atzetik zazpi,
Oihane beraz itxura denez
zu ere ez zaude gaizki.

HONDARRIBIA (1994-09-03)

Bertsolariak: Egaña, Iturriaga, J. Sarasua, Lujanbio, Ibarra eta Telletxea.
Gaijartzailea: Estitxu Arozena.

Gaueko saioa herriko festetan kofradian. 300en bat entzule hurbildu zen bertsolariei entzutera. Jaialdi ordaindua. Antolatzaile jai batzordea.

Lujanbio - Ibarra

Gaia: Iratxe hiru urteko ume bat da eta udara osoa pasa du ikastolara joan nahi duela esanez. Gaur iritsi da joateko ordua eta negarrez hasi da. Maialen, bere ama, kontsolatzen saiatzen da.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lehendabizitik

Lujanbio: Nahikoa lata eman diazu
zure ikastolarako,
liburu eta jantzi berriak
dotoretu zaitut bapo,
orain negarrez? Ixildu zaitez!
bota dezu malko nahiko,
edo ez zaitut ikastolatik
gauera arte aterako.(bis)

Ibarra: Orain artean erabili dut
nik ez dakit zenbat treta,
ikastolara iristea zen
lehendik jarria nun meta,
hona iritsi eta beldurra
ama, emaidazu beta,
gauza berriek beti beldurra
ematen didate eta.(bis)

Lujanbio: Hiru-lau urtez ume txikiak
badira nahiko trastiak,
lan ematen du mukizu hauei
zeozer erakustiak,
penarik gehien nei ez dit eman
bera negarrez hastiak,
okerrena da negarrez jarri
ditula beste guztiak.(bis)

Ibarra: Beraz esan du: "Etorri da hau
hona negar egiteko",

ikastolara helduta ez nago
zuen ondoan ederto,
etxean ere egongo nintzan
ni behintzat askoz hobeto,
behintzat badaukat ahalmen piskat
besteak konbentzitzeko.(bis)

ZARAUTZ (1994-09-03)

Berrogei bertsolari gaztek hartu zuten parte 94ko Lizardi Sarian. Saio hau Zarautzko frontoian izan zen, kanporaketa arratsaldeko bostak inguruan eta finala 10etan. Unai Agirrek eraman zuen txapela eta bigarren Aitor Mendiluze gelditu zen. Epaimahaia Pello Esnal, Nikolas Zendoia eta Rufino Iraolak osatu zuten. Aurkezle lanak Arantza Laskibarrek egin zituen.

U.Agirre - Epelde

Gaia: Epelde, herriko okindegiko nagusia haiz, herriko kontu guztiak jakiten dituen. Eta Agirre berriz herriko ileapaindegikoa. Noizbait egokitu zaio Epelderi ere, hobe berandu inoiz ez baino, ileapaindegira joatea.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Praixku Galtazarreta I

U. Agirre: Nere abildaderik
ezin det ezkuta,
honek negozioirik
egiten ez du ta,
iliak tente eta
bekainak beztuta,
horrela zerbait gehio
salduko dezu ta.

Epelde: Garaia zan horretan
beinepein jausteko,
horregatik ilea
moztean hasteko,
esan nahi dizut horrela
ta ez nahasteko,
rape moztu zaidazu
gero ez mozteko.

U. Agirre: Lagun ez naiz jarriko
orain zure kontra,
nik rapera moztea
ez bait zait inporta,
horregatikan orain
zuk ni ez gorrota,
ogietan bait dabiltz
zorriak saltoka.

Epelde: Ile luzearekin
 nahiko enbarazu,
 hargatik ondo mozteko
 egin dizut kasu,
 lehen baina askoz ere
 hobe jar nazazu
 ta modu onenean
 egin ezaidazu.

U. Agirre: Erakutsi behar det
 orain nere maila,
 eskatu dezun era
 nahi bait nuke alla,
 horretan ere badet
 nahiko abantaila,
 zu hobeto uztea
 ez da oso zaila.

Epelde: Bezeroak zaintzeko
 hau modu txarrena,
 orain jasan beharko du
 bere ondorena,
 hemendik juatea
 litzake onena
 eta makinarekin
 moztuko det dena.

ZIZURKIL (Elbarrena) (1994-09-08)

Bertsolariak: J.Enbeita, U.Agirre, Irazu eta Mendizabal.
Gaijartzailea: Jon Garmendia "Txuria"

Elbarrenan auzoko jaiak zirela eta jai batzordeak antolatutako saioa, Udalak babesturik. Joseba Arregi Enparantzan. 200 entzule. Sarrera doan. Jendearen marmarra entzuten zen tarteka, baina saioak bere une dotoreak ere izan zituen.

Irazu

Gaia: Hiru bertso botatzeko gai hau jarri zion aurrerago U.Agirrerri: Gauean festa eginda eguerdiko hamaiketan iritsi zara etxera eta atea ireki orduko amaren aurpegiarekin egin duzu topo. Honela esan dizu: " gaur ere ardoz lepo eginda zaude, seme! ". Agirrerren bertsoen ondoren honela galdetu zion gaijartzaileak Irazuri: Amak zer dio erantzuna entzutean?

Neurria: 10ko nag.
Doinua: Santa Barbara zure bizitza

Irazu: Zazpiak arte bapo antxian
 ni egon naiz hor logelan,
 eta zu berriz, traguak hartzen

"Zintzarri-n" edo bodegan;
egia esan bietatikan
normalki, hobena zer dan,
galtza barrenak ere bustita
dauzkazu ate sarreran...
Zein haur polita egin zintudan
ta zenbat narrastu zeran.(bis)

Hemeretzi urte eta soltero
laister sartuko da apez,
ta lagun on bat bilatu arte
amak eman behar babes;
berandu irten ta goiz etorri
hau dabil nahiko aldrebes,
galderatxo bat egingo dizut
eta erantzun mesedez:
mokau goxorik probau al dezu
edo edan besterik ez?(bis)

Ondo dakigu gaurko gazteen
ibilera zein txarra den,
heuren osasun guztia ere
izorratuaz nabarmen;
ta ama berriz ezin sufritun
derrigorrez dago hemen,
ikusten zaitut zutikan egon
ezinean nola zauden...
Dutxatik pasa ta segi ohira
aitak ikusi baino lehen.(bis)

Mendizabal

Gaia: Bost egun iragan dira Alcalá-ko espetxean gose grebari ekin zeniotenetik. Gaur, zure lau urteko alaba etorri zaizu bisita egitera eta honela esan dizu: " Zergatik aita? "

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Orain bertsotan hasi nahi nuke

Mendizabal: Ez da ederra barru honetan
bizi degun egoera,
lau urtetako alabatxoai
esplikatu behar gainera;
eta zergatik nengoen hola
egin didazu galdera,
zu justiziaz ase zaitezen
gose greban hasi gera.(bis)

Ez ikaratu ta ez bildurtu
hemen alaba maitea,
geure gogoz ta borondatez
nahi degu hola egotea;
harri izkutuan jarri beharra
zegoen gure suertea,

gaurko gosea izango baita
biharko ase betea.(bis)

Denboraldi bat igaro behar
modu honetan honela,
gure burruka eta bidea
ezin ziteken bestela;
bainan pentsatu alaba maite
laister juango naizela,
eta orduan proba nahi nuke
zuk egindako pastela.(bis)

ELORRIO (1994-09-09)

Bertsolariak: J.Lopategi, Gaztelurrutia, Murua, S.Lizaso, I.Elortza eta Iturriaga.
Gaijartzailea: Joxemari Lejardi "Gabixola".

Elorrioko Ikastolak "Ikastola bizirik" kanpainaren barruan antolatutako saioa. Arriola aretoan egin zen gaueko hamar eta erdietan 500en bat entzuleren aurrean. Saio ona izan zen orokorrean, jendea gustora gelditu zen behintzat. Aretoa ia beterik zegoen, giro beroa. Mikroek huts egin zuten zenbait kasutan.

Gaztelurrutia - Murua

Gaia: Iñaki Murua irakaslea dugu eta Beñat iaz zure ikasle izandakoa. Iazko kurtsoa suspenditu egin zenuen zuk, Beñat, ez dakigu zergatik. Aurtengo kurtsoa hasi aurretik topo egin duzue Elorrioko festetan.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin Berriotxoarena

Gaztelurrutia: Iazko urtean egin zenidan
nahiko faena galanta:
klase denetan zigorrak eta
jolas orduan zarata,
ta penkoekin egin nuen nik
nere etxerantza hanka,
aurtengoan be maisu izatea
besterik etxatan falta!(bis)

Murua: Astelehenetan beti joaten da
erdi lo aho zabalka,
lagunarekin bertso kantari
atzean zeinek aguanta?
gainera klase erdian jaten
bokadilotzar galanta,
aurtengoan'e zu nere ikasle
besterik etxatan falta!

Gaztelurrutia: Hainbesterako etzan izango
nik euki nuen kondukta,
egin zenidan faena hori

orain ez daukat ahaztuta,
ta hobe duzu ospa egitea
trago pare bat hartuta,
zeren badakit nun utzi duzun
kotxea aparkatuta.(bis)

Murua: Etorri eta mehatxuz hasi
hoixe behar nuen oraindik,
gaurko ikasle mutur zikinok
jartzen dira gure gaindik,
kotxea pintxau edo raiatu
eingo didala urrundik,
zuk kotxerikan ez dezu baina
zerbait moztuko dizut nik.

Gaztelurrutia: Astakeria handiagorik
ezin zenezaken esan,
hainbesterako ez da izango
ta egon zaitez patxadan,
gosea ere egingo zaizu
inguruko tabernatan,
eta zeozer jaten baduzu
ondo begitu zer daukan.(bis)

Murua: Zintzo saiatu ta horrelakoak
entzuten ditut askotan,
sarritan daukat lana utzita
artzai joatea gogotan,
ikastolara etorri eta
estorbu egitekotan,
eman zaidazu pakea eta
gelditu etxean lotan.(bis)

S.Lizaso

Puntuak erantzuten:

Neurria: 6 puntukoa

Doinua: Esateko ez naiz lotsa

Gabixola: Zer moduz zaude Lizaso?

S.Lizaso: harriturik nago oso,
zure puntua erdi sorpresan
nola dedan jaso,
tentatzeari eraso
eta ez nago eroso,
zirko honetan ez dut izan nahi
zure mendeko pailazo.(bis)

Gabixola: Bertsotan ez da aspertzen...
S.Lizaso: Hori zuk dezu pentsatzen
ta iritzirik neri zergatik
ez diazu eskatzen,
zu zeranean gaijartzen
ez naiz gustora etortzen,
nola ez dezun gai bat bera ere
dexente xamarrik jartzen.(bis)

Gabixola: Egin behar regimena...

Lizaso: askok esaten dutena
egin ezkerro galdu litake
pila nabarmena,
baina falta det ahalmena
izango al det hurrena
lehen bezelaxe jarraitu eta
ez al da izango onena?(bis)

Gabixola: Bertsotan dirua baltza...

Lizaso: honek sortu duen saltsa,
lagun zela ta pikutara joan
nere esperantza,
erbirik etzazu altza
ta ez galdu gure martxa
zerorri ere gure kontura
bapo kobratuz zabilta.(bis)

MUTRIKU (1994-09-10)

Bertsolariak: J.Azpillaga, Mañukorta, I.Elortza, Iturriaga, Egaña eta Murua.

Gaijartzailea: Mutrikuko Bertso-eskola.

Aurkezlea: Arantxa Uharte.

Kalbaixa jaiak zirela eta bertso eskolak eta jai batzordeak antolatutako saioa. Gauez eta sarrera ordaindua, Miruaitz Pilotalekuan. 300en bat entzule. Pilotalekua erdi hutsik egon zen handiegia zelako, baina saioa txukuna eta gogo handiz entzuna gertatu zen.

Iturriaga - Egaña

Gaia: Andoni Egaña azti ospetsua da. Unai, etorkizunaz kezkatu dagoen euskal alderdi bateko politikoa. Hauteskundeak gertu direnez, Unai hurbildu zaio bere alderdia nola den jakiteko.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin Berriotxoarena

- Iturriaga: Hauteskundeen garaia dugu
jadanik nahiko hurbila,
nire partido regionalista
ez da orain marabila;
ta arduratuta hementxe nator
laguna, kontseju bila,
berriz sinistu behar al didate
botatako gezur pila?(bis)
- Egaña: Aizu Xabier aitortza hori
ez nuen asko itxaro,
gezurteroa zerala esan
harritu nauzu zeharo;
zuk zenbat botu lortuko dezun
oso-oso garbi dago,
zuk uste baino gutxiago ta
merezi baino gehiago.(bis)
- Iturriaga: Horrenbesteko azkarra zenik
nik ez nekien ez jakin
baina fidatu egin beharko naiz
azti famatu honekin;
nire alderdiak badu P bat ta
beste V-txo batekin,
ta dudan nago zer ein behar dudan
tarteko N horrekin?(bis)
- Egaña: Galdera horri erantzutea
bada nahiko enbarazu,
zerorri ere dudan bazaude
ni harrituta naukazu;
tarteko N horri zer egin
oso garbi daukat aizu!
hola segi ta ustekabeen
bera eroriko zaizu.(bis)
- Iturriaga: Mende hasieran euki genitun
behintzat pare bat martiri,
ordutik hona erdia gezur
ta egia beste erdi;
beste galdera suabego bat
egin behar dizut zuri,
"hasiko al zaio berriz ilea
Iñaki Anasagastiri? "
- Egaña: Nik nahita ere ezin konpondu
Iñakiren imajina,
hemendik hona₁ ilek pasatzen
eiten du ahalegina;
bi kontu dauzkat "spray" moderno
edota oilo zirina,
uste al dezu aztia dela
Lurdesko Amabirjina?

1 Imintzinoa egiten du buru-gainean eskua aldenik alde pasaz.

Iturriaga - I.Elortza

Gaia: Euskal Telebistan aurtengo urterako programazioan bi mutiko hauek prestatutako umorezko programa bat omen dago.

Neurria: 10ko txikia

Doinua: Espainian behera

Iturriaga: Aurkezletzarako gu
gaude hain egoki,
makilatu ere egin
gaituzte poliki,
programak eukiko'itu
gutxinez bi zati,
lehengo apirilekoa
hartuaz aitzaki
hasi eta erdian
moztuko da beti.(bis)

I.Elortza: Aurkezle lanerako
gatoz bi mutiko,
umorezko programa
hasiko da tinko,
hasi eta erdian
hortan ebakiko,
horrela irtengo da
polito-polito,
baina aurten delfinik
ez dugu jarriko.(bis)

Iturriaga: Programari serio
ia heldu diogu,
laster hastea ere
orain dagokigu,
bi zati eukiko ditu
gutxinez bi ordu,
intermedioetan
anuntzio eredu,
Andonik "gomina" bat
anuntziatuko du.(bis)

I.Elortza: Andoniren "gomina"
eta hainbat tiro,
horrela joango da
astiro-astiro,
baina norbait gurekin
gaur ez bada fio,
polemikei iheska
egin dugu bingo
aurkezle gara baina

ez dugu hitzegingo.(bis)

Iturriaga: Laguntzaile bat dugu
ongi etorria,
horren fama handia
horren egarria,
Azpillaga egongo da
siloian jarria,
hankak zabal zabalik
estutuz gerria,
Soberanon zezenan
bertsio berria.(bis)

I.Elortza: Azpillaga ere egin
da gure gatibu,
zuek zarete hortan
gaur gure testigu,
umorearen bila
gabiltza beti gu,
nahiz ta igual harritu
hemen bi edo hiru
rejimen anuntzio
bat egingo digu.(bis)

Iturriaga: Beste aktore bat ere
badaukagu bertan,
fijau al zarete inoiz
Iñakin iletan,
moro bat izango da
Euskaditik bueltan,
eta gu pantailetan
ez gauden hoietan
"kostoa" salduko du
intermedioetan.(bis)

I.Elortza: Denak sartu ditugu
denak geure lagun,
laster zuen pantailan
dauzkagu ezagun,
baina Mañukortana
dugu nahiko ilun,
laster hasiko gara
ta oraindik gaur egun,
ez dakigu zein paper
jarriko diogun.(bis)

OÑATI (1994-09-30)

Bertsolariak: J.Azpillaga, J.Lopategi, J.Enbeita, Menbizabal, X.Zeberio, T.Garmendia, Diaz de Gereñu eta Aizpuru.

Gaijartzailea: Nikolas Segurola.

Udalaren babesez jai batzordeak antolatutako jaialdi ordaindua. 600 entzule inguru hurbildu ziren polikiroldegira, gaueko hamar eta erdietan.

J.Lopategi - T.Garmendia

Gaia: Txomin Garmendia aita zaharra zera. Bi semeek alde egin dizute gerrara Aberriaren alde. Zai eta zai zaude semeak noiz itzuliko. Baina bakarra etorri zaizu, Lopategi.

Neurria: Berezia

Doinua: Iparragirre abila dela

J.Lopategi: Maite genuen guk aberria
maite genuen arraza,
gazte gazterik hartu genduen
gudari fin batzun traza,
gerrara joan ginan
libertade preminan
ta hori etzen jolasa,
nere anaiak nere besotan
eman zun azken arnasa.

Garmendia: Gazte maitea gerran hiltzea
ez baita gauza arrotza,
baina guraso batentzako da
hori albiste zorrotza,
gau ta egun pentsatzen
nola ote dabilten
eta hitzegiteko lotsa,
aberriaren alde izan bada
horrekin hartzen det poza.

J.Lopategi: Sentimentu bat gendun barruan
bizia eta bortitza,
hola sortu zen gure gogoa
holaxe gure ekintza,
galdu nuen anaia
ez da albiste alaia
baina ematen dizut hitza,
nahiago nuen nere lekuan
anaia etorri balitza.

T.Garmendia: Alde batera ulertutzen det
seme zuk esan dezuna,
baina mesedez oain entzun zazu
aita honen erantzuna,
semea gerran hila
ezin jua bere bila

baina badet ontasuna,
baldin zerorrek betetzen bazu
anai maitean hutsuna.

J.Lopategi: Guk zeuregandik jaso genuen
geure euskal kontzientzia,
ta zeuregandik jaso genduen
gerrarako lizentzia,
galdu dezu semea
nere anai trebea
etxera ezin iritsia,
"gora Euskadi askatua!" zen
bere azken irrintzia.

T.Garmendia: O seme maite zure arrazoia
ez da izandu txepela,
sinistu gero alde hortatik
poza hartutzen detela,
biharko edo etziko
ez bait degu etsiko
eta erne ditezela,
gari alea lurpen sartuta
gero ertetzen dan bezela.

J.Lopategi: Beti negarrez ari gara gu
noiz ote dator irria,
"Gora Euskadi!"ka degu bihotza
eta halaxe eztarria,
heldu zen heriotza
beti bezela hotza
hura momentu larria,
baina egun baten libre izango da
nire aitaren herria.

J. Azpillaga

Gaia: Jon, hi Ardantza izango haiz. Zergatik ez haiz joan Madrileko Senatura?

Neurria: 8ko zaharra

Doinua: Sorlekua utziz gero

J.Azpillaga: Gerta dana gertatu da
ta ez dago sinisterik,
amenazoka dabilta
baina ez nago tristerik,
autonomian arlo horretan
ez nun pentsatu joaterik,
biltzar horretan ez zegoako
gezurra baino besterik.

Ez joateko lehenengotik
nik egin nuen botua,

beharrezko izan balitz
banuen pentsamentua,
baina Felipek joan dan aspaldi
dauka bere pekatua,
lehenengo bete behar delako
Gernikako Estatutua.

GAINTZA (1994-09-30)

Bertsolariak: Murua, S.Lizaso, Sorozabal, J.Sarasua, Lujanbio, Anjel Larrañaga eta Egaña.

Herriko frontoian gaueko hamar eta erdietan antolatutako saio berezia. Xabier Mendiguren idazleak prestatutako gidoi baten arabera bertsolariek antzerki bat egin zuten, bapateko bertsoz kantatua, bakoitzak gidoiak agintzen zion papera betez. Zenbaitetan organoak laguntzen zien bertsolariei, kasu honetan Muruari. 500 entzule inguru bertaratu ziren. Muruak egin zituen aurkezle lanak.

Murua - Larrañaga - Egaña

Gaia: Hauteskunde garaian herri koxkor batean politikoeak boto oreka hausteko botoak behar eta herriko putetxera joan dira boto eske. Gidoi orokorra hortik doa. Kasu honetan herriko apaiza (Murua) mintzatuko zaie bi emagalduei (Egaña eta Larrañaga).

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin Berriotxoarena

Murua: Lista berdea osatu nahia
esan dute azkenean,
txorakeriak utzi albora
ta segi zeuen lanean,
listarik behintzat etzazute egin
Jainkoaren izenean,
edo inpernura joango zerate
biok zuzen-zuzenean. (bis)

Egaña: Gure apaizak azaldu digu
lista aurkeztu ezina,
gorriak dira nunbait deabruk
eta bi putak osina,
ze xelebrea bi putarekin
apaizaren imajina,
"kaixo aspaldiko!" esango nizun
atzo etorri ez bazina.(bis)

Larrañaga: Orain artean apaizen mende
genduen gaurko mundua,
ohartu gera nekez bada're
eta ez da berandua,
gureganako du gorrotoa
gureganako lutua,
zeure berdina daukat neuk ere

bigarren apellidua.

Murua: Guztiok gera Jainkoan ume
denok arreba ta anai,
aurrera ere haren bidetik
pakean behar degu jarrai,
jende aurrean jazkera ere
azaltzen dute nolnahi,
lehen mutilzaharren tentazioa
orain gazteena ere bai.(bis)

Egaña: Denek rubia deitzen didate
ez da egi borobila,
osijenada botatzen beti
izandu bait naiz abila,
apaizak ere badu ordea
guztion puntu debila,
ile kixkurra maiz ibiltzen da
ile kiskurraren bila.(bis)

Larrañaga: Apaiza hola tentatutzea
nahiz ta izanarren grabe,
ederki asko probatu dittut:
haragizkuak dirade!,
garai batean galtzak azpitik
gaur hainbeste nobedade,
sotanarekin etorritzen da
eta gantzontzilo gabe.(bis)

Egaña: Kantzontziloak entzun orduko
apaizak beztu kopeta,
maiz ibili da izterretara
ta kulerota kolpeka,
baina bi putak klienteakin
ipini gera erreta,
kanpaia jotzen hasi beharko du
gu aspertu gera-eta.(bis)

Larrañaga: Apaiz elkorrak azaldu digu
hemen nahikoa arpegi,
baina putak'e mingain aldetik
badegu nahiko pikardi,
zer egin duen danen aurrean
kontatu behar det garbi,
bizio piskat nerekin hartu
orain gaztiakin segi.(bis)

DONOSTIA (Gros) (1994-10-01)

Bertsolariak: Mendizabal, Telleria, Arzallus eta I.Elortza.
Gaijartzailea: Karlos Aizpurua.

Donostian Bertsotan kanpainako hirugarren bertso saioa. Mariaren Bihotza Ikastolako aretoan. Gauez eta sarrera doan. Gipuzkoako Bertsolari Elkarte eta Donostiako Euskara eta Kirol Patronatuak antolaturik, Udalaren babespean. Laguntzaile gisara Bagera Euskaltzale Elkarte. 50 entzule. Jende gutxi bildu arren, piska bat giroa berotzen kostatu bazen ere, azkenerako jendea berotu zen eta entzuleak gustora gelditzeko aukera izan zuten.

Mendizabal - Telleria

Gaia: Bi guraso zarete. Telleriak bere haurra eskolatik aparte, hainbat ekintzetara bidaltzen du: solfeora, bertso eskolara, balletera... Mendizabalek aldiz, inora ez du bidaltzen. Nolako elkarrizketa izan duzue?

Neurria: 10ko txikia

Doinua: Espainian behera

Mendizabal: Bi guraso artean
hau da txolartea,
semeak nola hazi
lantegi torpea;
zure umeek dute
denbora betea,
nik libreki uzten dut
semetxo maitea,
umeen lana baida
jolas egitea.(bis)

Telleria: Oporrak heldu arte
hortik erretira,
igo beharra baitu
ritmoan gurdira;
gizartea erabat
aldatzen ari da,
seiretan solfeoa
gero gimnasira,
gizartean premiak
horrelaxe dira.(bis)

Mendizabal: Musika ta solfeo
kirola segira,
zure umea dabil
buelta eta jira;
probetxuzko gauzetan
balebil sikira,
gero iluntzerako
kemenen perdida,
oinez ikasterako
estresatzen dira.(bis)

- Telleria: Apuritzen ohitzea
ez dunez kalteko,
kate motzean lotu
ta dago hobeto;
ahal dan denbora pittin
jolas egiteko;
gazteak zortzi paron
daude hamarreko,
gero badu denbora
lasai egoteko.(bis)
- Mendizabal: Hainbeste eginkizun
denak ezin konta,
goizetik iluntzera
azkenean jota;
burua jartzen dute
paretaren kontra,
ni ez nabil horrela
aurkako nago-ta,
pertsonekin egin behar degu
eta ez robota.
- Telleria: Robota ta bobota
nola dauden pila,
haur tonto baten aita
ez dago trankila;
zu ere joan zaitez
gehiagoren bila,
nik ondo prestatu nahi
det nere mutila,
bizitza gogorra da,
gogortu dedila!.(bis)
- Mendizabal: Horrenbeste lezio
ai gera ematen,
presaka gabiltzala
ai gera esaten;
konturatuko gera
halakoren baten,
hortan alda gaitezen
kate hoiek eten,
erakusten diegu
ezer ez izaten.(bis)
- Telleria: Ezer ez izatean
aitak duen grina,
trago gozo bat nahi ta
suertatu ozpina;
aita ez dago lasai
hori da jakina,
baina etxeko berri
bakoitzak dakina,

nik semea nahi nuke
aitaren berdina.(bis)

DURANGO (1994-10-12)

Bertsolariak: Lujanbio, Irazu, E.Arozena, I.Elortza, Gaztelurrutia, Maia eta Iturriaga.
Gaijartzailea: Jon Sarasua.

Berbaro elkarteak antolatutako saioa herriko jaietan. Zineman izan zen eta 400 entzule inguru hurbildu ziren, arratsaldeko 7etan hasitako saiora. Entzule gehienak gazteak ziren, eta saio polita atera zen.

Irazu

Gaia: Gaurko egunkarietako berria da, Zapatistek esan dute Mejikon gauzak aldatu ez direnez tregua hautsi eta berriro armak hartuko dituztela.

Neurria: 10ko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Irazu: Orain artean tregua luze bat
han egon da indarrean,
egun luzetan itxaropena
izan degu gailurrean,
baina berriro indarkeria
daukagu hango lurrean,
fusilak hartu ta gudariak
tiroka hasi beharrean¹,
gerra ere inoiz egin behar baita
pake faltsuen aurrean.(bis)

Agintariak promesa batzuk
egin zituzten lehenago,
ematekotan hango jendeei
gero eta lur gehiago,
negoziaketak apurtu dira
ta gauza ez da oparo,
haiek borrokan segiko dute
ni erabat ados nago,
gosez hiltzetik tiroz hiltzera
alde asko ez baitago.(bis)

1 "beharrean" = lanean.

BERRIATUA (1994-10-22)

Bertsolariak: Bilbao, O.Arregi, H.Lopategi, I.Gojenola eta Omagojeaskoa.

Araba-Bizkaiko Bertsolari Elkartean txapelketa girotzeko antolatutako saioa. Kultur Etxean egin zen gaueko 21,30etan oso entzule gutxiren aurrean (40 bat). Aurkezle lanak Altzaleik egin zituen. Nahiko giro motela egon zen bertsotarako.

Bilbao - Omagojeaskoa

Gaia: Newton zientzilari famatua grabitatearen legeaz jabetu ei zen sagar bat buru gainera jausi zitzaion batean. Zu Jon Mikel Newton izango zara, eta zu Leire sagarra.

Neurria: 8ko nag.

Donua: Zeru altuan zegoen jaunak

Omagojeaskoa: Kalera urten ta atzean utzi dut
nire etxeko atea,
deskantsu apur bat behar nuen da
hantxe utzi dut katea,
sagar ergel hau erori eta
buruan dut desastrea,
erdi odolatan utzi nau eta
hau da hau grabitatea.

Bilbao: Ni sagar bat naiz ta zuhaitzetik
nola jausi naizen hemen,
Newton hauxe tontokeritan
be hasi zaigu nabarmen.
Bere burura jausi naiz eta
ni be bertan, "mekasuen"!
nik egindako tontorroi hori
aurretik ere bazuen.

Omagojeaskoa: Urte askotan izan omen dut
serioaren ohitura,
baina egoera honetan ez dit
ezertxok ere ardura,
hau kolokoia, ene nun nago!
bota behar dut aingura,
zorabiotan ikusten ditut
masa ta abiadura.(bis)

Bilbao: Masarekin ta abiaduraz
badu hainbat azterketa,
baina sorpresa bat ere lehendik
berari nion gordeta,
zuk hobe duzu gaur isiltzea
jarri aurretik erreta,
hurrengo baten hospitalera
bidaliko zaitut eta.

Omagojeaskoa: Arazo denen giltza lortu dut
ezin egin orain uko,
beatzi koma zortzi bat metro
ta segundu karratuko,
dena erortzen da noizbait gorantza
bidali izan orduko,
etxera noa zero guztia
hemen aurkitu orduko.

IRUÑEA (1994-10-28)

Bertsolariak: Telleria, Peñagarikano, U.Agirre, I.Elortza eta Silveira.
Gaijartzailea: Manu Gomez.

Afalurreko saioa Salesianoen aretoan. 400en bat entzule bertaratu ziren bertsolariak entzutera.

Peñagarikano - Telleria

Gaia: Konta iezazkiguzue eskola garaiko pasadizoak.

Neuria: 6 puntukoa

Doinua: Aizak hi mutil mainontzi

Peñagarikano: Esatea ez da zaila,
ordun arazoak pila,
hamahiru urte eginda ere
hirugarren maila,
bihurria zan mutila,
osatzen gendun kuadrila,
udaberrian ibiltzen ginan
txori habi bila.(bis)

Telleria: Gu gazteak ginanean,
sasoia ren ordainean,
eskola juanda pasatzen gendun
guk hutsa ainean,
apaiza alajainean
jarriz hormaren gainean,
marrubi batzuk jaten ginuzen
apaiz jardinean.(bis)

Peñagarikano: Noiznahi marrubi ostutzen,
zeni ez zaio gustatzen?
paxintxi janez ibiltzen ginen
zertxobait ospatzen,
han eta hemen jostatzen
gu ez ginaden nazkatzen,
zenbat gozatu hartu genuen
kristalak puskatzen!(bis)

Telleria: Okerra egin frankotan,
izurratzeko asmotan,
mutil kozkorak inoiz ez ginan
egon erdi-lotan,
sarri elkarrekin borrokan,
ez baginaden pelotan,
multiplikatzen baino lehenago
hasiaz bertsotan.(bis)

Peñagarikano: Beti biak elkarrekin,
nahiz ta gauz asko ez jakin,
zeinen gustora ibiltzen ginen
gure lagunekin,
goma eta kakoekin,
bagenekien zer egin,
makina txori hiltzen genuen
tiragomarekin.(bis)

Telleria: Peña honetxek ziona,
egi zabal eta ona,
beraz galesti atera ohi zen
mutikoen broma:
jo baldin bazen gizona,
altxa bazebilkin gona,
fletxa izaten zen gure arma ta
berdin tiragoma.(bis)

BILLABONA (1994-10-29)

Bertsolariak: Lujanbio, Telleria, Loidisaletxe II eta Euzkitze.
Gaijartzailea: Inaxio Iguaran.

Kultur astearen barruan antolatutako saioa, gaueko hamaiketan Gurea zineman. Saioa ordaindua zen eta ez zen 50 entzule baino askoz gehiago bildu.

Telleria - Loidisaletxe II

Gaia: Aita semeak zarete, Millan aita eta Loidisaletxe semea. Aitak oso gaztetan aldegin zuen bere gurasoen etxetik. Seme honek berriz, hogeita hamabost urte beteak eta oraindik gurasoen babesetik aldegin gabe dago.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Nere senarrarekin

Telleria: Nik komodidaderik
ez nun eundo santa,
eta zerbait nahi banun
hiru pezta falta,
beste erremedioik ez
norabait asalta,
hi berriz e ingo haiz

mutiltzar galanta!(bis)

Loidisaletxe: Etxean gelditzeak
sortu harridura,
ni beraz ez nabil gaur
aitaren modura,
aldatu nahi nuenez
etxeko ohitura,
gustora bizi bait naiz
gurason kontura.(bis)

Telleria: Gazterikan joan nintzan
etxetik urruti,
nere ogibidea
ametsetan beti,
hau hamabitan ohira,
hamabitan jaiki,
zertarako jaio zan
oraindik ez daki!(bis)

Loidisaletxe: Hamabitan jeiki ni
presarikan gabe,
bizitza da-ramakit
suabe-suabe,
ez det pasa nik aitak
hainbeste nahigabe,
bizitza hau baino besteik
zein litzake hobe? (bis)

Telleria: Errezeloa banun
alferra ote zinen,
eta esanaz hori
da nahiko nabarmen,
baina aitak ez dauka
lehen hainbeste kemen,
jubilatu behar det
hau hasi baino lehen.(bis)

Loidisaletxe: Aita ez da gustora
nago antzemandu,
nere bizimodua
errexu izan da,
baina lasaituko da
gauza hau esanda,
aberats bizi naiz ni
pobrea izanda.(bis)

Telleria: Gaurko gaztetan bada
horrelako frango,
ez dakit degun mula,
asto edo mando,
baina txollo horrekin
iritzi du ondo,

baina luzaro ez dek
gure etxean jango.(bis)

Loidisaletxe: Amenazurikan ez
egon zaitez isil,
ni nabilen bezela
oso pozik nabil,
ta aurrera segitzeko
berriz ere trankil,
ni jubilatuta arte
ez zaitez behintzat hil.(bis)

ZORNOTZA (1994-10-30)

Bertsolariak: Hormaetxea, M.M. Urdangarin, H.Lopategi, J.Enbeita eta I.Ajuria.
Gaijartzailea: Aitor Hormaetxea.

Zornotza aretoan eguerdiko 12,30etan. Zornotzako bertso-eskolak antolatutako saioa izan zena Bizkaia-Arabako txapelketa girotzeko asmoz. Sarrera ordaindua zen eta oso jende gutxi.

I.Ajuria - M.M. Urdangarin

Gaia: Bota behar duten baso bateko bi zuhaitz zarete. M. Urdangarin botatzeko markatuta dago, eta Ireneo ez. Motosierra hotsa gero eta hurrago.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

M.M. Urdangarin: Enbor erdian jarri didate
marka edo-ta batxea,
haizkora labain zorrotz horrekin
nigana dator trantzea,
ta alperrik da azalpenetan
denbora horrela galtzea,
zein ezberdina den pinu baltza
edo haritz jaiotzea.(bis)

I.Ajuria: Hala ere nik sentitutzen dut
esateko ez naiz lotsa,
desberdin gara jaiotzez baina
biok bizi dugu poza,
marka zaitue eta hor dator
motosierraren hotsa,
galdetzen nator zelakoa den
gizon batzuen bihotza.(bis)

M.M. Urdangarin: Ta datorrena ikusi ahala
mundua zein den ustela,
erdi erditik moztu beharra
hau astakeri itzela,

eta dakusat zu be zuhaitz zu
oindik ohartu ez zarela,
haizkolariek eta abarrek
bihotzik ez daukatela.(bis)

I.Ajuria: Pinu beltzaren gerizpe horrek
ez dira oso atseginak,
garai batean neuk be egin nitun
zure kontra ahaleginak,
usteldu ziren lora edarrak
eta maldako jardinak,
gaurtik aurrera izango dira
urretxak eta urdinak.(bis)

AZKOITIA (1994-11-05)

Bertsolariak: Maia, J.Sarasua, Lujanbio, E.Arozena, Irazu eta I.Elortza.
Gaijartzailea: Joxemari Lejardi "Gabixola".

Xakela tabernak Bakartxo zineman antolatutako saioa, 500en bat entzulerekin. Hamaikak aldera eman zitzaion hasiera.

Maia - I.Elortza

Gaia: Ostegun gauetan Gasteizko kaleetan ibili ohi zarete, ikasle asko bezala. Joan den astean goizeko ordubietan "txokolate" edo "porro"rik gabe gelditu zineten. Zer egin zenuten?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Maia: Gasteiz aldean dagon giroa
ez da izaten ahula,
taberna nahiko jatorrak eta
jende multzoa mardula,
baina kontatu baino lehenago
gau hortako pelikula,
lehendabiziko esan behar det
berak lapurtu zigula.(bis)

I.Elortza: Orain Jon Maiak esandakoa
esplikatu dut hobe,
begira horri begi gorriak
ez dakiela nun gorde,
guri porroak kendu zizkigun
eta egin zuen alde,
eta horrela dago oraindik
hankak lurreratu gabe.(bis)

Maia: Dirudienez ostegunetik
ez da aurkitzen lasaio,
eta hegaka pasatu ditu
aste hontan zenbait saio,

egun hartatik begia soilik
ez zan gorri ze arraio!
itxuarekin ilea ere
betiko gorritu zaio.(bis)

I.Elortza: Behin argi utzita gure laguna
ez zela ibili hain fin,
berriro gaira bueltatu nahi dut
ta honek egingo du berdin,
honen ostean zer egin gendun
nator erantzunarekin,
horrelakotan egin ohi dena
etxera joan ta lo egin.(bis)

Maia: Baina gauz hori falta izanak
egiten ohi du mesede,
mutil txintxoak gera gu eta
hemendik gabiltz halare,
guk parrandako ez degu izaten
jendeak hainbeste fede,
lo ia bertan hartu genduan
etxera juan gabe ere.(bis)

I.Elortza: Egia da bai esan duena
sufritu genuen nahiko,
txaketa hartu eta bidea
berriz ere etxerako,
hemen bukatu nahi dugu baina
gogorarazi beharko,
badakizula zer zor diguzun
ostegun honetarako.(bis)

Lujanbio - Irazu

Gaia: Madona, Lujanbio, bere lan baterako jende bila Espainiara joan omen zen toreroak ikustera. Nola ez dakigula, Euskal Herrian bertsolariak duten arrakastaren berri izan du eta bertara etortzea pentsatu du. Guapoena, Irazu, aukeratu du Madonak bere showa egiteko.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Lujanbio: Ze bertsolari "bollo" gaupoa
dudan nere begibistan!
Bere azterketa egin behar det
gutxinaka, piskan-piskan,
ni soineko transparenteakin
irtengo naiz telebistan,
esplosiboa izan daiteke
Ameriketako listan.(bis)

- Irazu: Gisa hortako ekintzatara
ni're behar naiz ausartu,
baina ardura gehiegirikan
ez nuke nahi hemen hartu,
plana hautatu dezu Madona
baina hain zera okertu,
nik telebistan betoa daukat
eta hori deskartatu.(bis)
- Lujanbio: Dirudienez nahiko zorrotza
dadukazu mingain mintza,
nahiago nuke dotoreago
jantzi izango balitza,
bideoak behar du eszitantea
horretaz ez gera mintza,
hola kantatzen baldin badezu
alper-alperrik gabiltza.(bis)
- Irazu: Hori neretzat izan liteke
konpromezu nabaria,
eta ez pentsa hori denikan
nik nahi nukeen saria,
zu hortik hona zabilta sarri,
dezu abilidadia,
eszitantea zerorri zera
eta ez bertsolaria.(bis)
- Lujanbio: Ni niki txuri busti batekin
ez nengoke hain itsusi,
ta zuk tirazko niki bat jantzi
hobea zenduke kasi,
beldurrik gabe heldu gerritik
ez zaite jua ihesi,
ta nik irrifar egingo dizut
urrezko hortz eta guzi.(bis)
- Irazu: Ondo dakizu zure irrifarra
zenbat estimatzen dudan,
proposamena hartu edo utzi
jadanik jarri naiz dudan,
zoaz hemendik ta nahiago det
segi lehengoko ohituran,
bertsolaritza ez det sartu nahi
amerikarren kulturaren.
- Lujanbio: Euskal Herrira etorri eta
oraintxe nago penetan,
bertsolariak ba omen ziran...
Ze desilusioa detan!
Toreroekin egonda nago
juan dan aste honetan,
alde earreko odola dute
Españi alde horretan!(bis)

Irazu: Baina nik ere zure modura
 juzga nezake berdintsu,
 bertsolariak bazirala ta
 jarri zinan itsu-itsu,
 orain sorpresa topatu dezu
 aukerak joan zaizkizu,
 nik'e Madona baino nahio'itut
 Maialen eta Estitxu.(bis)

ATAUN (1994-11-11)

Bertsolariak: Peñagarikano, J. Munduate, J. Sarasua, Iturriaga, Egaña eta S. Lizaso.
Gaijartzailea: Beñat Munduate.

Gauetz izan zen saioa San Martinetan herriko frontoian, 800en bat entzuleren aurrean.

Egaña - S.Lizaso - Iturriaga

Gaia: Egaña apaiza da; S.Lizaso monagiloa eta Iturriaga neska. Iturriaga Jauna hartzera joan denean apaizari hostiak aldegin eta monagiloaren bandejara erori beharrean neska gaztearen kolkora erori da...

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Anai arrebak hementxe nator

Egaña: Neri hostia erori arren
 ez da erori hutsian,
 sagrarioan bero bazegon
 orain'e bero antzian,
 zeinen egoki enkajatu dan
 neskaren titi ertzian,
 zein polita den Kriston gorputza
 "jesukriston" gorputzian!

S.Lizaso: Sorpresatxo bat izan da hemen
 zure dardara tarteko,
 gertatu dana ez bedi izan
 eleizarentzat kalteko,
 meza garaian apaiza ez zendun
 lanikan ondo beteko,
 Kristo haurtxoa bihurtu al da
 titi artera joateko?

Iturriaga: Gure apaizaren maniobra hau
 tranpa dala ezin uka,
 monagiloa hor da begiak
 kokoteraino sartuta,
 zaude zu lasai ta trankil egon
 eskuak ondo lotuta,
 hostia baten bila jua ta
 bi hartuko dituzu ta.

- Egaña: Sekula santan ez naiz ni izan
gogo lizunaren jabe,
baina hostiak sartuez gero
atera beharrak daude,
hemen gogoa santua degu
ezker, eskubi, goi ta behe,
monagiloak atera beza
intentzio txarrik gabe.
- S.Lizaso: Nik intentzio txarrik ez daukat
gehiegi, berriz, onetik,
gertaeraren konponbidea
jarri behar det kolpetik,
neskatxak dio nere eskuak
ez mogitzeko atzetik,
mingainarekin neuk hartuko det
orain dagon kalizetik.
- Iturriaga: Monagiloai ezin erantzun
egin behar diot uko,
gure apaiz jaunak badu malizi,
tranpa ta hainbeste truko;
"monagiloak aterako du"
esan du hitzein orduko,
monagiloak gaur ez du ezer
ez atera, ez sartuko.
- Egaña: Hau Jainkoaren nahia izan da
ta gertatu da praktikan,
itxuraz gauza lizuna baina
ez du bate inportikan,
monagiloak atera nahi du
kaliz edo kopoitikan,
hola eginda irtengo zaizu
galtza-barrenetatikan.
- S.Lizaso: Nahiz ta apaizai konsejurikan
nik ez diodan eskatu,
nundikan gora atera leiken
galdetu gabe kontatu,
berak esan du galtzak astindu
ta liteke lurreratu,
baina Jainkoa lurreratzea
orain ez al da pekatu?
- Iturriaga: Monagiloa oindik hor dago
zabal zabalik ahoa,
ia haserre jartzen hasi naiz
eta behingoan banoa,
ai apaiz jauna hartu zure hostiak
ta edan zazu ardoa,

aurkituko dut hau jango duen
nor bait egokiagoa.

Egaña: Sermoi garaian kontatua det
paxientxien parabola,
ez degu hori ejenplu txarra
ez zaitezte jarri hola,
hau da hostian paraderua!
ez nun espero inola,
egia da, bai, gure Jainkoa
toki denetan dagola.

Munduate - Peñagarikano

Gaia: Afaltzera joan zarete eta mondejuak jatea pentsatu duzue. Kamarerak ekarri ditu mondejuak
eta Peña harrituta mondejuak beltzak direla ikusita.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Nere senarrarekin

Peñagarikano: Nunbait artzaien berri
enuen ikasi,
oraintxe ere ez dakit
nik nundikan hasi,
hona hemen mondejuak
soka eta guzi,
kolore hontakorik
behin'e ez nun ikusi.(bis)

Munduate: Mondeju beltza degu
Ataunen normala,
hartu ta proba zazu
Peña berehala,
ez dizu ez utziko
gustoa makala,
zuria izaten da
artifiziala.(bis)

Peñagarikano: Honek nolatan bete
barrengo tokiak,
orain alperrik dira
zure aitzakiak,
nunbait nahasten dituzte
Ataunen jakiak,
mondejuak nahi nitun
ta ez odolkiak.(bis)

Munduate: Beraz orain ez dezu
zuk hortikan jango,
lasai bukatu zazu
badago gehiago,
ta ondorenen egin

hiru ardo trago,
uste nun etzendula
antzikan emango.(bis)

Peñagarikano: Noizbait behar ta gaur naiz
Ataunen bezero,
atera dizkidate
eta bero-bero,
honelako hamaika
makinat jenero,
etxen egiten ditut
goizero-goizero.(bis)

Munduate: Horrelakoik etzazu
Peña esan mesedez
abisatu behar zendun
gizajoa aurrez,
hauek ederrak daude
ta usaiak berez,
nik'e egiten ditut
baina holakoak ez.(bis)

AZPEITIA (1994-11-19)

Bertsolariak: J.Lizaso, J.Agirre, J.Sarasua, Peñagarikano, Euzkitze, Egaña, S.Lizaso eta Lazkano.
Gaijartzaileak: Jose Luis Gorrotxategi eta Iñaki Murua.

Largarate baserriaren alde (erretako baserria) antolatutako saioa. Kiroldegian burutu zen gaueko hamar eta erdietan hasiera emanda; sarrera ordaindua zen eta 800 ikusentzule inguru bildu ziran.

Peñagarikano - Euzkitze - Lazkano

Gaia: Lazkano politikaria, Peñagarikano kirolaria eta Euzkitze langilea. Hirurak bakoitza bere ofizioan jarri ditugu pare-parean. Zein da zuek daukazuen errekorrik haundiena?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Peñagarikano: Esaten dute ote daukadan
begiratua larria,
ta hori gutxi balitz bezela
oso talentu urria,
gorputza ere mehea det baina
indar ikaragarria,
esku batekin behin jaso nuen
berrehun kiloko harria.(bis)

Euzkitze: Jendea parrez hasi da hori
entzun eta berehala,
baina arrazoiz esan du Muruak
Euzkitze langile dala,

ta neure baitan dudan rekorra
ez da hain rekor makala:
ordu erdian irabazten det
egun osoko jornala.(bis)

Lazkano: Gaur eguneko politikoak
oso modako gerade,
gu bai gerade demokrazian
iraupen edo zutabe,
marka gogor bat egina daukat
eta aitortuta hobe:
herri guzia engainatzea
egirikan esan gabe.(bis)

Peñagarikano: Elkartu gera kirolaria,
langile ta politiko,
berriz egia esan behar det
gezurrik ez det jaurtiko,
nik'e aizkoran egin nuena
inortxok ez du hautsiko,
hamar minutun ebaki nitun
hamabi kanaerdiko.(bis)

Euzkitze: Zerbait asmatzen hasita ere
bai asmakizun kaxkarra,
duela gutxi politikoak
bazun hitza barra-barra,
eta nik berriz, seinale gisa,
daukat anillo earra,
Peña da hemen kanpainarikan
pasa ez duen bakarra.(bis)

Lazkano: Aurpegi latz ta mingain leguna
dira nere ezaugarri,
horregatikan gaurkoz ez nabil
ni zorionetik urri,
Roldan jauna ta gainontzekoak
hor dabilta nahiko larri,
nik haiek baino gehiago ostu det
ta ez dit inork igarri.(bis)

Peñagarikano: Korrika ere jaunak zer naizen
kontuak hortik atera,
behin izan nuen tximistarekin
probatutzeko aukera,
Izarraitzetik abitu ginan
hura eta ni batera,
eta neroni bera baino lehen
iritsi Azpeiti aldera.(bis)

Euzkitze: Peña lagunak gezur mordo bat
kurioso du pilatu,
lotsarik gabe esaten ditu

nahiz ta ganbarak failatu,
ta nere rekor ikusgarrina
ez al dezue bilatu?
Oraindik inork ez nau egurtu
nahiz gauero makilatu.(bis)

Lazkano: Nik politikan eindako markak
izan dira nabarmenak,
izugarriak bait dira hortan
nik daduzkaten ahalmenak,
halaz ta guztiz aixa barkatzen
didate entzule denak,
mizpirak eta politikoak
ustelenak ta onenak.(bis)

Peñagarikano: Noski lepoa nik ez dadukat
Foremanek bezain lori,
baina boxeon probatu nintzan
nahiz ta gezurra dirudi,
kuadrilateron egin nun marka
botako'izuet danori
aitona "kao" utzi nuen ta
Euzkitze betiko "grog".(bis)

Euzkitze: Rekor egiten Anjel badezu
makina bat abildade,
boxeoan'e dirudienez
nahi aina indarren jabe,
batzuk lurrean uzten dituzu
beste batzuk berriz grabe,
"grog" zerorri zaude aspaldian
golperikan hartu gabe.(bis)

Lazkano: Gezurrean det nere indarra
egiari gorrotua,
halaz ta guztiz gorengo maila
det neretzako lortua,
baina oraindik konforme dago
nerekin herri tontua,
hurrena ere bildurrik gabe
Lazkanoi eman botua.(bis)

J.Agirre

Gaia: Ezer baino lehen zorionak! Titulu bat falta zuen Agirrek, aitonarena, eta eskuratu berria du.
Zure bilobatxo jaio berri horri kanta iezaizkiozu pare bat edo hiru bertso.

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Espainian behera

J.Agirre:

Orain egun batzuek
haur bat zaigu jai,
aitona egin naiz
berari medio,
amonakin lo egin ber
zer erremedio!
Baina lo egiteko
berdin samar dio,
nola bestetarako
ez dedan balio.(bis)

Gure etxean bada
orain zorionik,
denak berai begira
aspertu ezinik,
nahiz geu seme-alabak
haziak izanik,
egia esan ez nuen,
ez, sinistuko nik
haur batek txoramen hau
sortu zezakenik.(bis)

Bere seaskatxoan
badu nork adora,
negar izpirik bada
aguro kanpora,
beharrik baldin badu
amaren kolkora,
bestea alboan zai
hartzeko lepora,
aitona sobre baina
hala ere gustora.(bis)

Bukaera hurbiltzen
urtean-urtean,
eta hemen bizi nahi
ahal dedan artean,
bilobatxoa zainduz
bestean tartean,
gutxienez ez dut
sartu nahi lurpean,
"maite zaitut aitona"
entzun bitartean.(bis)

DEBA (1994-12-02)

Bertsolariak: S.Lizaso, Murua, J.Sarasua, Lujanbio eta Iturriaga.
Gaijartzailea: Antton Kazabon.

Gauetz egin zuten saioa herriko plazan. Sarrera ordaindua izan zen eta 300en bat entzule hurbildu ziren.

S.Lizaso - Murua - J.Sarasua - Lujanbio - Iturriaga

Gaia: Badakizue telebistatik izkutatu dela Hitzetik Hartzera programa. Amatiño hor omen dabil programa berri bat egin nahian, iritzi bila bazterrik bazter. Gaur zuengana jo du aholku eske.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Andre Madalen andre Madalen

S.Lizaso: Amatiñori hitzegitea
ez da izango kalteko,
nahiz eta jakin gure gogorik
hark ez duela beteko,
hainbat istilu lehen izan gendun
etenaldi bat tarteko,
mingaina libre eskatzen degu
nahi deguna esateko.

Murua: Eta horrela ez bitza gorde
sentimentuak kolkoak,
ez bitez ager betiko bertso
pase edo atzokoak,
promozioa beza helburu
saio on horren jokoak,
eta ez bitez pantailaratu
igandero betikoak.

J.Sarasua: Bertsolaritzak ez luke behar
telebistaren esklabo,
ta hoiengatik bakarrik balitz
gure saioak akabo,
Amatiñori gaur zer eskatu
neretzat hain argi dago,
programa hortan lana gehiago
ta zentsura gutxiago.

Lujanbio: Gure Hitzetik Hartzera hori
pantailan zegoen luzaro,
nik aholku bat emango diot
berak nahi baino lehenago,
Jaun Amatiño fuera hortikan!
Zuzendaritza akabo!
Amatiño hor dagon artian
bertso programaik ez dago.

- Iturriaga: Egin ezazu festa debalde
ta zuzenean ahal bada,
programa erdian moztu ezazu
egiten badizu traba,
gero ipini elefanteen
dokumentalen "pasada"..
Bertsoak ez du asko lortuko
baina orijinala da!
- S.Lizaso: Programa ez da zertan beterik
beti're kontu arinez,
berriro diot askatasuna
behar degula mingainez,
Elkarteantzat limosna ohi da
gure bertsoen ordainez,
merezi degun errespetua
eskatzen degu gutxinez.
- Murua: Didaktikoa bedi saioa,
beraz, bertso eta hitza,
ta aurkezle bat itxurazkoa
hori da nere baldintza,
gainera beza bertsolarion
Elkartean gidaritza,
zeuk nahi dezuna egitekotan
galdezka alperrik zabilta.
- J.Sarasua: Orain arteko bertso guztiak
jarri itzazu aldrebes,
politikoak ere emititu
neronen partez mesedez,
edo Calleja jarri ezazu...
bertsotan ona da berez,
zuk ez gaituzu serio hartzen,
orduak guk zu ere ez.
- Lujanbio: Ta Amatiñok derrepentean
hau erantzun zigun kolpez:
"Orain arteko programa asko
grabatuta dauzkadanez,
astero-astero jarri behar det
zinta berbera umorez,
beste batzuek egiten dute
eta nik zergatikan ez?"
- Iturriaga: Miramoneko txori txikia
antza isiltzen ari da,
eurek horrela nahi zuten eta
zer egingo zaio, tira!
Ze ezkututzen ote digute
euren alfonbren azpira,
gure bertso ta zuen txaloen
beldurrez baldin badira?

SORALUZE (1994-12-03)

Bertsolariak: Lazkano, Gorrotxategi, Murua, Mendizabal, Peñagarikano eta Euzkitze.
Gai jartzailea: Joxerra Garzia.

Gaueko saioa herriko Kiroldegian. Saio ordaindua eta 300en bat entzule.

Euzkitze

Gaia: Hi hemen egotea nahiko erantzuna baduk. Barkatuko didak traizioz egindako galdera...
Akordatuko haiz udaberri aldera esan hidakela udazkenean erabakiko huela bertotan segitu
edo ez segitu. Erabaki al duk?

Neurria: 10ko nag.

Doinua: Semaforoak gorri ta berde

Euzkitze: Nere ahotik udaberrian
sekretutxo bat irten zen,
ta Joxerrari oraindik ere
hura ondo gogoratzen,
ez naiz hasiko lehen egindako
gauza okerrak zuzentzen,
gustokoekin kantatuko dut
kuadrila honekin hain zuzen,
ta gustokoa dudan tokian,
adibidez Soraluze.(bis)

Agian badut bertsoarako
behar aina abildade,
agian banaiz bertsozaleak
gozatzeko bezain trebe,
agian banaiz behar nukeen
aina talenturen jabe,
baina ez nuke inoiz ibili
nahi bertso goserik gabe,
gosea inoiz joaten bazait
erretiratuta hobe.(bis)

Bertsolaria nintzen eta naiz
zer egingo dut bestela,
ulertzen baitut nere zentzua
bestetarako ez dela,
berrehun saio ezin nik egin
beste zenbaitek bezela,
baina gauza bat aitortuko dut
eta sinistu horrela,
natorrenean dudan guztia
ematera natorrela.(bis)

Murua - Gorrotxategi

Gaia: Murua, zu ikaslea izango zara, eskolatik maisuak bidalitako zigor batekin etorri zarena: bostehun aldiz kopiatzeko "ez dut sekula gehiago erdaraz hitzegingo". Zigorra egiten ari zarela aitak ikusi zaitu, Gorrotxategik.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

Gorrotxategi: Lanean zabiltz semetxo maite
ta ez naiz poztutzen gutxi,
gaur egin daiteken gauza zertan
bihar egiteko utzi,
baino hasarre ikusten zaitut
ez poz ta ez pazientzi,
esan zaidazu zer ari zera
idatzi eta idatzi?

Murua: Erderaz egin dudala eta
minberaz daukat barrena,
horregatikan hau idaztea
gainera heldu zait hurrena,
baina aita zuk uler ezazu
ez da nere erruz dena,
gure taldean jarri bait dute
euskeraz ez zekiena.

Gorrotxategi: Semetxo maite zure erantzuna
zein sendo ta zein mardula,
beraz euskeraz ez zekienak
sortu du hainbeste burla,
haurra ez zera ta ez al dezu
bizitzan entzun sekula,
sagar ustelak ondoan dauden
finak usteltzen ditula?

Murua: Sagar ustel bat ez da haur hori
aita ez hola hasi, tira!
atzerritikan etorri da ta
gaur sartu gure erdira,
irakaslea hizketan eta
aho zabalik begira,
hoiei horrela eginez gero
gero kontra jartzen dira.

Gorrotxategi: Zu eta zure lagunak pastel
ta kanpotar hori ginda,
hori entzun da hori pentsatu
nik odolak irakinda,
hartu dezuten jokabidea
zuen ahotik jakinda,
hori ez baita euskaldunduko
zuek erderaz eginda.

Murua: Alde batera arrazoia da
neu ere hortaz naiz kezkatu,
baina aita zuk ta biok behar degu
ekinbide bat prestatu,
zuzendaritzai hori kenduta
moldatu dezan eskatu...
Gure herrian zergatik ez da
D eredia errespetatu?

ORIO (1994-12-06)

Bertsolariak: Egaña, Murua, J.Sarasua, Esoain, Sukia eta Epelde.
Gaijartzailea: Jose Antonio Gesalaga "Zaldubi".

Gaueko saioa antolatu zen paralitiko zerebralen alde dirua ateratzeko helburuz, herriko frontoian. 200en bat entzule bertaratu zen bertsolariak entzutera.

Egaña - Sarasua

Gaia: Egaña ETBko ordezkari bat izango zara eta Sarasua Bertsolari Elkarteko ordezkari bat.
Nere galdera: Zer gertatzen da Hitzetik Hortzera programarekin ?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Eguna pasa nekean eta

Egaña: Zer gertatzen da?, zer gertatzen da?
jende gehienan galdera,
bertsolaririk ez da azaltzen
igandetik igandera,
gure etxeko leiho txikitik
ez lukete nahi atera,
denak bezela etorri bitez
gure eskutik jatera.(bis)

J.Sarasua: Ogi apurrak bakarrik daude
eskua itxi mesedez,
telebistatik bertsotarako
sortu da mila interes,
zentsura gutxio nahi gendun ta
zuek erantzun aldrebes,
inuzentia bagera piskat
baina hainbeste ere ez.(bis)

Egaña: Hain egoskorak zerate eta
ez zazu altxa kokotzik,
aspaldi hontan kontu honetan
entzun det gauza zorrotzik,
behin Sarasuak kantatu zuna
esateko ez det lotsik:
arrazoi dena dezute baina
diruak ez du bihotzik.(bis)

J.Sarasua: Gauza justu bat hitzarmentzerik
Amatiñok ez luke nahi,
bertsolariok ere bagera
jarrera bat hartzeko gai,
barkatu baina programa horri
esango diogu jai-jai,
bihotzen minik ez dezu izango
baina potrotakoa bai.(bis)

Egaña: Geure etxera etorri eta
berak ditugu jaun-jabe,
hoien aurrean aurkitzen gera
zalantzan eta herabe,
potrotako bat jasanagatik
aguantatzeko prest gaude,
besten etxean ezin da sartu
katiuskak kendu gabe.(bis)

J. Sarasua: Bate lotsarik ez duzu izaten
bertsoak zentsuratzeko,
audientzia ona lortu ta
miseria eskeintzeko,
telebistako programa degu
bertsoak aurreratzeko,
ta inola're ez telebistari
aurpegia garbitzeko.(bis)

Egaña: Akordioarik ez baldin bada
zerorrentzako da kalte,
aspaldi hontan azaldu degu
majina bat borondate,
zuek lotuta hor zauzkagu ta
guk baditugu bi kate,
bertsolaritzan aitzakiakin
"peseteroak" zerate.(bis)

J. Sarasua: Aizu Amatiño azken bertsoa
entzun dizut oso pozik,
argudio hau entzuna daukat
hamaika alditan kasik,
jakin ezazu bertsolariok
ez dugu hartuko sosik,
bertsolarintzat ez da dirua
Elkartearentzat baizik.(bis)

ERRENDERIA (1994-12-08)

Xenpelar Saria. Hemezortzi bertsolari gaztek hartu zuten parte lehen kanporaketa honetan. Goizeko hamaika t'erdietan hasi zen eta Antton Kazabon izan zen gaijartzaile. 100 entzule inguru hurbildu zen On Bide Zinematokira. Epaimahaia Xabin Irastorza, Jose Mari Gabiria eta Felix Irazustabarrenak osatu zuten.

Mendiluze - Sarriegi

Gaia: Bizilagunak zarete, zuk Sarriegi etxe aurreko baratzatxoan babarrunak erein dituzu, eta zuk, Mendiluze, loreak.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin Berriotxoarena

Sarriegi: Bion etxeak kale berean
aurkiturik atez ate,
jardinak ere toki honetan
ez daude oso aparte,
lore artean bizi nahi duzu
neri egiten dit kalte,
jardin polita izateaz gain
jaten ematen didate.(bis)

Mendiluze: Zuk bakarrikan irabazia
dezunik etzazu uste,
bakoitzak hemen zer lortzen duan
argitu behar genduke,
zuri dauzkazun babarrun hoiek
gosea kentzen dizute,
nere loreak triste dagoen
anima alaitzen dute.(bis)

Sarriegi: Animarako bestela ere
ez al dago gauza nahiko?
gauza ugari dauzkat etxean
nik behintzat horretarako...
Nahiz eta denak neri ez zaizkidan
jatekoak aterako,
ale ustelak gorde ditzaket
mus partiduetarako.(bis)

Mendiluze: Ale ustelak mus partidetan
laguntzaile omen dira,
basa jendea ematen dezu
jarriez gero begira,
elegantzia nik det ordea,
ikusten da urrutira,
bion artean dagon aldea
detailetan nabari da.(bis)

Sarriegi: Gure aldea itxuran eta
detaileetan izan da,
ez naiz harritzen hori esateaz

jauntxokumea izanda,
ni lasai asko geldituko naiz
zuri aurpegira esanda:
lehenago ere zu ez zaudela
nahiko babarruna janda.(bis)

Mendiluze: Nik ez det jarri atentziorik
inoiz babarrun alean,
eta zu berriz zaude hortako
nahiko postura zalean,
horregatikan ageritzen da
basati eran kalean
baba-soro bat jartzen duena
zona residentzialean.(bis)

ZUMARRAGA (1994-12-10)

Bertsolariak: Lazkano, Egaña, Peñagarikano, X.Zeberio, Euzkitze eta J.Agirre.
Gaijartzailea: Laxaro Azkune.

Urteroko saioa Santa Luzitan, herriko frontoian 700en bat entzuleren aurrean. Gaueko saio ordaindua.

Lazkano - J.Agirre

Gaia: Egintzagun kontu, Santa Luzi ferian, Imanol Lazkano tratantea etorri zaigula atzeko animalia
hoiekin eta Joxe, baserritarra, eroatera etorri zaiola. Ez dakigu tratuan konponduko diren.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nere gogoa hegan dijoa

Lazkano: Joxe, zezen bat itxurazkoa
nahi badezu baserrian,
manta horiaz estali eta
hemen daukazu aurrian,
horrelakoa ordaindu leike
goren-gorengo neurrian,
sementalaren seilua dauka
ezkerreko belarrarian.

J. Agirre: Neroni ere aspalditik naiz
horri begira egona,
jakina zegon zilua ere
jarri behar zitzaiona,
gorputzez ez da mardula baina
izan leike raza ona,
eta gainera nabarmen dago
kanpaina eginda dagona.

Lazkano: Hurrengo behian bentajak ere
orain nahi dizkizut kontu,
sei bat urtian etxian daukat

eta ez da gaizki porta,
baina mantendu ezazu itxuraz
ez zazu larrera bota,
orain aldean ume egiteko
bete-bete dago ta.

J. Agirre: Behar baldin bada eduki leike
horrekin zenbait engaino,
baina ganadu gobernatutzen
ni ona naiz oraindano,
horrekin ere hartu nezake
behar hainbeste enpeino,
gizena gizen eukitzea errez da
plakua gizentzen baino.

Lazkano: Hurrengo hori astoa degu,
errez leike imajina,
ta etxerako hori da guztiz
abere bat atsegina,
putzu zulotan salto egiten du
kontrabista ta arina,
txoro aidetik badauka baina
oso asto klase fina.

J. Agirre: Zuk badaukazu gogo beraz
astoa neri saltzeko,
nik ez dadukat enpeinorikan
neure etxea galtzeko,
ai ta gutxio korajerikan
horren gainean jartzeko,
bestela arrisku ederra dago
ipurdia ebakitzeko.

Lazkano: Hurrengo da zaldi klase bat
ta banoa esatera,
negozioa seguru dezu
astindu zazu kartera,
egin behar zaion bakarra dezu
behorretatik atera,
eta orduan jua zindezke
lasai asko Lasartera.

J. Agirre: Lazkano ez zazu gaur hemen egin
horrelako hitzaldirik,
zaldi zahar horren grinak baitaude
aspaldian itzalirik,
bada ezpada ere hobe deu horri
uztea geldi geldirik,
nik ez nuke nahi hoinbeste puru
erretzen duen zaldirik.

Lazkano: Horra etxeke ikuiluaren
kontu denak hemen konta,

negozioa uste nuen da
azken-azkenik porrota,
nahi badezu eman etxera-eta
edo txorixota bota,
nahi dezuna egin laurekin ere
bapo aspertuta nago ta.

J. Agirre: Bertso honekin bukatu nahi det
lehen hasitako disputa,
neuk nahi dedana egitea ere
bai daukat nere eskuta,
laukote horrek gure etxerako
zerbiziorik ez du ta
nahi baldin baezu eaman zerorrek
lehen zeureak dituzu ta.

MARKINA-XEMEIN (1994-12-11)

Bertsolariak: S. Lizaso, Lujanbio, Egaña, Peñagarikano, Ibarra eta Mañukorta.
Gaijartzailea: Joxemari Lejardi "Gabixola".

Urteroko saioa herriko frontoian, arratsalde. 700en bat entzule hurbildu zen saiora. Antolatzaile: Amaiur taldea.

Ibarra - Mañukorta

Gaia: Nola ikusi duzue batak bestea Bizkaiko Bertsolari Txapelketan?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Eguna pasa nekean eta

Mañukorta: Ostegunean Durangon nintzan
ez zan jaialdi tristia;
buru argia, kantatzen zuan
lasai nahi zuen guztia,
txispa oneko bertso alaia
esakera ta txistia,
berdingabeko neskatxa degu
gure herriko gaztia.(bis)

Ibarra: Final erditan ez ginen egon
gu biok oso trankilak,
baina halere ondo pentsatuz
ez geunden bate isilak,
bertso politak bota zituen
benetan Mañu abilak,
horrenbestean eingo ez du ba,
Jainkumendiko mutilak!(bis)

Mañukorta: Umore eta txispa hoiekin
txapelketan dago noski,

hala beharrez tamaino hortan
entzundakuak badaki,
hau entzun eta Mañukortak han
hau egin zun erabaki:
Nere ordezkua Markiñak badu,
hiltzeko ere ez naiz gaizki.(bis)

Ibarra: Finalerako gordeta dauka
Gregoriok hainbat kemen,
bere bertsoak botako ditu
ondo eta garden-garden,
lehen postua lortu dezake
garbi esaten dut hemen,
ondo pentsatuz txapela berai
gelditzen zaio hobeen.(bis)

Mañukorta: Txapel kontuan izan litezke
guztizko karga astunak,
sagardotegi ta herri afarian
nahiz ta izan jardunak,
esakera bat asmatu zuen
lehenagoko jakitunak,
txapel haundirik ez dula behar
bate bururik ez dunak.(bis)

Ibarra: Mañurentzako ez da hain ona
lehen postuaren eza,
noizbaiten hori lortzea baitu
honek betiko ametsa,
kontseju on bat eman nahi dizut,
eman nahi dizut babesa,
denbora hartu eta bertsoa
gutxinez birritan pentsa.(bis)

Mañukorta: Hara Iratxe zuk badakizu
hor Mañukortaren berri,
pentsatu gabe garbi-garbiak
nik kantatzen ditut sarri,
ta gazte hoiei esango diet
danen eskarmentugarri,
hainbat denbora behar baldin bada
idatzi eta ekarri.(bis)

Ibarra: Idazten ere hor ibiltzen da
hainbat ta hainbat jende arrunt,
baina guk kanta egiten dugu
behintzat idazte horren truk,
egitan diot finalerako
nik ondo ikusten zaitut,
baina ez nazazu txarto begitu
txapela kentzen badizut.(bis)

S.Lizaso

Puntuei erantzuten.

Neurria: 6 puntukoa

Doinua: Esateko ez naiz lotsa

Gabixola: Euskadin gerra zibila...

S.Lizaso: piztea ez dago zaila,
horregatikan kezkatu dago
hemen jende pila,
goitik sortu iskanbila
ta triste jende umila,
denok dakigu nortzuk dabilzan
gaur ere gerraren bila.(bis)

Gabixola: Ustelkeria nagusi...

S.Lizaso: edonork leike ikusi,
gauza dotore pintatzen dute
barrendik itsusi,
baina hola ezin utzi,
soka behar degu hautsi,
egin behar dena holakoeri
gure hortzak erakutsi.(bis)

Gabixola: Irlandan bake doinuak...

S.Lizaso: kanpaiak dituzte juak,
konponbidea lortzeko horra
eginak planuak,
baina hemengo asmuak,
setati eta aluak,
hitzezin eta konponbidea
ez ote du hemenguak?(bis)

Gabixola: Negurantz hego-haizea...

S.Lizaso: Zu nabaritzen ai zea,
hegohaizeakin mudatzen baita
dudako klasea,
giroa dago hezea,
aldatuko da? Bai zea!
Gustora gaude uda azkena
doa ona ta luzea.(bis)

Gabixola: Indurain ala Rominger?...

S.Lizaso: Dudan makina bat bazter,
biak'e nola egina duten
hainbat marka eder,
nafarra ez dabil oker,
ta beste txiki harek leher,
Tourrean behintzat nafarran kontra
hark ez du egingo ezer.(bis)

Gabixola: Montekristoaz azkena...

S.Lizaso: Zuk ez dezulako pena,
zure inbiria ai zaizu Gabi
beti nabarmena,
erretzeko bai kemena,
ta ahal bada besterena,
erretzez gero zeuk ekartzea
izango dezu onena.(bis)

BILBO (1994-12-18)

Araba eta Bizkaiko bertsolari txapelketaren finaleko saioa Arriaga antzokian.

Unai Iturriaga txapeldunaren agurra

Isabelatxu, Isabelatxu
arren esan bat eidazu,
portuan dauen untzi bat hartu
eta ospa gaur egizu.
Valentziaraino joan zaiteta
kartzelan egizu kasu,
Txiplas han dauen galdetu eta
nere txapela emoiozu.

SAIOEN AURKIBIDEA

Data	Herria	Bertsolariak
1994-01-01	Ordizia	J.Enbeita, Peñagarikano
1994-01-07	Oñati	S.Lizaso, Murua
1994-01-22	Bergara	E.Arozena, I.Elortza
1994-01-29	Zegama	J.Enbeita, Sorozabal
1994-02-12	Zarautz	Egaña, I.Elortza, J.Enbeita, Euzkitze, Peñagarikano, Sorozabal
1994-02-13	Lekeitio	Egaña, Iturriaga, Murua, J.Sarasua, Sorozabal
1994-02-19	Zestoa	H.Lopategi
1994-02-25	Muxika (Areatza)	P.Aranburu
1994-02-27	Irurita	M.Arozena, S.Lizaso, Mañukorta
1994-03-01	Trapaga	Aurrekoetxea, M.M. Urdangarin
1994-03-04	Hondarribia	S.Lizaso, Lujanbio, Telletxea
1994-03-06	Iurreta	Iturriaga, Maia, Telleria
1994-03-06	Donostia (Ibaeta)	Lazkano, J.Lizaso
1994-03-08	Bilbo	Aurrekoetxea
1994-03-11	Elgeta	Ibarra, Telletxea
1994-03-11	Gernika-Lumo	Estiballes, Gonzalo, Iza, H.Lopategi
1994-03-12	Markina-Xemein	P.Aranburu
1994-03-20	Lizartza	Mendizabal, Sorozabal
1994-03-27	Donostia (Intxaurreondo)	Bilbao, Estiballes, Sukia
1994-04-10	Irun	J.Sarasua, Sorozabal
1994-04-16	Beasain	E.Arozena, Ibarra
1994-04-17	Oiartzun	J.M.Lopez
1994-04-22	Lasarte	Egaña, S.Lizaso
1994-04-23	Abadiño (Matiena)	J.M.Areitio
1994-05-06	Usurbil	Amuriza, Iturriaga
1994-05-20	Aretxabaleta	Amuriza, Egaña, Mendizabal, J.Sarasua
1994-06-04	Bergara (Elosua)	Gorrotxategi, Loidisaletxe II
1994-06-11	Errezil	Egaña, Peñagarikano
1994-06-12	Hernani (Ereñozu)	J.Lopategi, Murua
1994-06-18	Elgoibar	Meabe
1994-06-18	Deba (Itziar)	J.Agirre, Lazkano, J.Lizaso
1994-06-19	Errigoiti	M.Arozena, H.Lopategi, J.M.Lopez
1994-06-24	Markina-Xemein (Amallo)	Amuriza, Egaña
1994-07-02	Usurbil	Esoain, Lujanbio

1994-07-02	Mungia	J.Lopategi
1994-07-03	Amoroto	Sorozabal
1994-07-08	Lesaka	Elizagoien, S.Lizaso, Lujanbio
1994-07-25	Usurbil (Zubieta)	S.Lizaso, X.Zeberio
1994-07-30	Billabona	Egaña, S.Lizaso
1994-08-03	Usurbil (San Esteban)	S.Lizaso, Sorozabal, X.Zeberio
1994-08-12	Zarautz	E.Arozena, Epelde, Maia
1994-08-13	Baliarrain	Mendizabal, J.Sarasua, X.Zeberio
1994-08-14	Gabiria	Loidisaletxe II
1994-08-16	Goizueta	E.Arozena, Lujanbio
1994-08-20	Bidegoian (Goiatz)	Arzallus, J.Sarasua
1994-08-21	Bilbo	J.Agirre, J.Azpillaga
1994-08-23	Bilbo	Z.Enbeita, Respaldiza
1994-08-24	Arrasate (Uribarri)	Mañukorta, Sorozabal
1994-08-25	Bilbo	Azula, O.Enbeita
1994-09-03	Hondarribia	Ibarra, Lujanbio
1994-09-03	Zarautz	U.Agirre, Epelde
1994-09-08	Zizurkil (Elbarrena)	Irazu, Mendizabal
1994-09-09	Elorrio	Gaztelurrutia, S.Lizaso, Murua
1994-09-10	Mutriku	Egaña, I.Elortza, Iturriaga
1994-09-30	Oñati	J.Azpillaga, T.Garmendia, J.Lopategi
1994-09-30	Gaintza	Egaña, Anjel Larrañaga, Murua
1994-10-11	Donostia (Gros)	Mendizabal, Telleria
1994-10-12	Durango	Irazu
1994-10-22	Berriatua	Bilbao, Omagojeaskoa
1994-10-28	Iruñea	Peñagarikano, Telleria
1994-10-29	Billabona	Loidisaletxe II, Telleria
1994-10-30	Zornotza	I.Ajuria, M.M. Urdangarin
1994-11-05	Azkoitia	I.Elortza, Irazu, Lujanbio, Maia
1994-11-11	Ataun	Egaña, Iturriaga, S.Lizaso, Munduate, Peñagarikano
1994-11-19	Azpeitia	J.Agirre, Euzkitze, Lazkano, Peñagarikano
1994-12-02	Deba	Iturriaga, S.Lizaso, Lujanbio, Murua, J.Sarasua
1994-12-03	Soraluze	Euzkitze, Gorrotxategi, Murua
1994-12-06	Orio	Egaña, J.Sarasua
1994-12-08	Errenderia	Mendiluze, Sarriegi
1994-12-10	Zumarraga	J.Agirre, Lazkano
1994-12-11	Markina-Xemein	Ibarra, S.Lizaso, Mañukorta

Izen eta izengoitien deskribapena

Zerrenda hau, liburuan agertzen diren izen laburdura eta izengoitiei dagokio

Liburuan	Izen deiturak	Herria
Agirre J.	Joxe Agirre Esnal	Azpeitia
Agirre U.	Unai Agirre Goia	Hernani
Ajuria I.	Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia	Gernika
Amuriza	Xabier Amuriza Zarraonaindia	Berriz
Aranburu P.	Peru Aranburu	Lekeitio
Areitio J.M.	Joan M. AreitioElkoro	Iurreta
Arozena M.	Manolo Arozena Mitxelena	Lesaka
Arozena E.	Estitxu Arozena Albizu	Lesaka
Arzallus	Jexux Arzallus Egiguren	Hendaia
Aurrekoetxea	Arkotxa Iñaki	Bilbo
Azpillaga J.	Jon Azpillaga Urrutia	Mutriku
Azula	Mirari Azula	Lekeitio
Bilbao	Leire Bilbao Barruetabeña	Ondarroa
Egaña	Andoni Egaña Makazaga	Zarautz
Elizagoien	Bittor Elizagoien Etxegarai	Narbarte
Elortza I.	Igor Elortza	Durango
Enbeita J.	Jon Enbeita Ealo	Gernika
Enbeita O.	Oihane Enbeita Garrido	Gernika
Enbeita Z.	Zigor Enbeita Zugasti	Abornikano
Epelde	Imanol Epelde Pagola	Zarautz
Esoain	Ibai Esoain Arruti	Orio
Estiballes	Arkaitz Estiballes Ormaetxea	Galdakao
Euzkitze	Xabier Perez Mendizabal	Azkoitia
T.T.Garmendia.	Txomin Garmendia Galarza	Billabona
Gaztelurrutia	Beñat Gaztelurrutia Munitxa	Abadiño
Gonzalo	Iñaki Gonzalo Lardudogoitia	Bilbo
Gorrotxategi	Joxe Luis Gorrotxategi Zangitu	Azpeitia
Ibarra	Iratxe Ibarra Foruria	Markina
Irazu	Jesus M ^a Irazu Muñoa	Larraul
Iturriaga	Unai Iturriaga Zugaza-Artaza	Durango
Iza	Ibon Iza	Igorre
Larrañaga A.	Angel Larrañaga Sodupe	Azkoitia
Lazkano	Imanol Lazkano Uranga	Azpeitia
Lizaso S.	Sebastian Lizaso Iraola	Azpeitia

Lizaso J.....	Joxe Lizaso Mendizabal.....	Azpeitia
Loidisaletxe II.....	Juan Joxe Eizmendi Garmendia.....	Errezil
Lopategi J.	Jon Lopategi Lauzirika.....	Muxika
Lopategi H.	Haritz Lopategi Urrutia	Muxika
Lopez J.M.....	Joan M. Lopez Agiriano.....	Oiartzun
Lujanbio	Maialen Lujanbio Zugasti	Hernani
Maia	Jon Maia Soria.....	Zumaia
Mañukorta	Gregorio Larrañaga Mandiola.....	Markina
Meabe	German Meabebasterretxea Arregi	Elgoibar
Mendiluze.....	Aitor Mendiluze Gonzalez	Andoain
Mendizabal	Mikel Mendizabal Garmendia	Itsasondo
Munduate.....	Joxe Munduate Apalategi	Ataun
Murua	Iñaki Murua Jauregi	Gabiria
Omagojeaskoa	Jon Mikel Omagojeaskoa.....	Gernika
Peñagarikano	Angel M ^a Peñagarikano Labaka.....	Anoeta
Respaldiza	Juanjo Respaldiza Ozaeta	Orozko
Sarasua J.....	Jon Sarasua Maritxalar.....	Aretxabaleta
Sarriegi	Aitor Sarriegi Galparsoro	Beasain
Sorozabal	Jokin Sorozabal Ansa	Andoain
Sukia.....	Xabier Sukia Etxeberria	Orio
Telleria.....	Millan Telleria Perurena	Albiztur
Telletxea	Amaia Telletxea Larretxea.....	Arantza
M. Urdangarin M.	Mikel M. Urdangarin	Zornotza
Zeberio X.....	Xabier Zeberio Zubeldia	Itsasondo